


Unibertsitate hedakuntzari buruzko esplorazio-diagnostikoa Espainiako Estatuko 8 unibertsitate publikotan

Iris Murillo Hidalgo



Unibertsitate hedakuntzari buruzko esplorazio-diagnostikoa Espainiako Estatuko 8 unibertsitate publikotan

Iris Murillo Hidalgo

Argitalpen hau AECID Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren diru-laguntzarekin egin da. Argitalpenaren edukia Hegoaren ez beste inoren ardura da eta ez du zertan AECIDen iritzia adierazi.

Finantzailea:



Unibertsitate hedakuntzari buruzko esplorazio-diagnostikoa Espainiako Estatu
8 unibertsitate publikotan

2025eko otsaila

Egilea: Iris Murillo Hidalgo

Argitaratzailea:



Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua

Zubiria Etxea Eraikina. UPV/EHU

Agirre Lehendakariaren etorbidea, 81 • 48015 Bilbo

☎ 94 601 70 91

Arabako Campuseko Liburutegia. UPV/EHU

Nieves Cano kalea, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945 01 42 87

Carlos Santamaria Zentroa. UPV/EHU

Elhuyar Plaza, 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

hegoa@ehu.eus

www.hegoa.ehu.eus

Diseinatzailea eta maketatzailea: Marra, S.L.

Itzultzailea: Iñigo Gallastegi

ISBN: 978-84-19425-33-1

Inprimatzailea: Printhus

Lege-gordaiula: BI 00435-2025

Liburu hau Shiro Echo paperean inprimatu da, FSC eta CO₂ neutroa kalifikatutako % 100 zuntz birziklatuz egina.



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa

Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Aurkibidea

Sarrera	7
Metodologia	11
Azken lagina	13
Unibertsitate hedakuntza: erakundeen eta diskurtsoaren azterketa	19
Unibertsitate araudia	19
Plangintza estrategikoa	23
Ikusgarritasuna	24
Kontzeptualizazioa	25
Helburuak	28
Organismoak	31
Jarduerak	33
Subjektuak	39
Inpaktuak	43
Frenatzen duten elementuak	45
Politikaren baldintzapena	47
Enpresa-ereduan oinarritutako gobernantza	48
Unibertsitate publikoaren finantziazio eskasa	49
Estrategia instituzionalik eza	51
Aintzatespenik eza	54
Unibertsitate hedakuntza kritikoa	59
Aztertutako unibertsitateetan unibertsitate hedakuntza kritikoa bultzatzeko estrategiak	65
1. Unibertsitate eginkizun horri zentzua ematea	66
2. Unibertsitate hedakuntza kritikoaren balioa aintzat hartzea	67
3. Plan estrategiko espezifikoa izatea	68
4. Funtzioen integritasunerako bidean aurrera egitea: irakaskuntzaren, ikerketaren eta hedakuntzaren arteko artikulazioa	69
5. Subjektu eraldatzaileekiko artikulazioa sustatzea	70
6. Komunikazio modu egokiak bultzatzea	72
7. Baliabide nahikoak izatea	73
Ondorioak	75
Erreferentzia bibliografikoak	77
Eranskinak	81

Irudien aurkibidea

1. irudia.	Parte hartu duten unibertsitateen mapa	11
2. irudia.	Erabilitako lagina eta tresnak	12

Taulen aurkibidea

1. taula.	Online galdetegia aplikatzeko lagina	13
2. taula.	Aztertutako estatutuei buruzko informazioa	20
3. taula.	Aztertutako zortzi unibertsitateen estatutuetan jasotako unibertsitate hedakuntzaren definizioa eta helburuak	21
4. taula.	Aztertutako plan estrategikoei buruzko informazioa	23
5. taula.	Unibertsitate hedakuntzaren definizioa, webguneetan jaso bezala (2023)	25
6. taula.	Unibertsitate hedakuntzako egiturak	31
7. taula.	Unibertsitate hedakuntzan nagusi diren jarduera-motak, profilaren arabera	37
8. taula.	Unibertsitate hedakuntzan nagusi diren jarduera-motak, hezkuntza komunitatearen pertzepzioaren arabera	38
9. taula.	Unibertsitatearen rolari buruzko pertzepzioa	44
10. taula.	Freno gisa jokatzen duten elementuak, prebalentziaren arabera ordenatuta	46
11. taula.	Zer da hedakuntza kritikoa eta nola garatzen da. Hedakuntza Sareak egindako jardueretan sortutako erantzunak	65

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	Parte-hartzaileen profila unibertsitateko	15
2. grafikoa.	Inkestatutako pertsonen hedakuntzan duten parte-hartze maila	15
3. grafikoa.	Parte-hartze maila, profilen arabera	16
4. grafikoa.	Parte-hartze maila, unibertsitateko	16
5. grafikoa.	Unibertsitate hedakuntza terminoaren erabilera estatutuetan eta plan estrategikoetan	26
6. grafikoa.	Plan estrategikoetan erabilitako kontzeptuak eta horiek zenbat aldiz erabiltzen diren	27
7. grafikoa.	Unibertsitate hedakuntzaren helburuak, hezkuntza komunitatearen pertzepzioen arabera	29
8. grafikoa.	Unibertsitateek garatutako unibertsitate hedakuntzako jarduera-motak, web informazioan oinarrituta (2023)	34
9. grafikoa.	Unibertsitate hedakuntzako jarduerak unibertsitateko	35
10. grafikoa.	Unibertsitate hedakuntzan nagusi diren jarduera-motak, unibertsitate komunitatearen pertzepzioaren arabera	36
11. grafikoa.	Unibertsitate hedakuntzako ekimenetan parte hartzen duten eragileak eta parte hartzeko moduak, unibertsitate komunitatearen pertzepzioaren arabera	41
12. grafikoa.	Unibertsitate hedakuntzaren eragina Unibertsitatean, gizartean, eta parte hartzen duten subjektuengan	44
13. grafikoa.	Unibertsitatearen eginkizunen garrantzia	45
14. grafikoa.	Freno gisa joka dezaketen eragileak	46
15. grafikoa.	Hedakuntzako ekimenetan parte hartzearen aintzatespen akademikoari buruzko pertzepzioa	55
16. grafikoa.	Plan estrategikoaren bizi-zikloa	69

Hedakuntzak justifika dezake
zergatik merezi duen benetan Unibertsitatean egotea...

Humberto Tommasino
(*Unibertsitate Kritikoa eta Eraldatzailea topaketa.*
2023ko maiatzaren 19an, Madrilen)

Sarrera

Honako diagnostiko hau *Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa. Herritartasun globala eraikitze konpromiso sozialaren proposamena, pandemia osteko testuinguruan* proiektuaren barruan kokatzen da¹. Proiektua Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hegoa Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko Hezkuntza Taldeak sustatu du, AECID Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren finantziarioari esker. Ekimenak Latinoamerikako bi unibertsitate hauen laguntza du: Uruguaiako Errepublikako Unibertsitatea (Udelar) eta Kolonbiako Caucaoko Unibertsitatea (UNICAUCA)².

Proiektuaren helburua da inguruko komunitatearekin konprometitutako unibertsitate-hezkuntzako proiektu bat indartzen laguntzea, eta, horretarako, unibertsitate hedakuntza sustatu nahi du ikuspegi kritiko batetik.

Denbora luzez, unibertsitate hedakuntza –irakaskuntzarekin eta ikerketarekin batera– Unibertsitatearen eginkizun nagusizat hartu izan da. “Unibertsitatearen hirugarren misio” gisa, hedakuntzak Unibertsitatea eta Gizartea elkartzen duten proposamen guztiak biltzen ditu, eta, hala, Unibertsitatea hura inguruko komunitatera irekitzen du eta haren zerbitzura jartzen du.

Unibertsitate hedakuntzaren deskribapen zabal horretan askotariko ekimenak sartzen dira, eta horiek, maiz, ez dituzte helburu berdinak, eta ez dute unibertsitate hedakuntza bera ere berdindu ulertzen. Unibertsitate hedakuntza ulertzeko, lantzeko eta praktikatzeko modu anitz horien bizikidetzak, beraz, hedakuntzaren lana garatzeko forma osagarriak ekartzen ditu, eta, batzuetan, forma kontraesankorrak ere. Hain zuzen, Unibertsitate publikoaren izaera soziala osatzen duten misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin talka ere egin dezakete forma horiek.

Eginkizun horren inguruan dagoen argitasun faltak edo anbiguotasunak argi erakusten dute hura pentsatu eta (bir)definitu beharra dagoela. Zein izango beharko litzateke unibertsitate hedakuntzaren helburua? Nola burutu beharko litzateke? Zeri eman beharko lioke lehentasuna? Zer subjektu sartu beharko litzateke tartean? Nola proiektatu behar dugu gaur egun, gure lurraldeetatik eta ikuspegi kritiko batetik?

Galdera horiei erantzun ahal izateko, beharrezkoa iruditzen zaigu gaur egungo egoera aztertzea; hau da, jakitea unibertsitateak arlo horretan zer egiten ari diren eta zer ikuspegirekin.

Hain zuzen ere, diagnostiko honetan Espainiako Estatuko zortzi unibertsitate publiko hauek lantzen duten unibertsitate hedakuntzaren zentzua aztertu nahi dugu: Granadako Unibertsitatea (UGR), Malagako Unibertsitatea (UMA), Zaragozako Unibertsitatea (UNIZAR), Leongo Unibertsitatea (ULE), Valladolideko Unibertsitatea (UVa), Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Murtziako Unibertsitatea (UM) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA). Lagin hori bere egokitasunagatik aukeratu dugu, subjektuen arteko sareak kontuan hartuta (irakasleak eta teknikariak eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileak, batez ere). Hala, Espainiako estatuko sei autonomia-erkidegotan kokatzen da, hain zuzen ere, Andaluzian, Aragoian, Gaztela eta Leonen, Euskadin, Murtzian eta Nafarroan.

1 Unibertsitate hedakuntza kritikoa proiektuari buruzko informazio gehiago hemen:

<https://www.hegoa.ehu.eus/eu/projects/33>

2 Unibertsitateak aipatzeko, gaztelaniazko siglak erabiltzen dira diagnostikoan zehar.

Lortutako emaitzei esker, proiektuaren gainontzeko jardueri edukia eman ahal izan diegu. Jarduera horien artean nabarmentzekoak dira 2024ko maiatzaren 23an eta 24an Granadako Unibertsitatean ospatutako Unibertsitate hedakuntza kritikoari buruzko I. topaketak (*I Jornadas de Extensión Universitaria Crítica. Retos de la articulación Universidad-Sociedad para transitar hacia la transformación ecosocial*)³.

Bildutako informazioa erabiliz, unibertsitate hedakuntzak unibertsitate horietan duen egoeraren zirriborro bat egin dugu. Gainera, elementu komunak eta desberdinak direnak identifikatu ditugu, eta unibertsitatearen eginkizun horren joera adierazi nahi izan dugu.

Zehazki, diagnostikoak honako galdera honi erantzun nahi dio: Unibertsitate publikoak gizartea eraldatzen laguntzen duten unibertsitate hedakuntzako prozesuak sustatzen al ditu?

Galdera orokor horretatik galdera espezifikoak sortzen dira, hiru bloketan:

- Zein da unibertsitate hedakuntzaren egoera Espainiako Estatuko unibertsitate publikoetan? (Definizioa, estrategia, egitura, ekintzak eta baliabideak).
- Nortzuk dira unibertsitate hedakuntzaren subjektuak? Nola hartzen dute parte? Zer nolako pertzepzioa, jarrera eta kontzientzia du unibertsitate komunitateak hedakuntza-ereduaren inguruan? (Subjektuak, parte-hartzea eta pertzepzioa).
- Zer aldaketa elementu iruditzen zaizkigu baliagarriak unibertsitate hedakuntza kritikoa sustatzeko? (Aldaketa elementuak)⁴

Dokumentu hau hiru atal handitan egituratzen da. Lehenengoan, diagnostikoa egiteko aukeratutako metodologia laburbilduko dugu eta lagina karakterizatuko dugu. Bigarrean, hedakuntzak aukeratutako zortzi unibertsitateetan duen egoerari erreparatuko diogu, honako alderdi hauen azterketa konparatiboa erabiliz: unibertsitatearen araudia, egindako jarduerak edo lortutako eragina, besteak beste. Gainera, azken puntuan, unibertsitate hedakuntzaren garapena frenatzen duten elementuak lantzen dira. Azkenik, hirugarren atal batean, unibertsitate hedakuntza kritikoa karakterizatuko dugu, eta hori sustatzeko funtsezko elementuak identifikatuko ditugu.

3 Jardunaldiei buruzko informazio guztia Hegoaren webgunean dago eskuragarri:

<https://www.hegoa.ehu.eus/eu/projects/33>

4 Ikus eranskinetan zer gai lantzen den galdera bakoitzean.

Esker onak

Diagnostiko hau Hegoako Hezkuntza Taldeko kideen laguntzaz egin da: Juanjo Celorio Díaz, Gema Celorio Díaz eta Amaia del Río Martínez. Halaber, Humberto Tommasino Ferraroren (Udelar) laguntza preziatua ere izan dugu; izan ere, Humberto erreferente bat da gai honetan.

Ikerlan hau ez zen posible izango unibertsitateetako aliatuen laguntzarik gabe. Bereziki eskertu nahi diegu Diziplinarteko Aholkularitza Batzordean parte hartu duten lagunei: Nacho Álvarez Lucena (CICODE-UGR), Teresa Coma Roselló (UNIZAR), Enrique Javier Díez Gutiérrez (ULE), Diana Granados Soler (UNICAUCA), Susana Irisarri Primicia (UPNA), Analía Leite Méndez (UMA), Beatriz Martínez Pérez (UM), Luis Torrego Egido (UVa), Maitane Picaza Gorrochategui (UPV/EHU) eta Nacho Rivas Flores (UMA).

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu diagnostiko hau egiteko ezinbesteko informazioa eman duten pertsona guztiei.

Eskerrik asko guztioi.

Metodologia

Lehen aipatu dugun bezala, diagnostikoa Espainiako Estatuko zortzi unibertsitate publiko hauetan zentratzen da⁵: Granadako Unibertsitatea (UGR), Malagako Unibertsitatea (UMA), Zaragozako Unibertsitatea (UNIZAR), Leongo Unibertsitatea (ULE), Valladolideko Unibertsitatea (UVa), Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Murtziako Unibertsitatea (UM) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA). Horiek sei autonomia erkidegotan kokatzen dira, hain zuzen ere, Andaluzian, Aragoian, Gaztela eta Leonen, Euskadin, Murtzian eta Nafarroan.

1.irudia. Parte hartu duten unibertsitateen mapa



Diagnostiko honen faseak eta metodologia ezartzeko, kontuan hartu ziren erabilgarri zeuden denbora eta baliabideak. Aldi berean, epeak, lagina eta informazioa biltzeko tresnak ere zehaztu ziren.

Diagnostikoa bost fasetan garatu zen:

- 1. Lehen fasea.** Unibertsitate hedakuntzari buruzko literatura biltzea eta aztertzea.
- 2. Bigarren fasea.** Unibertsitate bakoitzaren agirietan (batez ere estatutuak eta plan estrategikoak) eta webgune ofizialetan unibertsitate hedakuntzari buruz argitaratutako informazioa arakatzea.
- 3. Hirugarren fasea.** Lehen mailako informazioa biltzea, pertsona giltzarriei elkarrizketa sakonak eginez (ikuspegi instituzionala) eta zortzi unibertsitateetako hezkuntza komunitateetako kideei zuzendutako online galdetegiaren bitartez. Horrek unibertsitate komunitatearen pertzepzioa ezagutzeko aukera eman digu.

5 Diagnostiko honen atzean dagoen proiektuaren Diziplinarteko Aholkularitza Batzordean parte hartzen duten aliatuen arabera aukeratu dira unibertsitateak.

4. Laugarren fasea. Informazioaren lehen azterketa eta unibertsitateko eta gizarteko eragileekin informazioa kontrastatzeko online saioa. Saio horretan, Humberto Tommasino⁶ unibertsitate hedakuntzako adituak parte hartu zuen.


5. Bosgarren fasea. Informazioaren azterketa eta azken dokumentua egitea.

Oro har, diagnostiko honek azterketa sinkronikoa proposatzen du, hau da, gaur egungo unibertsitate hedakuntza karakterizatu nahi du, haren testuinguru edo bilakaera historikoa kontuan hartu gabe.

Kontuan hartuta aztertutako unibertsitate-komunitateek unibertso oso zabala dutela eta zaila dela hori osorik hartzea; ausazko lagin bat definitzea erabaki genuen, bost azpialde adierazgarri hauek erabiliz: 1) hedakuntzako unibertsitate-egituretako ordezkariak edo Unibertsitate-Gizarte harremana estutzeko ardura dutenak; 2) Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (TEKAZEL); 3) irakasleak eta ikertzaileak (IIP); 4) ikasleak; y 5) Unibertsitateari lotutako eta Unibertsitatearekin lan egiten duten gizarte erakundeak. TEKAZELen, irakasle eta ikertzaileen eta ikasleen kasuan, garrantzitsua iruditu zitzaigun honako hauekin harremanetan jartzea: alde batetik, unibertsitate hedakuntzarekin lotura zuzena duten pertsonekin, eta, bestetik, horrelako jardurekin loturarik ez duten pertsonekin.

Lehen mailako informazioa jasotzeko (hirugarren fasea) bi tresna sortu genituen, gure lagina osatzen duten taldeei aplikatzekoak: elkarrizketa sakonak eta online galdetegiak.

2. irudia. Erabilitako lagina eta tresnak



⁶ Humberto Tommasino Latinoamerikako eta Karibeko unibertsitate hedakuntza kritikoari (Extensión crítica: teorías y prácticas en América Latina y Caribe) buruzko Gizarte Zientzien Latinoamerikako Batzordeko Lantaldearen (CLACSO) koordinatzaile izan zen. Uruguaiako Errepublikako Unibertsitateko hedakuntzako prorektore izan da 2006tik 2014ra bitartean. Unibertsitate Hedakuntzaren Latinoamerikako Batasunaren presidente izan da 2007tik 2009ra bitartean eta unibertsitate hedakuntza kritikoari buruzko hainbat artikulu eta liburu argitaratu ditu.

Elkarrizketa sakonen helburua gaiari buruzko ikuspegi instituzionala jasotzea zen. Horretarako, Diziplinarteko Aholkularitza Batzordearen (aurrerantzean, DAB) laguntzaz, bi lagun aukeratu ziren unibertsitate bakoitzeko, eta elkarrizketa erdi-egituratuak prestatu ziren, ikerketa-galderetan oinarritutako gidoi batekin⁷.

Online galdetegiak, aldiz, hezkuntza komunitatearen (irakasle eta ikertzaileak, ikasleak, TEKAZELak eta Unibertsitateari lotutako gizarte erakundeak) pertzepzioari buruzko informazioa jasotzeko aukera eman zuen. Lagin orientagarri bat definitu zen, *elur-bola bidezko laginketa-teknika*⁸ erabiliz, eta, DABren laguntzaz, profila betetzen zuten pertsonekin partekatu zen galdera-sorta.

1. taula. Online galdetegia aplikatzeko lagina

Perfil Profila	Pertsona kopurua
Irakasle eta ikertzaileak (IIP)	
Hedakuntzako ekimenak sustatzen dituzten edo horietan parte hartzen duten IIPak	2 (% 50 emakumeak*)
Hedakuntzako ekimenekin loturarik ez duten IIPak	2 (% 50 emakumeak*)
Ikasleak	
Hedakuntzako ekimenetan parte hartzen duten ikasleak	2 (% 50 emakumeak*)
Hedakuntzako ekimenekin loturarik ez duten ikasleak	2 (% 50 emakumeak*)
TEKAZELak	
Hedakuntzako ekimenak sustatzen dituzten edo horietan parte hartzen duten TEKAZELak	2 (% 50 emakumeak*)
Hedakuntzako ekimenekin loturarik ez duten TEKAZELak	2 (% 50 emakumeak*)
Gizarte erakundeak	
Unibertsitateari lotutako gizarte erakundeetako ordezkariak	2 (% 50 emakumeak*)
Guztizko partziala	14 pertsona unibertsitateko
Guztira (zortzi unibertsitateak)	112 pertsona

Azken lagina

Azkenik, honela osatu zen ikerketan erabilitako lagina: 15 lagunek elkarrizketa sakona egin zuten (16 aurreikusten ziren), eta beste 131 lagunek⁹ online galdetegia bete zuten.

7 Ikus eranskinetan elkarrizketa sakonen gidioa.

8 Laginketa ez-probabilistikoa da, eta erabilgarria da subjektu potentzialak aurkitzeko zailak direnean edo laginak hartzen duen unibertsitateko azpitalde txiki-txiki bateko kide direnean.


9 Azkenik, hasieran aurreikusitakoa (112) baino 19 erantzun gehiago jaso ziren.

Jarraian, elkarrizketatutako pertsonen ordezkatzen dituzten edo kide diren erakundeak aipatuko ditugu:

- UGRko Unibertsitate Hedakuntzaren, Ondarearen eta Harreman Instituzionalen arloko Errektoreordetza
- UGRko Unibertsitate Hedakuntzako Atala
- UMAko Gizarte Berrikuntzaren eta Ekintzailetzaren arloko Errektoreordetza
- UMAko Berdintasunaren, Aniztasunaren eta Gizarte Ekintzaren arloko Errektoreordetza
- UNIZAREko Ikasleen eta Enpleguaren arloko Errektoreordetza
- UNIZAREko Iraunkortasuneko eta 2030 Agendako Idazkaritza
- ULEko Unibertsitate Hedakuntzako Atala
- ULEko Zientzia Biomedikoen Saila
- UVako Sistemen Ingeniaritza eta Automatika Saila
- UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza
- UPV/EHUko EhuGune - Konpromisoa eta Eragin Soziala
- UMko Transferentziaren, Komunikazioaren eta Dibulgazio Zientifikoaren arloko Errektoreordetza
- UMko Generoko Zerbitzua
- UPNAko Unibertsitate Hedakuntza eta Gizarte Erantzukizuna Saila
- UPNAko Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea


Online galdetegia bete zuten 131 pertsonen profilari dagokionez, aipatu beharra dago % 55ek emakume gisa identifikatu zutela beren burua. Erantzun zutenen artean, 41 irakasle eta ikertzaileak dira (% 46 emakumeak); 35 ikasleak (% 81 emakumeak); 26 TEKAZELak (% 53 emakumeak); eta 19 Unibertsitatearekin lotutako gizarte erakundeetako ordezkariek (% 47 emakumeak).

1. grafikoa. Parte-hartzaileen profila unibertsitateko




Galdetegiari erantzun zioten lagunen artean, gehienek (% 40) unibertsitate hedakuntzako ekimenak sustatzen, antolatzen eta garatzen dituzte (53 pertsona, % 45 emakumeak). Bere aldetik, % 34k hedakuntzako jardueretan parte hartzen dute (44 pertsona, % 59 emakumeak), eta % 26k ez dute inolako loturarik unibertsitate hedakuntzarekin (34 pertsona, % 65 emakumeak).

2. grafikoa. Inkestatutako pertsonen hedakuntzan duten parte-hartze maila




Elkarrizketatutako profilen parte-hartzea banakatuta aztertzen badugu (irakasle eta ikertzaileak, ikasleak, TEKAZELak eta Unibertsitatearekin lotutako gizarte erakundeak), ikusiko dugu irakasle eta ikertzaileak direla, dudarik gabe, hedakuntzako jardueren sustapenean, antolakuntzan eta garapenean parte hartzen handiagoa erregistratzen dutenak. Bere aldetik, ikasleek parte-hartze tasa handienak erregistratzen dituzte hartzaile gisa. Azkenik, TEKAZELEk hedakuntzarekiko harreman txikiena dute, izan ere, gehienek esanetan, ez dute inolako loturarik.

3. grafikoa. Parte-hartze maila, profilen arabera



Unibertsitate bakoitzeko kolektiboen inplikazioa aztertzean, ikusiko dugu UGR dela hedakuntzako ekimeneen sustapenean, antolakuntzan eta garapenean parte-hartze handiena erregistratzen duena. Haren atzetik, UMA eta UNIZAR aurkitzen ditugu. Bere aldetik, UVa da, alde handiz, hedakuntza jardueretan parte-hartzaile kopuru handiena duena. Inolako loturarik ez duten pertsonen dagokienez, UMn aurkitzen da ehunekorik handiena, eta haren atzetik UPV/EHUn eta ULEn.

4. grafikoa. Parte-hartze maila, unibertsitateko



Unibertsitate bakoitzetik jasotako informazioari dagokionez, jarraian, diagnostikorako funtsezkoak diren zenbait alderdi jasotzen eta alderatzen dituen azterketa aurkeztuko dugu. Aipatu beharra dago unibertsitateen arteko konparazioak ez dituela horien izaera desberdinak kontuan hartzen. Izan ere, desberdintasun handiak daude, hala nola lurralde hedapenari edo aurrekontuko diru-hornidurari dagokienez. Hala, zenbait unibertsitatek autonomia erkidego osoa hartzen dute, eta beste batzuk probintziara mugatzen dira. Baina, ikerketa honen irismena dela-eta, ez ditugu horrelako kontuak aztertu.

Unibertsitate hedakuntza: erakundeen eta diskurtsoaren azterketa

Hasieran aipatu bezala, diagnostiko honen helburua ikerketa-galdera honi erantzutea da: Sustatzen al ditu Unibertsitate publikoak gizarte eraldaketa bultzatzen duten unibertsitate hedakuntzako prozesuak?

Atal honetan, bada, ikerketa-galdera nagusi horretatik eratortzen diren bi kontu espezifikoerik erantzuten diegu. Hala, unibertsitate hedakuntzaren egoera eta hori sustatzen duten subjektuak ikertzen ditugu aztertutako unibertsitateetan. Irakurketa errazte aldera, atala 10 zatitan banatu dugu honako hauek aztertzeko: unibertsitate araudia, plangintza estrategikoa, ikusgarritasuna, kontzeptualizazioa, helburuak, organismo arduradunak, egindako jarduerak, subjektu protagonistak eta unibertsitate hedakuntzak eragiten dituen inpaktuak. Azken zatian, unibertsitatearen eginkizun horren martxa frena dezaketen elementuak identifikatuko ditugu

Atal horiek, batez ere, online galdetegien eta elkarrizketa sakonen¹⁰ bitartez jasotako informazioaz hornitzen dira, eta, amaieran, hausnarketa sustatzeko galderak dituzte.

Unibertsitate araudia

Unibertsitateen estatutuek hezkuntza-erakunde horien funtzionamendua gidatu behar dituzten oinarriko arautegiak jasotzen dituzte, indarrean dagoen unibertsitateko esparru juridikoan oinarrituta. Aztertutako estatutu guztiak XXI. mende hasierakoak dira, horietako zaharrena, 2003koa (ULE) eta berriena 2020koa (UVa).

Hori, agian, unibertsitateko lege-esparrua aldatu izanaren ondorio da. Izan ere, azken hamarkadetan, unibertsitate-sistema arautzen duten legeak aldatu dira. Aldi horretako elementurik garrantzitsuena honako hiru lege hauen onarpena izan daiteke: 11/1983 Lege Organikoa, abuztuaren 25ekoa, Unibertsitatearen Erreformari buruzkoa; 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateerik buruzkoa (baita hura aldatzen duen 4/2007 Lege Organikoa ere, apirilaren 12koa); eta onartu berri den 2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemari buruzkoa¹¹.

Lege horietako lehenak unibertsitate sistemaren oinarriak ezarri zituen, eta unibertsitatearen autonomia bermatu zuen. 2001ean onartutakoak, bere aldetik, sistema hura garatu zuen eta unibertsitate-hezkuntza erreformatu zuen, Goi mailako Hezkuntzaren Europako Esparruarekin (GHEE) bat. Azken prozesu hori, hizkera arruntean "Bologna Plan" gisa ezagutzen dena, Europar Batasuneko unibertsitateen goi-mailako hezkuntza-sistemak globalizatze eta estandarizatzeko helburuz ezarri zen.

Hain zuzen ere, 2001eko legearen erreformak ezarritako eskakizun berrietara moldatzeko behar hori da, agian, estatutuen eguneraketa justifikatzen duena.

¹⁰ Elkarrizketa sakonetako aipuak modu literal eta anonimoan sartu dira, eta, hala, elkarrizketatuaren identitatea aditzera ematen duten edo garrantzitsuak ez diren zatiak kendu dira (kortxeteen arteko testua).

¹¹ 2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemari buruzkoa:
<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2023-7500>

Aztertutako zortzi unibertsitateetako estatutuetatik, gehienek (7/8) modu esplizituan aipatzen dute unibertsitate hedakuntza terminoa. Kontzeptua jasotzen ez duen unibertsitate bakarra UPV/EHU da. Hala ere, aipatu beharra dago unibertsitate hedakuntzaren kontzeptua estatutuetan esplizituki ez jasotzeak, ez definitzeak edo haren helburuak ez deskribatzeak ez duela esan nahi Unibertsitateak gizartearekin artikulatzeko biderik aurreikusten ez duenik. Izan ere, unibertsitateen % 100ek (8/8), modu batera edo bestera, beren burua proiektatzeko eta gizartearekin lan egiteko eta artikulatzeko, eta dauden problematikak lantzeko formulak ezartzen dituzte.

Unibertsitate hedakuntza terminoa jasotzen duten arautegietan funtzio hura unibertsitatearen eginkizunen artean agertzen da, irakaskuntzarekin eta ikerketarekin batera (5/8).

2. taula. Aztertutako estatutuei buruzko informazioa

Unibertsitatea	Unibertsitate hedakuntza aipatzen du estatutuetan	Estatutuen onarpen data	Unibertsitate hedakuntza haren izaeraren, eginkizunen eta helburu nagusien parte gisa agertzen da	Unibertsitate-Gizarte artikulaziorako bideak ezartzen ditu
Granadako Unibertsitatea	Bai	2012	Bai	Bai
Malagako Unibertsitatea	Bai	2019	Bai	Bai
Zaragozako Unibertsitatea	Bai	2004 (2011n eta 2016an aldatuak)	Ez	Bai
Leongo Unibertsitatea	Bai	2003	Ez	Bai
Valladolideko unibertsitatea	Bai	2020	Bai	Bai
Euskal Herriko Unibertsitatea	Ez	2011	Ez	Bai
Murtziako Unibertsitatea	Bai	2004	Bai	Bai
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Bai	2011	Bai	Bai

Hurrengo taulan, unibertsitate bakoitzeko estatutuetan unibertsitate hedakuntzari buruz agertzen diren funtsezko elementuak, definizioak eta helburuak agertzen dira, hitzez hitz. Jasotako informazioaren arabera, bi unibertsitatek (UGR eta UVa) zientzia eta kultura dibulgaziora bideratutako prestakuntza-jarduerak garatzeko estrategia gisa definitzen dute unibertsitate hedakuntza, gizarte osoari zuzenduta dagoena. Bestalde, sei unibertsitatek (UMA, UGR, UM, UVa, ULE, UPNA) funtzio horren helburuak jasotzen dituzte, hainbat proposamenekin.

3. taula. Aztertutako zortzi unibertsitateen estatutueta jasotako unibertsitate hedakuntzaren definizioa eta helburuak

Unibertsitatea	Definizioa	Helburuak
UGR	“Unibertsitateak zientzietan, teknologian, gizarte-jakintzetan, letretan eta arteetan kultura prestatzeko eta zabaltzeko egiten dituen jardueren multzoa. Jarduera horien ezaugarri komuna ingurune sozialera zabalik egotea da.”	“pentsamendu kritikoa sortzera eta zientzia, teknika eta kultura zabaltzera bideratuak”
UMA	-	“zientzia, teknika, artea eta kultura zabaltzea”
UNIZAR	-	-
ULE	-	“unibertsitate hedakuntza eta jarduera kulturalak sustatzea, batez ere Leongo gaiekin zerikusia duten horiek, ikasleen formakuntza eta profesionalen prestakuntza eta hobekuntza sustatzeko” “kultura, zientzia, teknika eta arte jarduera zabaltzeko bideak sustatzea eta artikulatzea, hezkuntza komunitatean eta gizartean” “Leongo kulturarekin lotutako alderdi guztiak sustatuko ditu”
UVa	“eguneratzeko eta unibertsitate hedakuntzako ikastaroak, graduatuen etengabeko prestakuntzara eta zientzia eta kultura gizarteko maila askotan zabaltzera bideratuak” “etengabeko prestakuntzako, lanbide-birziklatzeko eta zabalkundeko jarduerak”	“kultura eta ezagutza zabaltzea, horien agerpen guztietan” “pentsamendu kritikoa zabaltzen eta kultura, zientzia eta teknika sustatzen laguntzea” “Unibertsitate hedakuntzaren helburu dira honako hauek: garapenerako lankidetzak; gizarte eta kultura eraldaketa; kultura ohitura eta modu kritikoak, partizipatiboak eta solidarioak sortzea eta zabaltzea; baita etengabeko prestakuntza irekia eta anitza ere” “kultura integratzaileko eredu bat indartuko du, jakintza zientifiko eta teknikoaren eta jakintza humanistiko eta artistikoaren artean, unibertsitate hedakuntzako jardueren bitartez”
UPV/EHU	-	-
UM	-	“Ezagutza eta kultura zabaltzea”
UPNA	-	“unibertsitate hedapeneko, kulturako eta etengabeko prestakuntzako jarduerak garatzea, gizartearen aurrerapenari laguntzeko”

Estatutuek proposatzen duten unibertsitate hedakuntzaren kontzepzioa aztertzean, aipatzekoa da unibertsitate gehienek zientziaren eta kulturaren zabalkundearekin lotzen dutela. Hala ere, zenbaiten esanetan, eginkizun horrek gaitasun estrategikoa du "pentsamendu kritikoa sortzeko, gizarte eta kultura eraldaketari laguntzeko, edo kultura ohitura edo modu kritikoak, parte hartzekoak eta solidarioak sustatzeko". Zentzu horretan, interes zabaltzailea nagusi bada ere (hau da, hedakuntza Unibertsitatean sortutako ezagutza zabaltzeko modu gisa ikusten duena), beste unibertsitate batzuek ulertzen dute hedakuntza "kultura eta gizarte aldaketa sustatzeko" giltzarri izan daitekeela.

Onartu berri den 2/2023 Lege Organikoak Unibertsitate Sistema arautzen du. Legeak, Europako goi-mailako hezkuntzaren homogeneizazioaren proposamenarekin jarraitzen badu ere, ez du unibertsitate hedakuntza aipatzen. Aitzitik, hiru bloke handi hauetan banatzen du Unibertsitatearen eginkizuna: irakaskuntza, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia. Hau da, hirugarren eginkizuna Unibertsitatean eta Unibertsitateak sortutako ezagutza gizartearen beharrak asetzerantz bideratzea da, batez ere egoera ahulenean dauden kolektiboak dagokienez: "Unibertsitatea, ezagutzaren sortzaile eta zabaltzaile nagusi gisa, gizartearen zerbitzura egotea, garapen sozialari eta ekonomikoari laguntzea, kolektibo zaurgarrienen eskubideekin konprometitutako gizarte inklusiboa eta anitza sustatzea [...]" (Unibertsitate Sistemari buruzko 2/2023 Lege Organikoa, hitzaurrea).

Lege horrek jasotzen duenarekin bat, oinarrikoak diren dokumentuetan, esate baterako, estatutuetan, Unibertsitateari egokitzen zaio batez ere ezagutzaren ekoizpena. Hortaz, ez dira aintzat hartzen ezagutza ekoizten duten beste eragile batzuk (ez neurri berean behintzat), eta gizartea hartzaile hutsa besterik ez da. Logika horrek, bada, harreman desparekoa ezartzen du Unibertsitate-Gizarte bikotean. Beraz, honako galdera hau egin dezakegu: Akademiak ezagutza sortzeko gune bakar gisa duen erreferentzialtasuna gainditzeak erraztuko al luke unibertsitate komunitatearen eta gizarte-eragileen arteko elkarriketa eta elkarlana?

Aurreko Lege Organikoarekin gertatu zen bezala, suposatzen behar dugu Lege berriak (2/2023 Lege Organikoa) hurrengo urteetan unibertsitatearen araudiak moldatzea eskatuko duela. Hala, unibertsitate hedakuntzaren eginkizunari buruz eztabaidatzeko eremuak zabalduko dira. Bai Lege berriak eta bai aurrekoak Goi-Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren hezkuntza-sistemarekin integratzeko prozesuarekin bat egiten dute, baita hezkuntza-sistemen estandarizazioarekin ere. Baina zenbait Unibertsitatek, beren gaur egungo araudietan, Unibertsitate errota baten eta tokiko kultura eta hizkuntza sustatzearekin konprometitzen den Unibertsitate baten alde egitearen garrantzia eta balio erantsia nabarmentzen dute. Zentzu horretan, gure buruari galdetu behar diogu ea posible den Europako hezkuntza-sistema estandarizatu batera hurbiltzea eta, aldi berean, lurraldean errotutako unibertsitatea sustatzea. Nola berma dezakegu bizi garen testuinguruaren behar espezifikoak ez direla geratzen Europako lehentasunen menpe? Nola eta non identifikatu behar dira Unibertsitateak lehenetsi behar dituen lan-arloak? Nola sartzin dira hizkuntza minorizatuak goi-mailako hezkuntzaren estandarizazio prozesuan?

2023ko otsaileko 2/2023 Lege Organikoak ez du inon aipatzen unibertsitate hedakuntza. Beraz, ikusi behar dugu zer gertatzen den horrekin, lege horren artikuluetatik desagertu egiten baita unibertsitate hedakuntzaren kontzeptua [...] erreferentzia historiko bat izan da unibertsitateari buruzko Espainiako legeria demokratiko osoan, eta desagertzen da erreferentzia. Hortaz, Unibertsitate Hedakuntzak landu ohi duen gizartearekiko lotura hori, 2/2023 Lege organikoan beste modu batera artikulatzen da, eta ikusi behar dugu hori nola jasotzen den unibertsitate bakoitzaren estatutuetan, Horretan gaude orain unibertsitate guztiak (7. elkarriketa).

Plangintza estrategikoa

Aztertutako unibertsitate guztiek –batek izan ezik– plan estrategiko bat dute. Horretan erakundearen lanaren orientazioak zehazten dira aldi jakin baterako. UNIZARen kasuan bakarrik ez dugu aurkitu azterketa honetan erabil daitekeen plan estrategiko orokor bat.

Aztertutako plan guztiak indarrean daude, UPNArena izan ezik (hura 2023an bukatu zen eta diagnostiko hau egiteko momentuan ez da oraindik berri bat onartu). Planen indarraldiari dagokionez, gehienak laburrak dira (2 urte UVA-ren eta ULEren kasuan, 3 urte UPNAREN kasuan, eta 4 UMAREN eta UPV/EHren kasuan), baina bik indarraldi luzeagoa dute (7 urte UMren kasuan eta 10 UGRren kasuan).

Aztertutako Planen erdiek baino gutxiagok (3/7) esplizituki aipatzen dute unibertsitate hedakuntza beren dokumentuetan (UMA, UVA eta ULE). UMAREN planak behin bakarrik aipatzen du, misioa deskribatzeko. Gainontzeko biek, aldiz, garrantzi handiagoa ematen diote, izan ere, beren helburu estrategikoekin lotzen dute eta jarduketa ardatz espezifikoaren artean kokatzen dute, hurrenez hurren.

Unibertsitate hedakuntza helburu estrategikotzat hartzen duen plan estrategikoak (UVA), bada, jarduera artistiko eta kulturaletara, Unibertsitatearen irudia hobetzeko jardueretara eta mezenasgoa sustatzera bideratzen du hura. Bestalde, hedakuntza ardatz estrategikotzat hartzen duen planak (ULE) unibertsitate ezagutza zabaltzera bideratzen du hura, zehazki, topaketa zientifikoak antolatzen laguntzera, ezagutza eta ikerketaren emaitzak transferitzeko modu gisa.

4. taula. Aztertutako plan estrategikoei buruzko informazioa

Unibertsitatea	Plan Estrategikoa du	Indarraldia	Planak esplizituki aipatzen du unibertsitate hedakuntza
Granadako Unibertsitatea	Bai	2022-2031	Ez
Malagako Unibertsitatea	Bai	2021-2024	Bai
Zaragozako Unibertsitatea	Ez	-	-
Leongo Unibertsitatea	Bai	2022-2024	Bai
Valladolideko unibertsitatea	Bai	2023-2024	Bai
Euskal Herriko Unibertsitatea	Bai	2022-2025	Ez
Murtziako Unibertsitatea	Bai	2024-2030	Ez
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Bai	2020-2023	Ez

Plan estrategikoen azterketa konparatiboa egitea zaila da, izan ere, horien egitura, orientazioa eta iraupena oso desberdinak dira. Hala ere, bi joera argi nabarmendu ditzakegu Unibertsitate-Gizarte artikulazioko estrategiei dagokienez.

Alde batetik, unibertsitate guztiek aipatzen dute Nazio Batuek sustatutako 2030 Agenda, eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) betetzen laguntzeko strategiak dituzte. Bestetik, unibertsitate guztiek

ikerketaren emaitzen transferentziarekin lotzen dute hedakuntza, baina helburu horrekin proposatutako estrategiak askotarikoak dira.

Illo horretatik, hainbat unibertsitatek (UGR, UVa, UPV/EHU, UM) bikaintasuneko ikerketa garatzearen garrantzia aipatzen dute. Proposamen hori –aztertutako unibertsitate baten arabera– Europako Batzordeak sustatutako Europako Ikerketa Esparruarekin (EIE) lotuta dago. EIEaren helburuak dira, bere webguneko informazioaren arabera, “ikerketarako EBko merkatu bakarra sortzea”, “ikertzaileen eta ezagutzen zirkulazio askea sustatzea” eta “nazio-mailako ikerketa programak eta politikak harmonizatzen” laguntzea.

Hiru planek (UGR, ULE, UVa) garapenerako lankidetzak aipatzen dute Unibertsitate-Gizarte artikulazioko strategiaren parte gisa, baina hori ez da aztertutako plan guztien ezaugarri. Halaber, beste plan batek (UM) Zientzia Irekiaren printzipioekin bat egiten duten ekintzak sustatzearen garrantzia nabarmentzen du, eta beste batek (UPV/EHU) gizarte eragina duten katedren potentziala aipatzen du.

Oro har, arau esparruari eta plangintza estrategikoari erreparatuz, esan dezakegu ez dagoela proposamen adostu bakar bat unibertsitate hedakuntzaren zentzuari, helburuei edo printzipioei dagokienez.

*arau esparruari eta plangintza estrategikoari erreparatuz,
esan dezakegu ez dagoela proposamen adostu bakar bat unibertsitate
hedakuntzaren zentzuari, helburuei edo printzipioei dagokienez.*

Unibertsitate guztiek ez dute unibertsitate hedakuntzaren kontzeptua erabiltzen, eta, hortaz, ez dute hura definitzen eta bere printzipioak eta helburuak ezartzen. Hura definitzen den kasuetan, Unibertsitatearen zeregina kanporatzea eta gizarteratzea ahalbidetzen duen funtziotzat hartzen da. Hala ere, haren helburuak eta gizartearekin edo ekintzaren protagonista izan behar duten eragileekin harremanak izateko, konektatzeko eta artikulatzeko moduak desberdinak dira erakunde batzuetan eta besteetan.

Dena den, modu batera edo bestera, gizartearekin lan egiteko eta artikulatzeko eta beren burua proiektatzeko premia aipatzen dute aztertutako unibertsitate guztiek –estatutuetan eta plan estrategikoetan– gaur egungo problematikei aurre egiteko. Hala, bere jardura gizartearen erronkei aurre egitera bideratu behar duen eragile gisa ikusten da unibertsitatea.

Ikusgarritasuna

Aztertutako unibertsitate guztiek dute unibertsitate hedakuntzari buruzko informazioen bat bere webguneetan (8/8). Informazioa aztertzean, unibertsitate hedakuntza esplizituki aipatzen duten edukiak bakarrik izan ditugu kontuan, eginkizun horri buruzko fitxa edo guneetan.

Webguneek, zenbait kasutan, unibertsitate hedakuntzaren zentzuari edo interesari buruzko hurbilketa bat eskaintzen dute, baita eginkizun horren esparruan egiten diren ekimen horiei buruzko informazio eguneratua ere. Lan hau egiteko unean, hiru unibertsitate hauek eskaintzen duten unibertsitate hedakuntzaren definizioa: UGR, ULE eta UPV/EHU.

5. taula. Unibertsitate hedakuntzaren definizioa, webguneetan jaso bezala (2023)

Unibertsitatea	Definizioa
UGR	[Funtzio horren helburua da] “unibertsitatearen ekoizpen kulturala unibertsitate komunitateari eta gainontzeko herritarrei hurbiltzea, jarduera eskaintza zabal baten bitartez [...] erakundearen historiaren ia bost mendeetan zehar bildutako ondare zabala kontserbatzea eta zabaltzea”.
ULE	“Gizarte ingurunearekin konprometituta, unibertsitateko bizitza eta irakaspenak Leongo gizartera eraman nahi ditugu, batez ere probintziako herrietara. Hala, baterako jarduerak egitera gonbidatzen ditugu, herritarren ezagutzak eta hezkuntza-maila hobetzeko helburuz”.
UPV/EHU	“Unibertsitatearen ikusgarritasun sozial egokia lortzera eta erakundearen irudi korporatiboa indartzera bideratutako [jarduerak]”.


Logikoa denez, estatutuetan eskaintzen dira garrantzi handiagoko definizioak, hain zuzen, kultura aldaketa, gizarte aldaketa eta pentsamendu kritikoaren garapena aipatzen duten horiek. Plan estrategikoetan eta/edo webguneetan unibertsitate hedakuntzari buruzko ideia zehatzagoak jasotzen dira (honako hauei lotuak: Unibertsitatean sortutako ezagutza zabaltzea, kultura edo prestakuntza jardueren eskaintza, eta erakundearen irudi korporatiboa hobetzeko ekintzak garatzea).

Erakundearen politika jasotzen duten dokumentuetan eta beste komunikazio tresna batzuetan ikusgarritasun handiagoa izateak unibertsitate hedakuntzaren eginkizuna sustatzen lagunduko luke?

Kontzeptualizazioa

Unibertsitate hedakuntza kontzeptuaren erabilera aztertzen dugunean, estatutuetan zein plan estrategikoetan, ikus dezakegu azken urteotan asko murriztu dela terminoaren erabilera. Estatutuen % 90ean, noizbait erabiltzen da kontzeptua (7/8), eta plan estrategikoetan ehuneko hori % 60ra murrizten da. Bada, plan estrategikoak maizago berritzen dira eta beraz gaurkotuagoak dira. Beste alde batetik, webguneen erdian baino gehiagotan (6/8) aurkitzen da kontzeptua, baina hari buruzko informazioa askotarikoa da (kantitateari eta garrantziari dagokionez).

5. grafikoa. Unibertsitate hedakuntza terminoaren erabilera estatutuetan eta plan estrategikoetan




Elkarrizketatutako zenbait lagunen esanetan, unibertsitate hedakuntzaren kontzeptua ez aipatzeak ez du esan nahi eginkizun hori jasotzen eta garatzen ez denik.

Gobernu talde batean kontzeptu bat egoteak edo ez egoteak ez du esan nahi garrantzia eman zaionik edo ez zaionik eman; baizik eta, hura eraldatu dela, aldatu dela eta modu desberdin batean sartu dela gobernuaren sail desberdinetan, ezta? Niretzat unibertsitate hedakuntza oso kontzeptu zaharra da, niri zaharra egiten zait eta erakundearen modernizaziotik oso urruna (4. elkarrizketa).

[Unibertsitate hedakuntzaren kontzeptua], egia esateko, ez dago horrela barneratuta, eta ez ditu biltzen gure unibertsitatean bai egiten diren gauza asko [...] Gure unibertsitateak konpromiso bat du [...] gauza asko egiten ditu lurraldea antolatzeko eta herritarrengana heltzeko eta lurraldeko arazoak lantzeko (5. elkarrizketa).

Plan estrategikoak unibertsitatean indarrean dagoen politika jasotzen duten dokumentu gidariak dira, planari dagokion aldirako. Hori kontuan hartuta, unibertsitate hedakuntzaren kontzeptuaren orde, beste batzuk erabiltzeko joera dagoela ikusten dugu.

6. grafikoa. Plan estrategikoetan erabilitako kontzeptuak eta horiek zenbat aldiz erabiltzen diren



“Transferentzia” edo “ezagutzaren transferentzia” da, dudarik gabe, kontzepturik erabiliena plan estrategikoetan (7/7 unibertsitateek 135 aldiz aipatzen dute). Horren atzetik, “Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna” (4/7 unibertsitate, 30 emaitza) eta “zientzia dibulgazioa” (5/7, 30 emaitza). “Unibertsitate hedakuntza” terminoa laugarren agertzen da (22 emaitza) baina hiru unibertsitatek besterik ez dute erabiltzen (UMA, UVa eta ULE).

“Ezagutzaren transferentzia” kontzeptua plan estrategiko guztietan erabiltzen da (7/7), eta planetan gehien agertzen den bigarren kontzeptua “zientzia dibulgazioa” da (5/7). Hirugarrenik, “Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna” aurkitzen dugu, lau planetan (4/7). Bere aldetik, unibertsitate hedakuntza hiru plan estrategikotan besterik ez da erabiltzen, hau da, % 40 baino gutxiagotan.

Aipatzekoa da “ezagutzaren transferentzia” kontzeptuaren erabilera Unibertsitate Sistemari buruzko 2/2023 Lege Organikoaren proposamen berriarekin bat datorrela; izan ere, hark hiru bloketan bideratzen du Unibertsitatearen eginkizuna, horietako hirugarrena ezagutzaren transferentzia delarik (irakaskuntzaren eta ikerketaren atzetik). Lege berriak ez du unibertsitate hedakuntza aipatzen (Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organiko zaharrak bai aipatzen zuen), baina unibertsitate hedakuntzaren proposamenarekin lotu daitezkeen konpetentziak lantzen ditu, Unibertsitate sistemaren eginkizunei buruzko 2. Artikuluan ikusten den bezala:

- “c) Ezagutza sortzea, garatzea, zabaltzea, transferitzea eta partekatzea, eta ikerketa aplikatu ahal izatea zientzia, teknologia, gizarte, humanitate, arte eta kultura arlo guztietan.
- d) Berrikuntza sustatzea, gizarte, ekonomia, ingurumen, teknologia eta instituzio arloetako ezagutzan oinarrituta.

- e) Gizarte ongizateari, aurrerapen ekonomikoari eta inguruko gizartearen eta lurraldearen kohesioari laguntzea, eta bertako hizkuntza ofizialak sustatzea, prestakuntzaren, ikerketaren, transferentziaren eta ezagutza partekatzearen bitartez, baita ekintzailtza-kultura indibidualaren zein kolektiboaren bitartez ere, eta sozietate-formula konbentzionalak zein ekonomia soziala erabiliz.
- f) Pentsamendu kritikoa sortzeko eta zabaltzeko eremuak eratzea.
- g) Ezagutza eta kultura gizarte osoari transferitzea eta harekin partekatzea, unibertsitate jardueraren eta herritar guztien prestakuntza etengabearen bitartez” (Unibertsitate Sistemari buruzko Lege Organikoa, 2023, or. 15).

Gehien erabiltzen den terminoa, hau da, “Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna”, “Gizarte Erantzukizun Korporatiboa” terminoarekin lotuta dago. Azken hori 1950eko hamarkadan sortu zen AEBetan, enpresak gizarte ongizatearen eragile garrantzitsu gisa posizionatzeko¹² eta korporazioen irudi publikoa hobetzeko estrategia gisa.


Emaitza horietatik, zenbait galdera sortzen dira: Zergatik aldatu dira Unibertsitatearen hirugarren eginkizuna izendatzeko kontzeptuak? “Ezagutzaren transferentzia” bateragarria al da hezkuntza kritikoa eta emantzipatzailearekin? Enpresaren eremutik datozen kontzeptuak erabiltzeak –hala nola “Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna”– unibertsitatea enpresa-logikaren bitartez kudeatzeko joera erakusten al du?

Helburuak

Online galdetegiaren bitartez, unibertsitate hedakuntzaren helburuei buruz galdetu diogu unibertsitate komunitateari. Jasotako emaitzen arabera, pertsona gehienek uste dute ezagutza akademikoa gizartearen zabaltzea (% 62) eta unibertsitateko pertsonak prestatzen laguntzea (% 61) direla unibertsitatearen hirugarren eginkizun horren interes nagusiak. Neurri txikiago batean, enpresek unibertsitatean parte har dezaten sustatzea (% 47), enpresa arloko beharrak asetzen laguntzea (% 45) eta unibertsitatearen gizartearen beharrak (erronkak eta arazoak) asetzen laguntzea (% 42) ere hedakuntzaren beste helburu garrantzitsu batzuk dira.

12 Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kontzeptuak (GEK, ingelesez *Corporate Social Responsibility*) 1950ko hamarkadan sortu zen AEBetan. Howard R. Bowen kontzeptuaren sortzaileak GEKaren garrantzia azaldu zuen bere *Social Responsibilities of the Businessman* lanean. Horretan, bada, honako hau adierazi zuen: “enpresaria [...] AEBetako gizartearen eragile nagusia da, gure kulturaren ikurra. Hari dagozkio guztion ongizaterako garrantzi handiena duten erabakiak eta politikak [...]” (itzulpena gurea da). Hemendik hartua: <https://www.jstor.org/stable/j.ctt20q1w8f>

7. grafikoa. Unibertsitate hedakuntzaren helburuak, hezkuntza komunitatearen pertzepzioen arabera



Beste alde batetik, pertsona askok ez dute uste unibertsitate hedakuntzaren helburu izan behar direnik unibertsitateaz kanpoko pertsonak prestatzea eta irakasleek gizarte kolektiboetan, mugimenduetan edo prozesuetan parte har dezaten sustatzea (% 30 hurrenez hurren).

Halaber, pertsona asko partzialki ados daude beren unibertsitateko hedakuntza-jardueraren helburuak gizartearen beharrak (erronkak eta arazoak) betetzea (% 46) eta Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko lana indartzea (% 45) izan behar direla. Ehuneko handi hori nolabaiteko zalantzaren ondorioa izan daiteke; hain zuzen, item bakoitzean planteatutako gaiak, hau da, "erronka eta arazo sozialak" edo "gizarte" kontzeptua bera zeri dagozkion. Zer subjektuk ordezkari dezakete gizartea? Nork eta nola zehazten ditu gizartearen erronkak eta arazoak?

Elkarrizketa sakonetan, bi iritzi daudela ikusten dugu, oro har. Alde batetik, unibertsitate hedakuntza unibertsitatearen eginkizuntzat hartzen ez dutenak (gaur egun, behintzat), eta, hortaz, haren helburuak zehazten ez dituztenak. Eta, bestetik, Unibertsitatearen funtsezko eginkizun hura aintzat hartzen dutenak eta horren helburuak zeintzuk diren argi ikusten dutenak, baina erakundeak gaur egun horiek planteatzeko duen moduarekin ados ez daudenak.

Ez nago ziur unibertsitateak unibertsitate hedakuntza egiten ari ote diren. Ez behintzat nik kontzeptu hura irudikatzen dudana bezala. Egiten ari direna Unibertsitatean sortutako ezagutzaren dibulgazioa da. Unibertsitate hedakuntza tresna bat da Unibertsitateek beren bi zeregin nagusiak bete ditzaten, hau da, aukera berdintasuna bermatzea eta pentsamendu kritikoa sortzea. Nire ustez horiek dira Unibertsitatearen misio biak, edo, behintzat, helburu nagusiak izan beharko lirateke. Eta nik ez dut ikusten unibertsitate hedakuntza horietara bideratzen denik (3. elkarrizketa).

Hedakuntza terminoa onartzen ez duten horien artean, gehienek kontzeptu zaharkitua dela uste dute eta beste proposamen berriago batzuk erabiltzen dituzte (hala nola transferentzia edo Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna).

Agian, lehen unibertsitate hedakuntza egiten zen, ez dakit. Aspaldian entzun ez dudana kontzeptu bat da, baina suposatzen dut Unibertsitatearen eginkizunetan –irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia– sartzen ez zen horri dagokiola; hau da, unibertsitatearen jardueraren edo ekintzaren osagarritasuna lortzeko sartzen ziren jarduera horiei (4. elkarrizketa).

Beste batzuen ustez, unibertsitate hedakuntza unibertsitatearen eginkizun guztietan zeharkakotu da, eta, beraz, egitura guztien ardurua da. Ikuspegi horretatik, unibertsitate hedakuntza zabaldu egin da, ez, hortaz, ez dago hura modu espezifikoan landu beharrik.

Zaharra baino gehiago, unibertsitate hedakuntza hainbesteraino hazi da non hainbat errektoretzatan banatu baita. Beraz, niretzat, adibidez, gizarte ezagutzaren transferentzia, zientzia gizartearen zabaltzea, unibertsitate hedakuntzaren parte izan daitezke [...] Hortaz, ez da kontzeptua zaharkitu denik, baizik eta orain hainbat egituretan aurkitzen dela (15. elkarrizketa).

Elkarrizketatuen erdiek baino gehiagok onartzen dute unibertsitate hedakuntza eginkizun garrantzitsua dela, baina jatorrizko misio sozialetik urrundu dela uste dute. Ildo horretan, elkarrizketatuetako batzuen esanetan, Unibertsitatearen hirugarren eginkizun horren funtsezko elementu bilakatzen ari da enpresa arloaren beharrak asetzea.

Nire ustez, oro har, ezagutzaren transferentzia ikuspegi ekonomizista batetik egiteko joera dago. Hau da, enpresa-ehunarekin gero eta kontratu gehiago egiten saiatzen dira, baina hori ez da gure benetako helburua, unibertsitate gisa (13. elkarrizketa).

Guk seiurtekoak ditugu irakaskuntzan, ikerketan eta, berriki, transferentziaren arloan ere, baina inork ez daki zer den. Oro har, gure ikerketa-jardueran zehar metatzen ditugun ezagutzak enpresetara helaraztea da. Horixe da transferentzia (9. elkarrizketa).

“Unibertsitatearen hirugarren eginkizun” horren zehaztasun ezak hausnartzera gonbidatzen gaitu: Unibertsitate hedakuntza edukiz husteko prozesu baten aurrean gaude? Hustuketa horrek ba al dakar eginkizun horretan logika merkantilista nagusitzea?

Organismoak

Aztertutako unibertsitateen erdiek baino gehiagok (5/8) unibertsitate hedakuntzako organo bat dute, hau da, bere izenean termino hura jasotzen duena. Kasuetako batean errektoreordetza bat da, eta, hortaz, Unibertsitateko gobernu-organoen parte da. UGRri eta haren Unibertsitate Hedakuntzako, Ondareko eta Harreman Instituzionaletarako Errektoreordetzari buruz ari gara. Horretan, bada, hedakuntzako proposamenak bultzatzen eta kudeatzen dituzten hainbat erakunde aurkitzen dira.

6. taula. Unibertsitate hedakuntzako egiturak

Unibertsitatea	Unibertsitate hedakuntzako egitura espezifiko du	Organoaren izena
Granadako Unibertsitatea	Bai	Unibertsitate Hedakuntzako, Ondareko eta Harreman Instituzionaletarako Errektoreordetza
Malagako Unibertsitatea	Ez	
Universidad de Zaragoza	Ez	
Leongo Unibertsitatea	Bai	Erakundeekiko eta Gizartearekiko Harremanetarako Errektoreordetzaren Unibertsitate hedakuntzako atala.
Valladolideko unibertsitatea	Bai	Kulturako eta Kiroleko Errektoreordetzako unibertsitate hedakuntzako atala
Euskal Herriko Unibertsitatea	Ez	
Murtziako Unibertsitatea	Bai	Etengabeko Prestakuntzako Errektoreordetzaren unibertsitate hedakuntzari buruzko prestakuntzako egoitza iraunkorra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Bai	Unibertsitate Proiektzioko, Kulturako eta Dibulgazioko Errektoreordetzako Unibertsitate Hedakuntzako eta Gizarte Erantzukizuneko Atala

Bere aldetik, ULEk, UPNAk eta UVA-k hedakuntzako atal edo sail espezifikoak dituzte. ULEk irakasle eta ikertzaile batek lideratutako unibertsitate hedakuntzako atal bat du. Hark lau teknikarik osatutako lantalde baten laguntza du. UPNAren Unibertsitate Hedakuntzako Atalak pertsona bakar bat du, aldi berean Atalaren Buru dena (TEKAZEL). UVA-ren kasuan ez dugu Unibertsitate Hedakuntzako Atalaren osakerari buruzko informaziorik lortu.

UMk prestakuntzako hainbat egoitza iraunkor ditu. Plan Estrategikoan jasotzen den bezala, horiek autonomia erkidegoko zenbait herritan kokatutako zentroen sare bat osatzen dute, eta haren helburua lurraldeko hainbat tokitan etengabeko prestakuntza eskaintzea da.

Errektoreordetzen menpe dauden unibertsitate hedakuntzako atalek edo sailek jarduera-esparru mugatua dute, taldea osatzen duten lagunen kopuru txikiagatik (1-4 kide) eta baliabide nahikorik ez izateagatik. Zentzu horretan, esan dezakegu Errektoreordetzak bakarrik duela eragin esanguratsua lortzeko ahalmena.

Unibertsitate hedakuntzako organismoak lideratzen dituzten pertsonen profilen artean, irakasle eta ikertzailearena da nagusi. Irakasleek denbora mugatu baterako lideratu ohi dituzte organo horiek, izan ere, irakasleek dituzten karguetan txandakatze maila handia egoten da. TEKAZELen kasuan, txandakatze maila kargudun pertsonaren lan-egoeraren arabera da (plaza finkoa duen ala ez). Aztertutako zortzi unibertsitateetako batean bakarrik (UPNA), Unibertsitate Hedakuntza Atala lideratzeaz arduratzen den pertsona TEKAZEL kolektibokoa da. Kasu horretan, elkarrizketan jasotzen den bezala, pertsona horrek hamarkada bat baino gehiago darama karguan.

Elkarrizketa sakonetan bi iritzi ikusten dira unibertsitate hedakuntza unibertsitatearen oinarrizko eginkizuntzat hartzen duten horien artean. Alde batetik, hura errektoreordetzen ardura dela uste dutenak ditugu. Horien ustez, errektoreordetzen ardura da gizartearen zenbait sektoreekin artikulatzea (ikasleak, bazterketa arriskuan dauden pertsonak...) edo zenbait problematikari erantzutea (gizarte desparekotasunak...).

Nire ustez, hurbilago daude beste errektoreordetza batzuk, hala nola berdintasunekoak, ikasleen gaiei buruzkoa, edo beste batzuk. Horiek, agian, unibertsitate hedakuntzaren kontzeptutik hurbilago daude. (4. elkarrizketa).

Beste alde batetik, hedakuntzako politika lideratuko duen organo baten beharra dagoela uste dutenak daude. Aldi berean, horien ustez, hura zeharkako eginkizun bat bezala landu behar da, unibertsitateko hainbat egitura tartean sartuz.

Nire ustez, Unibertsitateak Berdintasunarekin gertatu zen hori ulertu behar du, hau da, hedakuntza zeharkakoa eta estrukturala izan behar dela. Unibertsitate osoak ulertu behar du [...] bere DNAren parte dela (11. elkarrizketa).

Zentzu horretan, honako galdera hauek egin behar ditugu: Interesgarria izan daiteke eragiteko ahalmena duen unibertsitate hedakuntzako proposamen bat garatzeko organo erreferenteak izatea? Zer posizio izan beharko lukete unibertsitatearen organigraman? Unibertsitate hedakuntzaren proposamena Unibertsitateko egitura eta organoetan zeharkakotu beharra dago? Nola burutu daiteke zeharkakotze hori?

Jarduerak

Webguneetan argitaratutako informazioa aztertu bitartez, unibertsitateek hedakuntzaren esparruan egiten dituzten jarduerak aztertu ditugu. Hala ere, aipatzekoa da unibertsitate guztiek ez dutela informazio hori, bakarrik % 75ek (6/8) (UMA, UGR, ULE, UPNA, UNIZAR eta UPV/EHU).


Unibertsitateek berek hedakuntzako eginkizunean kokatzen dituzten jarduera horiek kontuan hartu ditugu. Jardueren azterketa errazteko, horiek zazpi bloke handitan banatu dira:

1. Prestakuntza jarduerak. Bloke honetan ditugu, esate baterako, unibertsitateaz kanpoko pertsonen prestakuntza, zientzia dibulgazioko ikastaroak, unibertsitate komunitateari zuzendutako kultura, teknika eta arte arloko prestakuntzak, eta udako ikastaroak.
2. Artea eta kultura sustatzeko jarduerak; arte eszenikoak (antzerkia, dantza) sustatzeko jarduerak; zinemarekin lotutako jarduerak (proiektzioak, zineforumak, hitzaldiak); musikarekin lotutako jarduerak (orkestra, korua); eta irakurketa sustatzeko jarduerak (irakurketa klubak, liburuen aurkezpenak).
3. Zientzia dibulgazioko jarduerak, hala nola zentro espezializatuak sustatzearekin lotutako horiek (adibidez, UGRren Herbarioa) eta katedrek egindakoa.
4. Ondarea sustatzeko eta kontserbatzeko jarduerak. Bloke honetan aurkitzen ditugu Unibertsitatearen eta dagokion lurraldearen ondarea kudeatzearekin lotutako jarduerak; eta ondare materiala eta naturala kontserbatzeko eta erakusteko zentroak (adibidez, lorategi botanikoak).
5. Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko trukerako guneak. Unibertsitateko eta Gizarteko eragileen arteko topaketa sustatzera bideratutako ekimenak.
6. Kirol jarduerak. Adibidez, goi-mailako kirolariei laguntzea, eta kirol instalazioen eta klubaren kudeaketa.
7. Beste jarduera batzuk. Zazpigarren bloke honetan aurrekoetan sartzen ez diren ekintzak jasotzen dira, hala nola unibertsitate egoitzen kudeaketarekin lotutako horiek; ikasle ohiei zuzendutako programak; komunikazioa (irudi korporatiboa sustatzea, tipografia, komunikazio bulegoa); *merchandising*, babes eta mezenasgo jarduerak; eta beste sail batzuekiko kolaborazioak.

Bloke handi hauen azterketak argi erakusten du nagusi direla prestakuntzako eta artea eta kultura sustatzeko jarduerak. Jarraian, zientzia dibulgazioko beste ekimen batzuk aipatuko ditugu, eta, horien ondoren, ondarea sustatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, kirol jarduerak eta, azkenik, Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko trukerako ekimenak.

Prestakuntza jarduerak dira nagusi aztertutako unibertsitateetan, hala adierazten da, behintzat, beren webguneetan, unibertsitate hedakuntzako kompetentzien parte gisa.


8. grafikoa. Unibertsitateek garatutako unibertsitate hedakuntzako jarduerak, web informazioan oinarrituta (2023)



Bildutako informazioak erakusten du unibertsitate hedakuntza ez dela jarduerak mota bakarrera mugatzen. Prestakuntza jarduerak presentzia handiena dute unibertsitate gehienetan (7/8), eta horien atzetik arteari eta kulturari lotutako jarduerak aurkitzen ditugu (3/8). Bestalde, zientzia dibulgazioko jarduerak, kirol jarduerak edo Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko trukeari lotutakoak bi unibertsitatetan besterik ez dira aurkitzen (2/8). Azkenik, unibertsitate bakar batek egiten ditu ondarea sustatzeko eta kontserbatzeko jarduerak.

Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko trukeari lotutako jarduerak, bada, gizarteak unibertsitatean parte hartzeko eremuak dira. Horiek garatzen dituen unibertsitateetako baten hitzetan, truke ekimenek "erakundeak [Unibertsitatea] gizarteari dagokionez duen nortasunari buruz hausnartzea sustatzen dute" (UPV/EHU, d.g.).

9. grafikoa. Unibertsitate hedakuntzako jarduerak unibertsitateko



Unibertsitate hedakuntzako jarduerak aztertzen ditugunean, deigarria da unibertsitateek garatutako jarduerak kopuruaren arteko alde. Izan ere, UGRk eta UPV/EHUk askotariko jarduerak burutzen dituzte (5/7 eta 4/7 jarduerak, hurrenez hurren), eta beste unibertsitate batzuek (UMA, UNIZAR, ULE eta UVa) prestakuntza jarduerak besterik ez dituzte egiten. Ez da harrizkoa UGRk jarduerak gehien egitea, bertan errektoreordetza batek sustatzen baititu unibertsitate hedakuntzako ekimenak.

Bestalde, UMk eta UPNAk ez dute aniztasun handia, baina jarduerak bat baino gehiago egiten dituzte (3/7 bloke, hurrenez hurren).

Unibertsitate hedakuntzarekin lotzen diren jardueren aniztasuna ikusta, hura termino zabala dela ikusten dugu; eta, oro har, unibertsitateetako irakaskuntza eta ikerketa eginkizunetatik kanpo geratzen diren ekimen guztiak hartzen ditu.


Unibertsitate hedakuntzarekin lotzen diren jardueren aniztasuna ikusta, hura termino zabala dela ikusten dugu; eta, oro har, unibertsitateetako irakaskuntza eta ikerketa eginkizunetatik kanpo geratzen diren ekimen guztiak hartzen ditu

Kasu askotan, unibertsitate hedakuntzaren helburuen zehaztasun falta dela-eta, horretan jarduerak amalgama handia sartzen da; kulturaren sustapenarekin lotutako horietatik hasi eta *merchandising*, babes eta mezenasgo ekimenetaraino. "Irudi korporatiboa" hobetzera bideratutako ekintzei dagokienez, elkarrizketatu batek unibertsitatearen irudia zaintzearen garrantzia azpimarratu zuen, hori estrategikoa omen baita gizartearen oinarritzko ondasun gisa posizionatzeko.

Nire ustez, irudi korporatiboaren kontu hori unibertsitatearen proiektzioaren interpretazio oso sinplea da [...] Interpretatzeko moduaren arabera, zer esan nahi du desparekotasunak murrizteak eta jendearen parte-hartze soziala bultzatzeak? Seguruenik, Unibertsitateari prestigioa eman behar zaio, eta Unibertsitate publikoa zein garrantzitsua den ondo komunikatzen jakin behar da [...] adierazteko moduaren arabera, marketin tresna bat izan daiteke, baina, nire ustez, Unibertsitatearen irudia hobetzea Unibertsitateari prestigioa ematea da, eta haren eginkizuna zein garrantzitsua den aditzera ematea, desparekotasunak murrizteko, eta gizarte hobea, ikasiagoa, aurreratuagoa eta demokratikoagoa lortzeko. Beraz, ikuspegiaren arabera kontu bat da. Horrela ikusita, niretzat enpresa kutsua izan dezake, baina ez du zertan izan (14. elkarrizketa).

Kontsultatutako hezkuntza komunitatearen ustez, unibertsitate hedakuntzako jardueren artean zientzia dibulgaziokoak dira nagusi (% 23), eta, horien atzetik, ezagutzaren transferentziarekin lotutakoak (% 21). Hirugarrenik, distantzia batera, unibertsitatea eta enpresa sektorea lotzen duten horiek (% 16) eta enpresa edo ekonomia arloko beharrak asetzera bideratutakoak ditugu. Azpimarratzekoa da gizarte arloarekin lotutako jardueri buruz dagoen pertzepzio txikia, hala nola honako hauei buruz: gizartean sortutako ezagutza unibertsitateara hurbiltzeko ekimenak (% 9); unibertsitatea tokiko eta mundu-mailako arazoak konpontzearen zerbitzura jartzen dutenak (% 6); edo unibertsitateko eta gizarteko eragileak harremanetan jartzen dituztenak (% 5).

10. grafikoa. Unibertsitate hedakuntzan nagusi diren jardueren motak, unibertsitate komunitatearen pertzepzioaren arabera



Hezkuntza komunitateko kolektiboen informazioa aztertzean (7. taula), desberdintasun gutxi ikusten dira. Bai irakasleek eta ikertzaileek, bai ikasleek eta bai TEKAZELEk uste dute zientzia dibulgazioko eta transferentziako jarduerak direla nagusi. Aitzitik, gizarte erakundeetako ordezkariak beste pertzepzio bat dute; haien ustez, Unibertsitatea eta enpresa-sektorea harremanetan jarri nahi dituzten jarduerak eta ezagutzaren transferentziako jarduerak dira nagusi.

Irakasleen ustez, Unibertsitatea eta Gizartea harremanetan jartzen dituzten jarduerak dira presentzia gutxiena dutenak, hala nola unibertsitateko eta gizarteko eragileen arteko elkarlana sustatzen duten jarduerak (% 4); Unibertsitateko ezagutzak eta baliabideak tokiko eta mundu-mailako arazoak konpontzearen zerbitzura jartzen dituzten jarduerak (% 4); eta, azkenik, unibertsitateko eta gizarteko eragileak elkarrizketa horizontalean jartzen dituzten jarduerak (% 4). Azken horiek ezohikoenak dira, TEKAZELen, ikasleen eta gizarte erakundearen arabera.

Ikasleen eta gizarte erakundeen ustez, unibertsitateko eta gizarteko eragileen arteko elkarrizketa sustatzen duten jarduerak, eta enpresa eta ekonomia arloko beharrak asetzera bideratutako horiek (% 7 eta % 9, hurrenez hurren) ez dira ohikoak Unibertsitatearen hedakuntzako eginkizunean

Deigarria da gizarte erakunde batek ere ez duela uste Unibertsitateak tokiko eta mundu-mailako problematikak konpontzeko jarduerak garatzen dituenik (% 0).

7. taula. Unibertsitate hedakuntzan nagusi diren jarduera-motak, profilararen arabera

Unibertsitate hedakuntzan nagusi diren jarduera motak, hezkuntza komunitatearen ustez	IIPak	Ikasleak	TEKAZELak	Gizarte erakundeak
Ezagutzaren transferentziako jarduerak	% 22	% 25	% 18	% 20
Zientzia dibulgazioko jarduerak	% 25	% 23	% 23	% 17
Gizartean sortutako ezagutza Unibertsitatera hurbiltzeko jarduerak	% 5	% 7	% 13	% 15
Unibertsitateko eta gizarteko eragileen arteko elkarlana sustatzen duten jarduerak	% 4	% 9	% 7	% 17
Enpresa eta ekonomia arloko beharrak asetzera bideratutako jarduerak	% 17	% 7	% 12	% 9
Unibertsitateko eta gizarteko eragileak elkarrizketa horizontalean jartzen dituzten jarduerak	% 4	% 7	% 4	% 9
Unibertsitatea eta enpresa sektorea harremanetan jartzeko jarduerak	% 19	% 12	% 14	% 20
Unibertsitateko ezagutzak eta baliabideak tokiko eta mundu-mailako arazoak konpontzearen zerbitzura jartzen dituzten jarduerak	% 4	% 8	% 9	% 0

Emaitzak unibertsitateko aztertzen baditugu (8. Taula), emaitza orokorrekin konparatuta ere ez da alde handirik ikusten. Unibertsitate desberdinetan kontsultatutako pertsonen ustez, hedakuntzako jarduera gehienak zientzia dibulgazioaren arloan (UGR, UMA, ULE, UNIZAR, UPNA) eta ezagutzaren transferentzian (UM, UVa, UPV/EHU) kokatzen dira:

Aipatzekoa da UPV/EHU eta UGR unibertsitateetan bigarren jarduera-bloke nagusia enpresa eta ekonomia arloko beharrak asetzera bideratutako jarduerari dagokiela (% 22 eta % 17, hurrenez hurren). Ildo horretan, UMan, bigarren jarduera-mota nagusia Unibertsitatea eta enpresa sektorea harremanetan jartzera bideratzen den hori da (% 19).

Bere aldetik, gizartean sortutako ezagutza Unibertsitatera hurbiltzeko jarduerak bigarren postuan kokatzen dituen unibertsitate bakarra UM da (% 19). Puntu honetan, gogorarazi nahi dugu unibertsitate hedakuntzako jarduerekin loturarik ez duten pertsonen ehunekorik handiena UMko unibertsitate komunitateko lagunei dagokiela (galdetegia bete duten horiei, alegia).

Hala, pisu txikiena duten jardueri dagokienez, unibertsitate komunitateak bat datoz unibertsitateko eta gizarteko eragileak elkarrizketa horizontalean jartzen dituzten jarduerak direla, oro har, presentzia txikiena dutenak. Horien atzetik, Unibertsitateko ezagutzak eta baliabideak tokiko eta mundu-mailako arazoak konpontzearen zerbitzura jartzen dituzten jarduerak aurkitzen ditugu.

8. taula. Unibertsitate hedakuntzan nagusi diren jarduera-motak, hezkuntza komunitatearen pertzepzioaren arabera

	UGR	UMA	UNIZAR	ULE	UVa	UPV/EHU	UM	UPNA
Ezagutzaren transferentziako jarduerak	% 13	% 17	% 26	% 18	% 23	% 26	% 29	% 25
Zientzia dibulgazioko jarduerak	% 28	% 22	% 28	% 28	% 15	% 17	% 13	% 27
Gizartean sortutako ezagutza Unibertsitateara hurbiltzeko aukera ematen duten jarduerak	% 13	% 7	% 6	% 15	% 5	% 7	% 19	% 4
Unibertsitateko eta gizarteko eragileen arteko elkarlana sustatzen duten jarduerak	% 9	% 7	% 6	% 8	% 13	% 4	% 16	% 6
Enpresa eta ekonomia arloko beharrak asetzea bideratutako jarduerak	% 17	% 14	% 6	% 5	% 10	% 22	% 3	% 10
Unibertsitateko eta gizarteko eragileak elkarrizketa horizontalean jartzen dituzten jarduerak	% 2	% 7	% 0	% 8	% 13	% 4	% 6	% 4
Unibertsitatea eta enpresa sektorea harremanetan jartzeko jarduerak	% 11	% 19	% 19	% 15	% 13	% 15	% 10	% 19
Unibertsitateko ezagutzak eta baliabideak tokiko eta mundu-mailako arazoak konpontzearen zerbitzura jartzen dituzten jarduerak	% 7	% 7	% 9	% 5	% 8	% 4	% 3	% 4

Elkarrizketatuen artean, unibertsitate hedakuntzako jarduerak, oro har, eta batez ere esperientzia arrakastatsuak identifikatzeko nolabaiteko zailtasuna ikusten dugu. Hala ere, batzuen ustez, landa eremuetan prestakuntza jarduerak egiten dituzte esperientziak interesgarriak dira, batez ere landa eremuetan biztanleriaren ehuneko handiak dituzten autonomia erkidegoetan.

Esan dezakegu, prestakuntza-eskaintza hori unibertsitate publikorik gabeko gunetara eraman ahal izatea dela [gure unibertsitatearen kasuan] unibertsitate hedakuntzaren gakoetako bat (5. elkarrizketa).

Arrakastatsutat hartzen diren beste esperientzia batzuk esperientziaren ikasgelak dira¹³.

Ba bai, orain etorri zait burura esperientziaren ikasgela. Horrek ere balio du, ezta? [...] hor bai ikusten dut Unibertsitatearen arrakasta bat, hau da, gune bat sortzea bere garaian Unibertsitateara joan ezin izan ziren pertsonentzat; edo joan zirenentzat ere, hori oso talde heterogeneoa baita hezkuntza, kultura eta lanbide mailari dagokionez. Etxekoandre bat zein abokatu erretiratu bat aurki ditzakezu (8. elkarrizketa).

Interesgarria izan daiteke Unibertsitate-Gizarte artikulazioko esperientzia arrakastatsuek aztertzea eta ezagutzera ematea horrelako hedakuntza jarduera gehiago inspiratzeko? Unibertsitatean mobilizazioko eta eragin politikoko prozesu gehiago zabaltzea lagungarria izan daiteke unibertsitate hedakuntzako jarduerak gizarte eraldaketako helburuetara bideratzeko?

Subjektuak

Unibertsitate hedakuntzaren eragile estrategikoei dagokienez, estatutuek, oro har, gizartea aipatzen dute. Zenbait estatutuk (6/8), aldiz, beren hezkuntza komunitatea bera ere aipatzen dute, batez ere ikasleak eta, neurri txikiago batean, irakasle eta ikertzaileak. TEKAZELak, ordea, ez ohi dira aipatzen hedakuntzako estrategian.

Unibertsitate guztiek identifikatzen dituzte ingurunearekin artikulatzeko eragile giltzarriak. Plan estrategikoen kasuan, unibertsitate hedakuntza esplizituki aipatzen dituzten ardatzez gain, gizartearekiko harremana (adibidez, "Gizartearekiko harremana" edo "Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna") aipatzen duten horiek ere kontuan hartu ditugu¹⁴.

Plan estrategikoetako askok gizartera oro har bideratzen dute hedakuntzaren arloko eginkizuna. Hala ere, zenbait kasutan, "gizarte" termino zabal horretan funtsezko eragileak nor diren zehazten dute. Planetako bitan (UMA, UVa), tokiko, probintziako eta autonomia erkidegoko gobernu organoak aipatzen dira zehazki (udalak, diputazioak eta gobernu autonomikoak). Neurri txikiago batean, zenbait planek beste eragile garrantzitsu batzuk aipatzen dituzte, hala nola kultura inguruneko erakundeak (2/7), fundazioak (2/7), elkarteak (1/7), gizarte kolektiboak (1/7), GKEak (1/7) eta unibertsitate publikoak (1/7).

Plan askok enpresa sektorearekiko kolaborazioa sustatzen dute (5/7) unibertsitate hedakuntzako strategiaren barruan. Hala, aipatu beharra dago plan batek ere ez dituela aipatzen ekonomia sozial eta solidarioaren (ESS) arloko enpresak. Unibertsitate Sistemari buruzko Lege Organiko berriak, aldiz, bai aipatzen du kontu hori, izan ere, "gizarte ongizateri, aurrerapen ekonomikoari eta gizartearen eta lurraldearen kohesioari" lagundu nahi dio, "sozietate formula konbentzionalen zein ekonomia sozialaren bitartez" (Unibertsitate Sistemari buruzko Lege Organikoa, 2023).

Elkarrizketatutako zenbait pertsonen esanetan, enpresak eragile garrantzitsuak dira Unibertsitateak Gizartearekin ezartzen duen harremanean. Badirudi interes sozialen ordezkari gisa jokatu ohi dutela, eta unibertsitateko jardueran eragiten dutela, batez ere ikerketarekin lotutako horretan. Gizarte ikerketa-jardueretan inplikatzeari dagokionez, balio gutxi ematen diote herritarrek horretan izan dezaketen eginkizunari, eta mesfidantzaz ere ikusten dute.

13 Oro har, "esperientziaren ikasgelak" alde aurreko prestakuntza eskatzen ez duten prestakuntza-programak dira, lan ordaindurik egiten ez duten 55 urtetik gorako pertsonen zuzenduta daudenak.

14 Ez dira Plan Estrategikoak zehatz-mehatz aztertu, bakarrik hartu dira kontuan beren izenburuan gizartearekiko harremana esplizituki aipatzen duten horiek.

Ikerketa kontuei buruz ari garenean, guk [Hezkuntza] Ministerioaren ildo estrategikoekin eta enpresen eskakizunekin bat egiten dugu [...] Baina nik ez dut ondo ikusten herritarrek markatzea zein ikerketa-ildotan jardun behar den [...] nire ustez, gizarteari informazioa falta zaio (15. elkarrizketa).

Ikerketan, orain, harreman handia dago teknologia arloko enpresekin, osasunaren eta medikamentuen arloko enpresekin, horrelakoekin. Hedakuntzan, enpresekin dugun harremanaz edo lankidetzaz ari naizenean, kultura sektoreko enpresei buruz ari naiz, hau da, ondarea interpretatzen duten enpresei buruz, horrelako enpresei buruz (11. elkarrizketa).

Unibertsitateak zer nolako enpresekin duen harremana galdetzean, elkarrizketatu guztiek diote ez direla ekonomia sozial eta solidarioko enpresak lehenesten, hori ez baita lankidetzarako irizpide bat. Gainera, enpresekin aliantzak ehuntzeari dagokionez, ez dira ESSko enpresekiko harremana sustatzen duten irizpideak aintzat hartzen.

[Enpresak] Ekonomia sozialekoak izatea ez da irizpide bat, ez da lehentasun irizpide bat. Jakina, proposamenak interesgarriak badira, lehentasuna izango dute [...] Enpresa batekin lan egiteko bere ingurumen-inpaktua aztertu beharko banu, urtebete emango nuke enpresa bakoitzarekin [...] unibertsitatearekin lan egitera datorren erakunde bakoitzari auditoretza bat egin beharko banio, daukadan saila baino hamar edo hamabost aldiz handiagoa beharko nuke. Noski, unibertsitatearen hitzarmen guztiek, hitzaurrean, lankidetzarako zenbait baldintza jasotzen dituzte (4. elkarrizketa).

Aztertutako unibertsitateek ez dute eragile eta enpresa batzuekiko edo besteekiko kolaborazioak aukeratzeko neurri edo irizpide espezifikorik. Hori kontuan hartuta, aztertu egin dugu ea enpresa jakin batzuekin lan egiteak Unibertsitateen konpromisoak hausten dituen, besteak beste, berdintasun, iraunkortasun edo lankidetzaren arloetan. Adibidez, Repsol petrolio-enpresak Espainiako enpresarik kutsatzaileena da, *Descarbonización 2024* txostenaren arabera¹⁵, eta unibertsitatean dago¹⁶. Beraz, unibertsitateak horrelako enpresekiko akordioak izateak zer dakarren aztertu dugu.

Gatazkak, erronkaren arabera. Hau da, kontua horiek konpontzea da, ezta? Beraz, agertzen diren erronkak enpresarenak dira, baita gureak ere. Hau da, beti lortzen da adostasun bat [...] Nire ustez, enpresek, dirua jartzen dutenean, greenwashinga baino gehiago, kasu honetan, talentua bereganatu nahi dute. Ikasleek enpresaren interesak eta erronkak zeintzuk diren ikus dezaten nahi dute enpresa gehienek, eta [enpresak] ikasle horiek fidelizatu ahal izatea, ikasketak amaitu baino lehen, amaitzen dutenean enpresan lan egin dezaten (13. elkarrizketa).

Pertsona berak, enpresek Unibertsitatean duten pisua aitortzeaz gain, beste eragile batzuk ere sartzen ari direla ohartarazten du.

Talde osoak onartu du gure lehentasuna orain ez direla enpresak, baizik eta GKEak, erakunde publikoak eta zenbait gizarte mugimendu. Beraz, ildo horretako ekimenak sortzen hasi gara [...] ez dugu enpresekin harremana galdu nahi, ezagutza transferitu behar baitiegu enpresei, gizarte egituraren parte diren heinean; baina beste eremu batzuetara bideratzen saiatzen ari gara, hain zuzen, harreman hain ekonomikoa ez duten eremuetara, ezagutza

15 Iraunkortasunaren Behatokiak urtero egindako txostena.

<https://www.observatoriosostenibilidad.org/informes/descarbonizacion-2024/>


16 Repsol Fundazioa Gela (UPV/EHU) (2024ko ekainaren 12an kontsultatuta).

https://www.ehu.eus/eu/web/bilboko-ingeniaritza-eskola/enpresarekiko-harremanak/enpresen_gelak/repsol_fundazioa_gela

partekatze eta arazo eta erronka sozialagoak konpontzeko inplikazioa handiagoa duten horietara. Hala ere, nire ustez, enpresen ibilbidea ere soziala da baina tira [...] hezkuntza komunitatearen barruan gizarte problematikekin konprometitzeko presio bat igartzen da (13. elkarrizketa).

Hezkuntza komunitatearen pertzepzioaren arabera, irakasle eta ikertzaileak dira, dudarik gabe, unibertsitate hedakuntzako ekimenen garapen fase gehienetan aktiboak dagoen kolektiboa (% 79). Neurri txikiago batean, GGKEek, irabazi asmodun enpresek eta gizarte kolektiboak eta mugimenduak ere parte hartzen dute, ordena horretan.

11. grafikoa. Unibertsitate hedakuntzako ekimenetan parte hartzen duten eragileak eta parte hartzeko moduak, unibertsitate komunitatearen pertzepzioaren arabera



Hartzaile gisa parte hartzen duten subjektuei dagokienez, zalantzarik gabe, ikasleak dira kolektiborik ugariena (% 84), eta haren atzetik biztanleria orokorra (% 51). Neurri txikiago batean gizarte kolektiboak eta mugimenduak, ESSko enpresak, TEKAZELak eta GGKEak aurkitzen ditugu, ordena horretan.

Elkarrizketatu batzuek adierazi dutenez, irakasleen parte-hartzea pasiboa da hedakuntzako kultura jardueretan. Ohiko praktika bat da, kultura kontsumo gisa ulertzen duena. Haien ustez, parte hartzeko dinamika horiei aurre egiteko kudeaketa-eredu kolaboratiboak garatu behar dira.

Ikasleen parte-hartzea oso pasiboa da, hau da, ekitaldi, erakusketa, kontzertu, hitzaldi edo antzerki batera doaz, publiko bezala... Niretzat, hori ez da kulturaren parte hartzea, hori kultura kontsumitzea da. Eta ezin diogu kultura eskaera hori betetzeari utzi, hor ere eginkizun sozial bat betetzen baitugu Unibertsitate gisa. Alde batetik, kultura babestea, kultur eragileei laguntzea, bada, kultur proposamenak aurkezteko eta publiko horri helarazi ahal izateko. Baina niretzat hori kulturaren kontsumoan oinarritutako programazio kulturalerako eredu bat da, kulturaren industriari dagokiona. Hala ere, askotariko formatu eta programatan oinarritutako beste eredu batzuk ere egin daitezke, hala nola baterako programazioan oinarritutako deialdiak, aliantzak, eremuak. Horietan, ikuspegi konplexuago batetik lan egiten has gaitzake, ez dakit, norekin eta nola egiten dugun egiten dugun hori [...] Ikasleak berak ardura daitezzen haiek sortutako, garatutako edo proposatutako programazioaren kulturgune bat aktibatzeaz (12. elkarrizketa).

Elkarrizketatuetako batzuek ikasleen pasibotasunaren pertzepzio hori gizarte partaidetzaren beheranzko joera orokor batekin lotzen dute, eta Unibertsitatea eremu iragankor bat delako ideiarekin ere, non lan-merkatu sartzeko beharrezkoa den titulazioa lortzea den helburua nagusia.

Hau da, nire ustez, ikasle gehienek eremu iragankor gisa ikusten gaituzte, eta hemen izaten duten inplikazioa, batzuetan ez du zerikusirik gurekin, hau da, unibertsitateko egiturarekin berarekin [...] Pertsona horietako asko ez dira inplikatzeko Unibertsitateaz kanpoko gizarte mugimenduetan ere. Beraz, zoritxarrez, gustuko ez dudana joera bat da, parte-hartze gero eta txikiago baterako joera, alegia [...] Partaidetzaren interesa errentagarritasun akademikoaren arabera neurtzen da [...] hau da, honek graduatzeko edo nota hobearrekin graduatzeko balio dit ala ez? Horrek nire curriculumean eragiten du, nire portfolioan, ala ez? (13. elkarrizketa).

Biztanleria orokorrak ez omen du unibertsitate hedakuntzako jardueretan parte hartzen (% 35), ezta –haien hitzetan– TEKAZELEk ere (% 24). Azken kolektibo horri dagokionez, kide gehienek onartzen dute ez dakitela hedakuntzako jardueretan parte hartzen duten ala ez, ezta nola egiten duten ere. Eta irabazi asmodun enpresen kasuan ere, pertsona askok ez dakite parte hartzen duten ala ez.

Kontuan hartuta unibertsitate hedakuntzan ezagutzaren transferentziako eta zientzia dibulgazioko jarduerak direla nagusi, ez da arraroa irakasle eta ikertzaileak izatea eragilerik aktiboena, haiek baitira –TEKAZELEkin batera– hedakuntzako jarduerak egiteko finantziarioa eta baliabideak eska ditzaketenak.

[Gure] Unibertsitateko jendea izan behar da. Noizbait beste kolektibo batzuetatik edo Unibertsitateaz kanpoko pertsonengandik ere heldu zaizkigu ikastaro proposamenak. Interesgarriak izan daitezkeela uste badugu, bai gure ikasleentzat bai irakasleentzat, edota gizartera zabaltzeko, harreman bat ezartzen saiatzen gara. Hala, gu, kasu horretan ni zuzenean Unibertsitateaz kanpoko pertsona horiekin harremanetan jartzen saiatzen naiz (10. elkarrizketa).

Izan ere, elkarrizketatuetako batzuek adierazten duten bezala, gizarte erakundeek Unibertsitateari lotutako hedakuntza ekimenak garatzeko zailtasunak aurkitzen dituzte, edo horiek burutzeko aurrekontuak lortzeko zailtasunak ere. Izan ere, aipatu egiten dutenez, kanpoko eragileek antolatutako jarduerak egiteko, gunea ordaindu beharra dago, baita unibertsitateko irakasleen babesa dutenean eta irabazi asmorik ez dutenean ere. Ildo horretan, elkarrizketatuetako batzuek zerbitzuak monetizatzeke joera bat dagoela ikusten dute, baita lehen interes sozialeko kasuetan kosturik gabe ematen ziren horiek ere.

Esate baterako, unibertsitateko guneak (ikasgelak, aretoak...) hiriko elkarteei zabaltzea [...] bertan elkartzeko edo lan egiteko aukera izan dezaten, eta esploratzea zer arazo landu elkarrekin, zer aditu dauden Unibertsitatean haiekin lan egiteko, eta abar. Hau da, atearak

apur bat zabaltzea, eremu fisiko eta zehatzekin; izan ere, oro har, "bai zera" esan ohi digute [...] bazegoen aspalditik lantzen ari ginen programa bat, GKEekin batera [...] eta GKEen Koordinakundeak Espainia osotik zebilen erakusketa bat proposatu zigun. Egia esan, orain ez dut gogoratzen Garapen Iraunkorreko Helburuei edo Bidezko Merkataritzari buruzkoa zen [...] iaz proposatu zutenean, zuzenean jakinarazi zioten Unibertsitatea alokatzearen kostua [...] Beraz, nola aldatu da hainbeste egoera? "Unibertsitatea zabalduko dugu, elkarrizketa eremu izateko, gizartera irekitako parte hartzeko eremu izateko" esatetik "GKE batek, etorri nahi badu, ordaindu behar du" esatera (1. elkarrizketa).

Zaila egiten da arautik kanpo dagoen zerbait proposatzea eta aurrera eramatea... Gizartearekiko loturari dagokionez, landa eremuekin are gutxiago (2. elkarrizketa).

Online galdetegiak zerrendan aipatzen ez ziren "beste" eragileak identifikatzeko aukera eman zuen. Horri buruz, askotariko erantzunak jaso genituen, baina ez zer horien artean inolako kointzidentziarik egon, eta, hortaz, ezin dugu ondorio sendorik artera horretan.

Zenbait elkarrizketatuk –horietako batzuk hedakuntzan ibilbide luzea dutenak– onartu egiten dute interes gutxi dagoela eta ahalegin gutxi egiten dela hedakuntzako jardueren hartzaila pentsatzeko.


Krisi handia ikusten dut gure arloan, aspalditik jasaten dugu; hain zuzen ere, ez dakigula nori zuzentzen ari garen [...] Xede dugun publikoa edo gizarte-maila azertu gabe egiten da dagoen programazioa. Horretan, kontzientzia falta zaigu; egiten duguna zergatik egiten dugun, zertarako egiten dugun, eta, batez ere, norekin egin nahi dugun (12. elkarrizketa).

Zer subjektu lehenetsi behar ditu unibertsitate hedakuntzak? Zergatik? Enpresak –eta izatekotan, zer nolakoak– unibertsitate publikoetako unibertsitate hedakuntzako estrategiaren eragile izan behar dira? Unibertsitateak mota guztietako enpresekin ezarri behar ditu harremanak? Ekonomia Sozial eta Solidarioko enpresak lehenetsi behar ditu? Nola?

Inpaktuak

Unibertsitate hedakuntzak duena eraginari dagokienez, kontsultatutako pertsona gehienek uste dute zenbait alderdi zehatz eta puntual aldatzen laguntzen duela unibertsitate hedakuntzako jardueretan parte hartzen duten subjektuengan (% 59), Unibertsitatean (% 50) eta gizartean (% 40). Baina beste askok ere uste dute ez duela eragin nabarmenik gizartean (% 31).

12. grafikoa. Unibertsitate hedakuntzaren eragina Unibertsitatean, gizartean, eta parte hartzen duten subjektuengan



Unibertsitate hedakuntzak bertan parte hartzen duten subjektuengan duen inpaktuari dagokionez, pertsona gehienek uste dute alderdi jakin batzuetan besterik ez duela aldaketarik sustatzen (% 59), % 20k uste du eraldatzailea dela, sistema hegemonikoaren aurrean alternatibak proposatzen dituelako.

Hedakuntzak Unibertsitatean duen eragina baloratzean, gehienek uste dute aldaketak eragiten dituela zenbait alderditan (% 50), baina inkestatutakoen bosten baten ustez (% 20), haren eraginak sistema hegemonikoa erreproduzitzen du¹⁷.

Halaber, Unibertsitateak gizartean duen eraginari buruz ere galdetu genien. Zehazki, galdetu genien ea erakundeak rol neutrala duen gizartean, ala, alderantziz, sistema hegemonikoa erreproduzitzen edo eraldatzen laguntzen duen. Gehienek (% 63) uste dute sistema hegemonikoa erreproduzitzen laguntzen duela, eta heren batek baino gehiagok uste du unibertsitateak gizarte eraldaketako prozesuetan laguntzen duela (% 38). Neurri txikiago batean, beste batzuek uste dute unibertsitateak rol neutrala duela (% 31). Hala ere, pertsona gehienek ez dute uste Unibertsitateak rol neutrala duenik gizartean (% 65).


9. taula. Unibertsitatearen rolari buruzko pertzepzioa

Unibertsitatearen rola	Bai	Ez	Ez dakit
Rol neutrala du gizartean	% 31	% 65	% 5
Sistema hegemonikoa erreproduzitzen laguntzen du	% 63	% 21	% 16
Gizarte eraldaketa prozesuetan parte hartzen du	% 38	% 47	% 15

17 Hedakuntzako jardueren eraginari buruzko galderan, "sistema hegemonikoa" kontzeptua azaltzeko ohar bat gehitu genuen, hau da, hura sistema kapitalista, heteropatriarkal, kolonial eta estraktibistari dagokiola azaltzen duena.

Inpaktua aztertzeaz gain, hezkuntza komunitateak unibertsitatearen eginkizunen garrantziari buruz duen pertzepzioa ere ikertu dugu. Emaitzen arabera, ikerketa da eginkizunik baloratuena (% 62), eta, haren atzetik, irakaskuntza (% 52). Unibertsitate hedakuntza da, zalantzarik gabe, gutxien baloratzen dena (% 51k garrantzi gutxi ematen diote eta % 36k batere garrantzirik ez).

13. grafikoa. Unibertsitatearen eginkizunen garrantzia



Unibertsitatearen eginkizunen garrantziaren harira, horien arteko artikulazioei buruz galdetu genien. Hala, 1etik 5erako eskala batean, 1 "erabat ados" eta 5 "erabat desados" direlarik, pertsona gehienek jarrera neutrala erakutsi zuten (% 39 3an), baina eginkizunen artean berrelkadurarik ez dagoela pentsatzeko joera dago (% 34 "neurri batean desados" eta % 11 "erabat desados").


Nola lagun dezakegu unibertsitate hedakuntzaren eragina hobetzen? Zure ustez, irakaskuntzaren, ikerketaren eta hedakuntzaren arteko artikulazio sendo batek gizarte eraldaketan lagunduko luke?

Frenatzen duten elementuak

Lehen aipatutako emaitzez gain, galdetegiaren, elkarrizketa sakonen eta kontrastatzeko online saioaren bitartez, erresistentzia sortzen dituzten hainbat elementu identifikatu genituen; hain zuzen ere, lurraldearekin eta interes sozialeko prozesuak bultzatzen dituzten subjektuekin konprometitutako unibertsitate hedakuntza sustatzeari dagokionez.

Hezkuntza komunitatearen pertzepzioari erreparatzen badiogu, gehienek uste dute erresistentzia nagusiak, oro har, unibertsitate bertatik datozela (% 34), baita kanpoko eragile ekonomikoetatik ere (% 29). Neurri txikiago batean, irakasle eta ikertzaileak eta beren interesak aipatzen dira freno gisa (% 17).

14. grafikoa. Freno gisa joka dezaketen eragileak



Kontsultatutako pertsonen hedakuntza jardueren freno gisa joka dezaketen elementu horiei buruz sakontzeko aukera izan zuten. Hurrengo taulan gehien aipatutako kontuen zerrenda aurkituko duzue.

10. taula. Freno gisa jotzen duten elementuak, prebalentziaren arabera ordenatuta

Unibertsitateari dagozkion elementuak
<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitateen hezkuntza-politika neoliberala, enpresen beharrak asetzera bideratzen dena. • Akademiaren funtzionamenduaren inertiak • Gehiegizko burokrasia • Unibertsitate sistemaren zurruntasuna • Unibertsitate publikoaren finantziario eskasa • Autonomiarik eza • Aintzatespen akademikorik eza • Unibertsitatearen eginkizun utilitarioa • Unibertsitatearen eta ingurunearen arteko konexiorik eza • Unibertsitate hedakuntzako estrategiarik eza
Subjektuak
<ul style="list-style-type: none"> • Irakasle eta ikertzaileen eta TEKAZELen konpromisorik eza • Ikasleen konpromisorik eza
Kanpoko elementuak
<ul style="list-style-type: none"> • Kanpoko eragile ekonomikoak eta sistema merkantilista • Tokiko eta autonomia-erkidegoetako gobernuek sustatutako politikak • Gobernu zentralaren politikak • Unibertsitatearen zeregina orientatzen duen politika globalik eza

Elkarrizketa sakonei esker, unibertsitate komunitateak galdetegietan adierazitako elementu horiek aztertzeko aukera izan genuen. Jarraian, elkarrizketetan identifikatutako erresistentziak eta oztopoak jorratuko ditugu orokorragoak diren horietatik zehatzenak diren horietara.

Politikaren baldintzapena

Balazta gisa jarduten duten elementuen artean, hainbat pertsonak politika aipatu dute bat –bai tokiko gobernuena eta bai Unibertsitatea bera gidatzen duen hori–; izan ere, politikak subjektuen jarduteko marjina baldintzatzen du, unibertsitate hedakuntzako jarduerak sustatzeari dagokionez. Lehentasun aldaketak, babes politikorik eza, karguak dituzten pertsonak aldatzea, eta abar... Unibertsitate hedakuntzako ekimenak burutzeko edo mantentzeko agertzen diren zailtasunetako batzuk dira horiek.

Egiten dugun edozein ekintzak, deialdi soil batetik hasi eta edozein hitzarmenetaraino, hainbat erabaki-mailatik igaro behar du. Han ditugu Errektoreordetza, Gobernu Kontseilua eta Campuseko Batzordeak. Beraz, edozein mailatan egon daiteke bizkortzen duen jendea edo oztopatzen duen jendea, erabaki horiek onartuak izan behar baitira nolabait (13. elkarrizketa).

Oraintxe, Latinoamerikan proiektu bat abian jarri nahi baduzu [...] ez du interesik [...] Helburua Europa eta beste mota bateko proiektuak dira [...] politika baten alde egiten duzunean beste batzuk baztertzen ari zara [...] Nork erabakitzen du hori? Bada, Errektoretzak, alderdi politiko batek legegintzaldi bati ekiten dion bezalaxe (8. elkarrizketa).

Hainbat elkarrizketatuk erresistentzia handitzat hartzen dute neofaxismoaren gorakada, batez ere muturreko eskuinak tokiko edo eskualdeko gobernuan ordezkaritza duen lurraldeetan. Kasu horietan, atzerakada handia atzematen da adostasun sozial eta politiko handia duten gai horietan (esate baterako, klima-aldaketa edo indarkeria matxista), eta oinarrizko kontuetatik desbideratzen da gaia. Puntu horretan, Unibertsitateak diskurtso negazionista eta atzerakoien freno gisa jokatu du batzuetan, eta horiek finka daitezten eta agenda marka dezaten eragotzi du. Baina, beste momentu batzuetan, narratiba horien aurrean makurtu behar izan da.

Gure presidenteordeak klima-aldaketa ukatzen du, genero-indarkeriako arazoak ukatzen ditu. Jakina, puntu horretan Unibertsitateak pentsamendu kritikoa du, berresten baitu klima-aldaketa dagoela, genero-indarkeria dagoela. Baina hori azala besterik ez da, ez dakit ulertzen den. Kritikoak gara ez dugulako presidenteordearen diskurtsoa onartzen; hori, berez, jarrera kritikoa da diskurtso ofizialaren aurrean. Baina kontuz egin behar dugu, arazo politikoak izan direlako eta atzera egin behar izan dugulako ere (1. elkarrizketa).

Ibilbide sendoagoa duten unibertsitateek uste dute autonomia handiagoa dutela eta, beraz, tokiko gobernuak eta haien erabaki politikoei gutxiago baldintzatzen dituztela.

Hori da tokiko edo probintziako gobernuetatik egin dezaketen guztia, hau da, kudeaketako kontuetan eta aurrekontuei dagozkien kontu puntualetan [eragitea] (11. elkarrizketa).

Elkarrizketatuetako batzuen esanetan, unibertsitate hedakuntzari lotutako jarduera asko hutsalak dira, ez dira oso problematizatzaileak eta ez dute funts handirik.

Erantzukizuna [Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna], nire ustez, eskaparate bat da gizartearekin eta mundu guztiarekin ondo geratzeko [...] ez dago benetako politikarik edo helburu zehatzak lortu nahi dituen estrategiarik... Ondo geratzeko da, besterik ez (1. elkarrizketa).

Hedakuntzak beti ditu bi alderdi. Alderdi bat [honako hauekin lotuta:] testuingurua, lurraldea, gizarte. Eta beste alderdi bat unibertsitate prestakuntza osagarria da, kultura ikastaroak, kiroleko prestakuntza eta ikasleentzako gizarte ekintza... Prestakuntza horiek; "munduko herritar" itxura horrekin, unibertsitateek ingeniari bati zein gizarte langile

bati zein historialari bati eskaintzen dioten "prestakuntza integraleko" itxura horrekin. Unibertsitatearen diziplinaz haraindiko eta diziplinarteko prestakuntza organo bat da, nolabait. Hortaz, unibertsitate hedakuntza, kasu gehienetan, ikasleen zeharkako eta ezohiko prestakuntza horretara mugatzen da, eta ez unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanera (7. elkarrizketa).

Hala ere, elkarrizketatutako pertsonen ustez, oro har, beren unibertsitateek nolabaiteko konpromiso soziala dute. Beste gauza bat da hori nola gauzatzen den eta zer nolako eragina duen.

Ez dut uste asmo txarra dagoenik. Nire ustez, fede bat dago, ezagutza sortzen duen erakunde gisa irekitzeko eta konpromiso soziala hartzeko prestutasuna dago. Beste kontu bat da gero zer irizpide erabiltzen diren, baina ez dut uste Errektoretzaren jokabidea makiavelikoa denik (8. elkarrizketa).

Enpresa-ereduan oinarritutako gobernantza

Aipatzen den beste oztopo bat Unibertsitatearen kudeaketa da, hura enpresak kudeatzeko ereduetan oinarritzen baita, eta bere helburu nagusia erakundearen iraunkortasun ekonomikoa bermatzea da; gaur egun "kapitalismo akademikoa" deitzen dena, alegia.

Gaur egungo gizarte eta erakunde joerarekin bat, kapitalismo akademikoko estrategiei lotuta dagoena. Izan ere, kapitalismo kognitibo orokorraren eta unibertsitatearen strategiaren esparruan, unibertsitatea enpresa edo korporazio bezala posizionatu nahi izan dute, nahiz eta askotan ez duten onartu (12. elkarrizketa).

Hala ere, beste ikuspegi batzuk ere identifikatu dira. Elkarrizketatu guztiek ez dute begi txarrez ikusten Unibertsitatearen kudeaketa enpresa-ereduetan oinarritzea. Izan ere, batzuek Unibertsitatea egoera ekonomiko berrietara egokitzearen garrantzia azpimarratzen dute.

Idea da Unibertsitateak ekoizpen ekonomikoko errealitate berrietan duen eginkizuna ulertzea. Hala, errealitate eko-sistemikoak dira, balioa modu kolaboratiboan sortzen da, askotariko eragileek parte hartzen dute, eta bakoitzak eginkizun bat du eta baliabide desberdinak ematen eta kontsumitzen ditu eta lankidetzaren harreman desberdinak ezartzen ditu (4. elkarrizketa).

Hala ere, elkarrizketatutako askok uste dute enpresa-logika horrek –dena errentagarritasunaren arabera neurtzen duena– beste hainbat zerbitzu arriskuan jartzen dituela, hain zuzen ere, gizartean eragin positiboa dutenak baina irabazi ekonomiko zuzenik ematen ez dutenak. Askok salatzen duten bezala, "garrantzitsua" zer den ulertzeko eta neurtzeko modu horren ondorioz, unibertsitate jarduera errentagarritasun ekonomiko handieneko eremuetara eta zerbitzuetara bideratzen da. Gainera, interes sozialeko jarduerak zalantzan jartzera ere iristen da, unibertsitateen funtsak erabiltzen dituztelako eta ez diotelako unibertsitate sistemari ekarpen garrantzitsurik –ekonomikoki, behintzat– egiten.

Erakundea zapalgailu bat bezala da, irizpide garrantzitsuak zeintzuk diren erantzuten saiatzen baita, eta hori eztabaida erabat onargarria da. Hau da, haien ustez [beharrezkoa da] kontuak, aurrekontuak, diru-sarrerak eta gastuak aurrera ateratzea eta doitzea. Unibertsitatearen eguneroko arazoa aurrekontuei dagokien, ia-ia enpresa bat izango balitz bezala. Beraz, kontu horietan eragiten duen guztia arazo bat da, helburua kontuak ateratzea baita. Hori alde batetik, eta bestetik, rankingak zaintzea, horrek erakartzen baititu bezeroak, enpresa bat izango bagina bezala (1. elkarrizketa).

Esperientziaren Unibertsitatea [esperientziaren gelei dagokionez] aspalditik dabil martxan. Herritarrei irekita dago eta jende asko egoten da, normalean, ikasi ezin izan duten pertsona erretiratuak edo nagusiak. [Ekimenak] aurrekontu bat du, hori unibertsitate hedakuntza da. Baina, ikerketaren ikuspegitik, hori ez da errentagarria. Eta, jakina, batzuetan esaten da ez dagoela baliabiderik, ez dagoela dirurik ez dakit zertarako, baina badago dirua horretarako (5. elkarrizketa).

Errentagarritasunaren logika lehenesten duen sistema horrek ondorioak ere ditu irakaskuntzaren arloan. Izan ere, elkarrizketatuen arabera, humanitateen arloko oinarrizko gradu batzuk kentzea ere proposatu izan da, gutxieneko matrikulazio-tasa batera heltzen ez direlako.

Historiaz edo Geografiaz ari naiz, ikasle kopuru txikia dutelako. Unibertsitate pribatuak hori egin dezake, errentagarritasun ekonomikoa bilatu behar duelako Baina pentsa ezazu ez dugula mioma anizkoitza duen jendea artatzen, oso pertsona gutxi dutelako gaixotasun hori, eta hiltzen uzten ditugula. Hori pentsaezina litzateke, ezta? Bada, Unibertsitatean gertatzen ari da, Geografia bezalako ikasketak desagertzen utziko ditugu lau irakasle besterik ez dituztelako... Agian, ez diegu ikasleei esan ikasketa horiek amaitzen dituztenen langabezia-tasa zero dela, oso gutxi daudelako, eta denok aurkitzen dutela lana institutu batean. Aitzitik, langabezia-iturri izugarria diren beste ikasketa batzuk ditugu, eta sartzeko nota oso altua dute (9. elkarrizketa).

Unibertsitate publikoaren finantziazio eskasa

Unibertsitate Sistema Publikoaren finantziazio publikoa ez da nahikoa –Lege Organikoak berak bere hitzaurreak onartzen duen bezala–. Seguruenik, hori da unibertsitate hedakuntzako proposamenak oztopatzen dituen elementuetako bat:

“Azken lau hamarkadetan unibertsitateko ikasleen kopurua bikoiztu da, milioi eta erdiko muga gaindituz. Baina finantziazio publiko eskasak; unibertsitate tasen igoerak; irakasleen konfigurazioan dauden disfuncioek, berritze-tasa txikien ondorioz; irakasle elkartuen, bitartekoen, ordezkoen edo bisitarien prekarizazioak; eta unibertsitateko langileen zahartzeak; baita desparekotasun sozialek ere, arriskuan jarri dute sistemaren iraunkortasuna eta kalitatea.

Mende honen bigarren hamarkadan, Unibertsitate hezkuntzako gastu publikoa hezkuntzako gastu orokorra baino bi bider gehiago eta hezkuntza ez-unibertsitarioa baino hiru bider gehiago murriztu da. Hala da, unibertsitate hezkuntzako desinbertsioa hezkuntza ez-unibertsitarioan baino handiagoa eta iraunkorragoa izan da. Gainera, unibertsitate eremuan, finantziazio publikoaren murrizketa askoz handiagoa egon da, eta,aldi berean, finantziazio pribatua handitu da, familiek ordaintzen dituzten prezio publikoen igoera handiaren ondorioz. Beraz, unibertsitatearen finantziazio publikoa gure inguruko herrialde europarren batez besteko inbertsioetik urrundu da. Finantziazio publiko handiago batek zerbitzu-ahalmen handiagoa ekarriko du, eta Unibertsitatea beti izan den eta izan nahi duen prestakuntza eta ezagutza iturri hori bali dezaketzen gizarte sektoreekiko aliantzak sustatuko ditu” (Unibertsitate Sistemari buruzko Lege Organikoa, 2023, or. 9).

Behar den finantziarioa lortzen ez duenez, Unibertsitateak errentagarritasun handieneko jarduerak lehenesten ditu, eta unibertsitate hedakuntzaren esparruan aurkitzen diren beste proposamen batzuk baztertu behar izaten ditu, nahiz eta eragin sozial positiboa duten.

Goi-mailako Hezkuntzako Europako Esparruan sartu garenetik, hau da, Boloniako erreforma deiturikoan, Unibertsitatea burokratikoagoa da eta aurrekontuak behera egin

du. Beraz, "hedakuntzaren" aurrekontua ere murriztu da, eta legeetatik ere desagertu da. Gizartearekin konektatzeko bokazioak jarraitzen du [...] baina ekonomikoki eta administratiboki ito egin dute, baliabideei eta egiturari dagokienez. "Hedakuntzaren" eginkizuna funtsezkoa ez den zerbait bilakatu da (7. elkarrizketa).

Unibertsitate honetan izugarri kostatzen da finantziazio formulak bilatzea, eta proiektu on asko desagertzen dira jendea erre egiten delako (5. elkarrizketa).

Unibertsitateko langileei zuzenean eragiten die prekarizazio horrek; izan ere, lan-baldintza duinak lortzeko presioa gero eta handiagoa da. Interes pertsonal hori, legitimoa bada ere, beste interes kolektibo batzuk bazter ditzake, hala nola unibertsitate hedakuntzari dagozkionak.

Beste elementu batek ere eragin argia du, hain zuzen ere, Unibertsitateko langile gehienek interes pertsonalak bilatzen dituztela. Beraz, interes partikular horien batuketak presio handia eragiten du eta funtsezko kontuak erabakitzen ditu. Zertaz ari naiz? Bada, oso gauza argiak dira, esate baterako, jendeak bere soldata hobetu nahi duela. Esate baterako, TEKAZELen funtsezko kezka ez da unibertsitate hedakuntza, baizik eta mailaz igotzea, beren soldata handitzea, jaiegun gehiago izatea, horrelako kontuak [...] Interes indibidual horietan, unibertsitate hedakuntza oso etereo da, ez baitaio kontuan hartzen plaza atera nahi duen irakasle bati [...] Hortaz, banakako mailan, gauza horiek ez dute garrantzirik. Interes legitimo baina indibidualista horien batuketan, ez da kontu hori inondik agertzen [hedakuntzari dagokionez] (1. elkarrizketa).

Halaber, unibertsitate pribatuek talde politiko jakinen laguntzaz lortutako gorakada eta unibertsitate horiekin "lehiatzeko" beharra, bada, Unibertsitate publikoa ahuldu izanaren arrazoietakoa batzuk dira. Eta Unibertsitate publikoak komunitatearen zerbitzura dagoen funtsezko ondasun gisa duen prestigioa galtzeko prozesu baten bitartez justifikatu da hori guztia.

UNESCOren biltzarrak Unibertsitatearen etorkizuna markatzen ari dira ikuspegi horretatik. Hezkuntzaren etorkizunari buruzko deklarazio edo agiri horietako batzuk berreskuratu beharko genituzke –erraz egin dezakegu gainera–, eta honako hauekin lotura zuzena dutela argi ikusiko genuke: alde batetik unibertsitatearen neohizkera gerentzial hori, eta bestetik, unibertsitateko baliabideak eta ikerketa kapitalizatzeko programak, produktu bat –kasu honetan hezkuntzako– eskaintzeari dagozkionak [...] Curriculum ezkutu bat dago, eta horretan ezagutza transferitu behar dela esaten ari da, gizartea hobetzeko, baina errentagarritasun ekonomikoko eta sozialeko ikuspegi batetik (12. elkarrizketa).

Baliabide urritasunak eragin nabarmena du Unibertsitateak eremu eta gizarte-sektore batzuetara heltzeko duen ahalmenean, batez ere landa eremuari dagokionez.

Landa eremua [...] oso anitza da; izan ere, zonalde batzuk ondo komunikatuta daude, eta beste batzuk, aldiz, oso txarto. Oso zaila da txarto komunikatuta dagoen leku batera heltzea. Saiatu gara, adibidez, prestakuntza bat egiten [...] genero berdintasunari buruz, eta ez gara nahiko genukeen bezala heldu. Heltzea kostatu zaigu, nahiz eta landako elkarteekin lan egiten ari ginen [...] Zonalde batzuetara zuzenean iristea ez da posible, eta, une honetan, biztanleria horrekin, ez dago aurrez aurrekoa ez den beste modu bat ezartzeko aukerarik. Eta, hara, kontu garrantzitsu bat dago egiteko, hain zuzen ere, landa eremuetako gazteengana heltzea (3. elkarrizketa).

Estrategia instituzionalik eza

Unibertsitate komunitatean galdetutako kideen % 50ek uste dute, egiten diren unibertsitate hedakuntzako ekimenak beren unibertsitatearen estrategia instituzionalaren esparruan kokatzen direla, % 10ek uste dute ez direla erakundearen ildo politikoen parte, eta gainerako % 40k adierazi dute ez dakitela unibertsitatearen politikaren barruan sartzen diren ala ez.

Elkarrizketatutako askorentzat, hezkuntza komunitateak adostutako estrategia instituzional argirik ez egoteak unibertsitate hedakuntzaren aldakortasuna eta gobernu desberdinek ezarritako politiketikiko menpekotasuna larriagotzen ditu.

Hau da, nik, irakasle bezala, unibertsitate hedakuntzako ikastaro bat proposatzen dut. Unibertsitateak zati txiki bat ordaintzen dit, gainontzeko finantziarioa nik bilatu behar dut, eta helburuak nik ezartzen ditut irakasle eta ikertzaile gisa. Hau da, ez dago Unibertsitatearen estrategiarik (9. elkarrizketa).

Ildo horretan, unibertsitate hedakuntzaren oztopotzat jotzen da eginkizun hura den edo izan beharko lukeen horri buruzko eztabaidarik ez egotea.

Unibertsitate hedakuntza zer den eztabaidatzea funtsezkoa iruditzen zait, Unibertsitatearen hirugarren baloretzat hartzen dugun. Izan ere, ikusten ari gara nola desagertzen ari diren nire ustez unibertsitate hedakuntzaren ezaugarri diren gauza asko, hala nola aipatu ditugun hauek: etengabeko prestakuntzako lana, lurraldean ezartzeko lana, kooperatibismoa, lankidetzak, internazionalizazio eremu zehatz bat, inklusio eta berdintasun politikak, besteak beste. Bada, "hedakuntzaren" oso berezkoak iruditzen zaizkidan arloak dira (12. elkarrizketa).

Irakaskuntza nahiko argi dago, ikerketa ere. Beste kontu bat da, horiek "nola" eta "zer modutan" egiten diren. Baina "hedakuntza", nire ustez gaur egungo taldeetako inork ez daki zer den, zertarako den; eta ez dute horri buruz pentsatzen ere (9. elkarrizketa).

Hedakuntzako jardueren garapena, politika argirik ezean, eginkizun hori bultzatzeko ardura duten organismoen buru diren pertsonen borondatearen araberakoa izan daiteke erabat.

Gizarte erantzukizuneko edo konpromisoko politikak programa horietan sartzea, bada, esparru horren arduradunaren izaeraren menpe egon daiteke. Edota gizarte erantzukizun horrekin lotura duten beste arlo batzuekin aliantzak sortzeko ahalmenaren menpe. Hain zuzen ere, gizarte eragileekin eta kanpoko beste erakunde batzuekin lan egiteko ideian oinarritzen den gizarte erantzukizunaz ari gara. Baina hor elementu garrantzitsu bat dago, hain zuzen ere, hedakuntza barruko banaketa hori, edo zati horren ezabapena, horrek programatzailearen edo bideratzailearen eskuetan uzten baitu borondate hori (12. elkarrizketa).

Batzuen ustez, unibertsitate hedakuntzako estrategiarik ez egoteak estrategia handiago bati dagokio. Ezabapen prozesu batez ari gara; Unibertsitatearen hirugarren misio historiko hori ezabatzeko prozesuaz, alegia. Izan ere, pertsona horien ustez, unibertsitate batzuetan unibertsitate hedakuntzaren desagertzea gauzatzen ari da dagoeneko.

Unibertsitate Sistemari buruzko Lege Organikoak unibertsitate hedakuntza terminoa baztertu du, eta horrek asmo politiko bat erakusten du. Hain zuzen ere, Unibertsitatearen hirugarren misioa ezabatzeko asmoa, hedakuntza bere jatorrizko helburutik bananduz [...] Unibertsitate hedakuntzako politiken desagitea da, ikuspegi korporatibo batetik. Hitz hori erabiliko dut (12. elkarrizketa).

Errektoreordetzan izena galdu izana [Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzari dagokionez] ez da berriketa (1. elkarrizketa).

Nire ustez, hori mailakako kontu bat da; nolabait unibertsitate hedakuntzaren misioa galtzen ari da. Hitza bera ez da errektoretzatan agertzen, eta, are gehiago, narratibetatik, diskurtsoetatik eta oro har galtzen ari da (7. elkarrizketa).

Pixkanaka desagertze horrek misio sozial bat duten arlo eta zerbitzu guztietan eragiten du.

Unibertsitateak arreta emateko duen arduratik edo mandatutik desagertzen dira funtsezkotzat jotzen ditudan hainbat esparru; desagertzen jarraitzen dute, hala nola etengabeko prestakuntza, lankidetzak, generoko politikak, eta abar (12. elkarrizketa).

Desagerpen horren atzean izan daitezkeen arrazoen artean ditugu, alde batetik, Unibertsitateak, gero eta gehiago, erakundearen barneko helburuetan eta arazoetan zentratzen dela, eta, bestetik, hedakuntza ez dela gizartearen eskaera argia, ezta hezkuntza komunitatearena ere, eta, horren ondorioz, hedakuntza ia ez dela agertzen agenda politikoetan.

Hain zuzen, hura desagertzeko joera dago. Nire ustez, Unibertsitatea gero eta gehiago gordetzen da bere baita, bere arazoetan, bere helburuetan, baina helburu "nartzisistak" dira. Asko jota beste unibertsitate batzuekin lehiatzen [zentratzen da], eta hori nahiko zentzugabea da sistema publiko batean (1. elkarrizketa).

Inork ez du Unibertsitate bat aukeratzeko bere gizarte erantzukizun mailagatik, garapenerako lankidetzako praktika zoragarriak egiten dituelako edo besteek ez bezalako kultura duelako (9. elkarrizketa).

Unibertsitate hedakuntzako eginkizunaren definizio ezak erraztu egiten du hura zalantzan jartzea edo beste proposamen batzuk nagusitzea, nahiz eta, agian, beste horiek ere ez dituzten argudio solidoak. Halaber, estrategia argirik ez izateak eginkizun hori ahultzen du, bere helburuak lausotzen ditu eta hezkuntzaren edo ikerketaren arloan zuzenean kokatzen ez diren ekimenak garatzea ahalbidetzen du.

Aukera aniztasun horrek alderdi positiboak eta negatiboak ditu. Negatiboen artean, jardueren atomizazioa nabarmentzen da, horiei zentzua, koherentzia eta koordinazioa ematen dien koherentziarik gabe.

Hau da, Unibertsitatea hain da handia, non bakoitzak bere planak, bere jardunbidea, bere unibertsitate hedakuntzako politika egiten dituen, ez ikuspegi nuklear batetik, baizik eta ikuspegi molekular batetik. Hau da, jende asko dabil gauzak egiten, baina guztiak ez dira pasatzen, ez dira koordinatzen. Gutxienak, unibertsitate hedakuntzako unitate baten bitartez koordinatzen dira. Hau da, gu, nolabait, gobernu-talde edo talde zuzentzaile baten "unibertsitate hedakuntza" gara, baina gero fakultate bakoitzak bere jardunbidea du. Zentzu horretan, nire ustez gauza asko eta oso interesgarriak eta oso onak daude. Baina, agian, integrazio politika edo praktika hori falta da. Agian ezinezkoa da, ez dakit beste esparru batzuetan zer gertatzen den, baina hemen oso zaila egiten da hori koordinatzea (12. elkarrizketa).

Garatutako ekimenetako askok pertsona eta kolektibo jakinen ahalegina behar dute; ez baitago unibertsitate hedakuntzako estrategiarik. Elkarrizketatutako erdian baino gehiagoren ustez, Unibertsitatean toki bat lortu duten pertsonen eta kolektiboen ahaleginari esker sortzen eta mantentzen dira unibertsitate hedakuntzako ekimen asko. Ekimen horiek finkatzea lortu den kasuetan, azkenean,

Unibertsitateak bere egin ditu erakundearen erantzukizunaren parte gisa. Hala ere, horietako gehienak ez dira unibertsitate politikaren parte bihurtzen.

Estatutuek unibertsitate hedakuntzari buruz jasotzen dutena, bada, konpromiso historikoen, tradizioen edo ekimen indibidual edo kolektiboen ondorioz egiten ari ziren eta egiten diren hainbat gauza dira. Baina ez da unibertsitate hedakuntzako politika bat, gizartera hurbiltzeko, gizarteari zerbitzu bat emateko, eta inguruko edo urruneko gizartearekin lan egiteko helburua duena. Bada, lortutako kontu horiekin jarraitzea besterik ez da, ikuspegi estrategikorik edo politikorik gabe, hitzaren zentzu zabalean (1. elkarrizketa).

Ekimen asko norbanakoen edo taldeen borondateaz sortzen dira, eta, gero, Unibertsitateak bere egiten ditu, pertsona edo talde horien eragiteko ahalmenaren ondorioz. Zaila izaten da Unibertsitateak estrategia politiko edo inklusio estrategia gisa hartzea ekimen horiek. Hau da, normalean, pertsona horien ahaleginaz sartzen diren kontuak izaten dira (5. elkarrizketa).

Babes instituzionalik ez duten eta Unibertsitateak bere egiten ez dituen ekimen horien iraunkortasuna zaila izaten da. Gainera, maiz, irismen txikia izaten dute, baliabideen urriak baitituzte eta ez baita behar duten lana aintzat hartzen. Zentzu horretan, askok gogorarazten dute unibertsitate hedakuntzako ekimen asko tartean sartutako pertsonak ematen duten denborari eta ahaleginari esker bultzatzen eta mantentzen direla, maiz, modu altruistan.

Ni zortzi urtez tematu nintzen garapenerako lankidetzako atal bat sortzeko, eta azkenean, errektoreak, aspertuta, esan zidan: "Egin ezazu garapenerako lankidetzako atala!". Hamahiru urtez egon nintzen eta [...] uztea erabaki nuenean, garapenerako lankidetzako atala itxi egin zen. [...] Askok eskatu genuen [garapenerako lankidetzako atala mantentzea] baina errepikatzeari utzi genionean, arazoa gaineratik kendu zuten (1. elkarrizketa).

Zaila da jendea aurkitzea unibertsitate kudeaketako gaietan lan egiteko, batzordeetan parte hartzeko edo ikasleekin lan egiten duen talde bat lideratzeko; zaila da (6. elkarrizketa).

Unibertsitatea, neurri handi batean, osagarri ekonomikoek mugitzen dute. Zoritxarrez, hala da. Nik ere ez diet errua beste batzuei leporatuko. Duela gutxi kargu bat eskaini zidaten eta ezetz esan nien. Zergatik? Bada, karguak ez badu ordain ekonomikorik, sentitzen dut baina nire lana % 100ean dago irakaskuntzara eta ikerketara bideratuta. Eta ez dut burokrasia lan gehiagorik nahi, ez badira ordaintzen. Eta horrela esan nuen. Pentsatuko duzu zinismoa dela, ezta? Baina hori da egia. Besteak logika horretan mugitzen badira, zergatik mugituko naiz ni modu altruistan? Eta, hala, gurpil zoro batean bukatzen dugu [...] baina ez bada baloratzen, ez lanean, ez ekonomikoki, bada, ez dut egingo (9. elkarrizketa).

Horrekin batera, gehiegizko burokrasia, elkarrizketatu gehienek ustez, oztopo bat da unibertsitate hedakuntzako jarduerak burutzeko.

Burokrasia amaitezinak, maiz, proiektu bat aurkezteko ideia kentzen dizu burutik. Eman beharko dituzun ordu ugarietan pentsatzen duzu, kenduko dizun denboran, zertarako? Ez dit bizitza ematen, nik igande goizean kafe bat hartu nahi dut familiarekin (8. elkarrizketa).

Aintzatespenik eza

Elkarrizketatu guztiak ados daude Unibertsitatearen eginkizun klasikoek –irakaskuntza, ikerketa eta hedakuntza– ez dutela garrantzi bera. Garrantzi handiagoa ematen diete lehenengo bie, eta hedakuntza azken posizioan kokatzen dute. Zentzu horretan, gehienek diote hedakuntzara bideratutako baliabideak, irakaskuntzara eta ikerketa bideratutako horiek baino askoz txikiagoak direla. Horrexegatik, hain zuzen, batzuek uste dute hedakuntzako jarduerak aintzatespen txikiagoa dutela.

Tradizionalki, unibertsitate hedakuntza –Espainiako legeek Unibertsitatearen funtzioztat hartzen zutenean– Unibertsitatearen hirugarren oinarria zen, beti irakaskuntzaren eta ikerketaren atzetik. Beraz, garrantzi gutxienera, eta ez zen funtsezkotzat hartzen, bai? Irakaskuntza eta ikerketa baitira inportanteena hemen (7. elkarrizketa).

Irakaskuntza eta ikerketa dira aintzatespen akademiko handiena duten jarduerak, eta unibertsitate hedakuntzak ez du ibilbide akademikoan laguntzen. Hala, hirugarren funtzio horretan kokatzen diren jarduerak bigarren mailakotzat ere hartu ohi dituzte unibertsitateko langileek, batez ere ezegonkortasun egoeran dauden horiek (plazarik gabeko irakasle eta ikertzaileek eta gazteek batez ere).

Ez da baloratzen edo askoz gutxiago baloratzen da, argi eta garbi. Ez du ia baliorik, ez orduer dagokienez, ez ekonomikoki [...] Bada, azkenean, gazte batek, gaur egun, zertan ematen du bere denbora? Unibertsitate hedakuntzan? Ez badauzka hamar paper ez diote plazarik emango, beraz, paper horiek egiten emango du denbora... Gainera, ikerketa berrikuntzako proiektu bat egin behar du, hala eskatzen diotelako. Beraz, nola eskatuko diozu gazte bati horretan inplikatzeko? Eska dezakezu? Bokazio handia izan beharko du, badakielako puntuak galduko dituela ondokoarekin alderatuta, azken horrek ez baitu denborarik ematen kontu horietan (1. elkarrizketa).


Lehen aipatu dugun bezala (13. grafikoa), elkarrizketatutako unibertsitate komunitateak uste du funtzioen hierarkizazioa dagoela. Pertsona horien ustez, ikerketa da garrantzi handieneko eginkizuna, eta, haren atzetik, irakaskuntza. Unibertsitate hedakuntza, beraz, garrantzirik txikiena du (% 51k garrantzi gutxikotzat hartzen du eta % 36k batere ez garrantzitsutzat).

Elkarrizketatuetako batzuk ados daude ikerketa dela meritu gehien ematen dituen jarduera. Horrek, bada, ikerketarekin lotutako ekimenetara bideratzen ditu lehentasunak.

Halaber, galdetu egin genien ea Unibertsitateak zenbateraino aintzat hartzen duen hezkuntza komunitatea osatzen duten kolektiboek (irakasle eta ikertzaileak, ikasleak eta TEKAZELak) unibertsitate hedakuntzako ekimenetan duten parte hartzea. Erantzunek erakutsi egiten dute ikasleen eta irakasleen parte-hartzea partzialki aintzatesten dela (% 59 eta % 44 hurrenez, hurren). TEKAZELen kasuan, aldiz, gehienek ez dakite beren parte-hartzeak inolako aintzatespenik duen (% 48).

Irakasleei eta ikasleei dagokienez, beren parte-hartzea partzialki aintzatesten dela uste dute pertsona gehiagok, nahikoa aintzatesten dela eta batere aintzatesten ez dela uste duten horiekin alderatuta (alderik handiena ikasleen kasuan gertatzen da).

15. grafikoa. Hedakuntzako ekimenetan parte hartzearen aintzatespen akademikoari buruzko pertzepzioa



Merituak aitortzeko sistemaren bitartez, Unibertsitateak jarduera desberdinen inpaktu akademikoa ezartzen du, eta hedakuntzako jarduerak aintzatespen handiagoko horien –irakaskuntza eta ikerketa– osagarri direla xedatzen du. Ildo horretan, elkarrizketatuek diote, balio nahikorik ez ematekotan, horiek beti izango direla marjinalak eta irakaskuntzaren eta ikerketaren menpe egongo direla. Azken batean, Unibertsitatearentzat “benetan garrantzitsua” den horri “denbora kentzen” diotela ulertzen dute. Irakaskuntzak ere garrantzia galtzen du pixkanaka, izan ere, balio eta ordain ekonomiko bitartez onartzen dena ikerketa da.

Paperak ez ezik beste kontu batzuk aintzat hartzen dituzten seiurtekoak egiten saiatu gara [...] oro har, unibertsitate hedakuntzako, komunikazioko eta abarreko jarduerak kontuan hartzen dituzten seiurtekoak. Baina, tira, porrot egin dute, ez dira ondo atera (1. elkarrizketa).

Herritarrentzako gauzak egiten dituzunean, maiz, denbora eta energia galtzen duzu; ez baitizute merezi baloratzen dizuten kontuetarako, esate baterako ANECA¹⁸ aintzat hartzen dituen JCR¹⁹ edo argitalpen kopuruari dagokienez, ulertzen? (5. elkarrizketa).

Azkenean, ziniko izatera eta diruagatik bakarrik mugitzera eramaten zaituzte, diruagatik edo maila igotzeko, azken batean, diruagatik. Beraz, ni katedratikoa banaiz, lehen baino gehiago kobratzen du, gauza bera egiten badut ere, lehen unibertsitateko titularra nintzelako. Orain gehiago kobratzen dut, argitaratzeagatik ere; beraz, irakaskuntza ere oztopo izatera heltzen da (9. elkarrizketa).

18 ANECA Kalitatea Ebaluatzen eta Egiatzen Estatu Agentzia Espainiako unibertsitate sistemaren ebaluazioa, ziurtapena eta egiaztapena egiteaz arduratzen den organoa da, hura etengabe hobetzeko eta Goi mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura moldatzeko. Informazio gehiago, hemen: <https://www.aneca.es/ANECA>

19 *Journal Citation Reports (JCR)* diziplina anitzeko datu-base bat da, Informazio Zientifikoko Institutuak (ISI) egina. Hark, zenbait datu bibliometrikoren bitartez, aldizkarien garrantzia ezartzen du beren gai-kategorien barruan. Gaur egun, Clarivate Analytics enpresa da haren jabea.

Batzuen ustez, oso zaila da unibertsitatearen hiru eginkizunek aintzatespen maila bera izatea, eta batzuek beti izango dute besteek baino garrantzi handiagoa.

Desoreka bat dago, nire ustez transferentzia desorekatuta dago. Seguruenik, ikerketa egiten dutenek esango dute arrazoirik gabe kexatzen naizela, oraindik gehiago sustatu behar dela ikerketaren aintzatespena. Eta irakaskuntzako berrikuntzan dihardutenek esango dute [...] irakaskuntzan berritzea dela Unibertsitatean benetan garrantzitsua den lana. Oreak aurkitzea zaila da eta beti egongo da nolabaiteko desoreka, seguruenik unibertsitate komunitatean indar handiena duen horren alde (13. elkarrizketa).

Elkarrizketatu gehienek ustez ikerketa da, alde handiz, unibertsitate ibilbidean aintzatespen handiena duen eginkizuna. Aintzatespen horrek ordain handiagoa eta lan baldintza hobekak dakarzikie irakasle eta ikertzaileei. Ikerketa estrategia interesgarria izan daiteke gizartearen eskakizunei erantzuteko, baina elkarrizketatu gehienek ustez, gaur egun, ikerketa enpresa kapitalistaren beharrei erantzutera bideratuta dago (ikus Subjektuak atala).

Hori, aldizkari indexatueta²⁰ artikuluak argitaratzearekin estu lotuta dago. Horiek dira ANECA kontuan hartzen dituen irakasle eta ikertzaileak mailaz igotzeko. Izan ere, aldizkari horien intereseko gaietara eta puntuazio-irizpideetara egokitzea funtsezkoa da horietan argitaratu ahal izateko. Hala ere, irizpide horiek beti ez datoz bat gizarteko gehiengoaren lehentasunekin.

Lankide askok landa eremuko asoziazionismoaren adibide horrekin kolaboratu dute, ikerketa jarduerak egin dituzte emakume elkarte horiekin. Izan ere, elkarte horiek asko eskatu dizkigute horrelako jarduerak, badakizu? Hau da, bertara joatea eta behar duten esparruan ikerketa bat garatzea [...] Eta gutxi egiten da, gure unibertsitate sistemak nolabaiteko perbertsioa duelako, ezta? Izan ere, argitaratu behar dugu eta aldizkari espezializatuek oso ikerketa zehatzak eskatzen dituzte, modu argian esaten ez badute ere. Gai asko baztertuta daude, ezagutza ekoizteko esparru horretan. Eta nire ustez, gai horietako asko, hain zuzen, unibertsitate ikerketaren eta hedakuntzaren arteko sinergia gisa gara daitezke [...] unibertsitate hedakuntza mota horren aurkako erresistentzia aktiboa baino gehiago, inertzia moduko bat da, jokoaren arauak finkatuta egongo balira bezala (3. elkarrizketa).

Aldizkari indexatuaren argitalpen-sistema ez da negozio txikia. Izan ere, kalkuluen arabera, aldizkari horiek urtean 19.000 milioi dolar mugitzen dituen industria editoriala osatzen dute, eta, hortaz, zinemaren eta musikaren industrien antzeko maila batean kokatzen da²¹.

Unibertsitateko irakasle baten soldata, jendeak oso altua dela pentsatzen badu ere, [...] mila euroko ingurukoa da, eta gainontzekoa osagarriak dira. Batzuk finkoak dira, hala nola lanpostu-mailako osagarria, edo antzinatasunari dagokiona, baina badira produktibitate zientifikoarekin zerikusia duten beste osagarri batzuk ere [...] Eta horrek erabat zenbakizkoak diren baldintza batzuk betetzea eskatzen dizu, hau da, azken sei urteetan bost argitalpen baino gehiago izatea aldizkari indexatueta eta parekoek berrikusitakoetan (9. elkarrizketa).

20 Aldizkari indexatuak kalitate editorial eta zientifikoko irizpide jakinak betetzen dituzten argitalpenak dira, eta kontsultarako mundu-mailako gordailu edo datu-base jakinak osatzeko aukeratuak dira. Gordailuak hornitzaile pribatuek kudeatzen dituzte eta urtero eguneratzen dituzte. Hornitzaile horien artean Clarivate eta Elsevier dira ezagunenak.

21 PUIGDOMÈNECH, Pere (2023). "El fraude continuado en el sistema de publicaciones científicas". *El País* (2023ko abenduaren 5ean kontsultatuta). <https://elpais.com/ciencia/2023-11-28/el-fraude-continuado-en-el-sistema-de-publicaciones-cientificas.html>

Elkarrizketatuetakoz batzuen ustez, ANECA "transferentzia" lanak baloratzeko sistema birpentsatzen ari izateak aukera ematen du Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko artikulazioko eta komunikazioko beste modu batzuk aintzat hartzeko.

ANECA, orain, "transferentzia" baloratzen hasi da. Eta ez dakigu, ez nola, ez zer baldintzatan, baina, orain arte, transferentzia proiektu batek ez zuen ezer balio (8. elkarrizketa).

Lehen aipatu bezala, funtsezkoa da ibilitakoa eta dauden baliabideak aprobetxatzea aldaketak bultzatzeko. Zentzu horretan, batzuek gune estrategikotzat hartzen dituzte Ikerketaren Emaizak Transferitzeko Bulegoak (IETB); hain zuzen, Unibertsitatea eta Gizartea behar bezala artikulatzeko irizpideak birpentsatzeari eta birformulatzeari dagokionez. Izan ere, bulego horiek transferentziako, ikerketako eta Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko konexioko ekimenetako asko bideratzen dituzte.

Izan ere, ikerketa proiektu gehiago ditugu "transferentzia" eta "dibulgazio" bitartez, ikerketa talde gisa baino. Esate baterako, guri ez ziguten ikerketako I+G bat ematen, baina bai IETB baten bitartez, hau da, elkarte edo GKE batekin hitzarmen bat eginez [...] hor ikertzeko eta gizartearekin konektatzeko aukera gehiago ditugu, zuzenean Unibertsitatearen ikerketa proiektuen bitartez baino (2. elkarrizketa).

Ikerketa jarduerak duen aintzatespena baliatu nahian, "ezagutzaren transferentzia" formula gisa aurkezten da; alegia, ikerketa jardueraren menpe, ikerketak sortutako ezagutzak zabaltzen, ezagutzera ematen era posizionatzen laguntzen duena. Baina, egia esateko, ikerketa horietako gutxiak dituzte gizartearentzat "onuragarriak" diren gizarte eraldaketako helburuak.

Beraz, horregatik dago [transferentzia] ikerketan, hain zuzen, batzuk soldata-osagarriak kobratzen ditugulako gure ikerketa lanak patente bat badu eta patente hori enpresa bati saltzen badiogu. Hala da, hain gordina. Ez du inolako zerikusirik gizarteari on egitearekin, gizarteari hark emandakoa itzultzearekin, ezta Estatutuarekin agertzen den ezerekin ere. Hori oso polita da, baina ez dut uste egiten denik (9. elkarrizketa).

Elkarrizketatuetakoz batzuen esanetan, azken aldirian, ikerketaren joerak ere aldatzen ari dira. Dagoeneko ez da aldizkari ospetsuetan argitaratzeko bakarrik ikertzen; aitzitik, inguruko beharrei erantzuten dien eta sortutako ezagutza gizarteari itzultzen dion ikerketan pentsatzen hasi gara.

Inork azken hamar plan estrategikoak ikusiko balitu [...] izandako joerak ikusiko lituzke [...] Unibertsitateak, une batean, ikerketa gaietan zentratu dira –agian beharrezkoa zen une horretan–, izan ere, unibertsitateko ospeak aldizkari horietan argitaratzearekin eta mundu mailako beste unibertsitate erakunde batzuen maila berean egotearekin lotuta dago [...] Baina zera ikusi dugu, horrek bakarrik ez duela laguntzen [...] Bai, ezagutza sortzen dugu, baina ingurunean zentzua duen ezagutza sortu nahi dugu ere, gizartearentzat baliagarria dena, inguruarentzat balio duena. Eta, bada, aldaketa hori gertatzen ari da Unibertsitatean eta unibertsitate komunitatea osatzen dugun lagunon bitartez. Ikertzea oso ondo dago, baina hori dibulgazioko modu batean itzuli behar dugu, eta gizarteari transferitu. Eta ikerketa ez izatea laborategiko kontu bat bakarrik, baizik eta inguruarekin inplikatzeko. Ildo horretatik, ekimen asko sortu dira. Beraz, nire ustez, ikusten ari den joera berriak gizarte eraginaren arabera neurtzen du hori (14. elkarrizketa).

Interesgarria izan daiteke Unibertsitatearen hiru eginkizun nagusiek –irakaskuntza, ikerketa eta hedakuntza– antzeko aintzatespena izatea? Hala bada, nola susta dezakegu hori? Nahikoak dira ANECAn gertatzen ari omen diren aldaketak, unibertsitate irakasleak akreditatzeko eta beren ikerketa jarduerak aintzat hartzeko sistemei dagokienez? Nola neur liteke hedakuntzako ekimen baten gizarte eragina?

Unibertsitate hedakuntza kritikoa

Atal hau bi zatitan banatzen da. Lehenengoan, unibertsitate hedakuntza kritikoaren jatorria labur azalduko dugu, eta, gero, gaiari buruzko azken literaturaren bitartez kontzeptualizatuko dugu eta haren egokitasuna eta interesa azpimarratuko dugu. Bigarrenean, funtsezko zazpi estrategia aipatuko ditugu, aztertutako unibertsitateetan unibertsitate hedakuntza kritikoa bultzatzeko. Horretarako, iturri dokumentaletatik, ikerketan lortutako emaitzetatik eta kontrastatzeko online saioan parte hartutako pertsonen ideietatik abiatuko gara.

Globalizazio neoliberalaren ondorioz, bizitzaren dimentsio guztietan ondorioak dituen zibilizazio-krisi²² batean murgilduta gaude. Izan ere, globalizazioa garapen-eredu kapitalistan, estraktibistan, heteropatriarkalean eta kolonialean oinarritzen da; eta eredu horrek, gako ekonomikoari ez ezik, kultura-eta hezkuntza-gakoei ere erantzuten die. "Hezkuntza sistema konbentzionalek logika hori legitimatzeko eta finkatzeko balio izan dute, eta logika hura bidegabea, androzentrikoa, biozida eta patriarkala da azken finean" (Herrero, 2019, or. 13). Eta horregatik, "Unibertsitatea ez dago globalizazio neoliberalaren fenomenotik kanpo, ezta globalizazioaren politikek eta praktikek eragin duten krisi sistemikotik kanpo ere" (Del Río, 2019, or. 2). Sistema hegemonikoak Unibertsitatearen zentzua eta zeregina moldatu du, eta sistemaren normalizaziorako beharrezkoak diren logiken eta ezagutzen igorle bilakatu du. Beraz, esan dezakegu Unibertsitatea –ezagutzak ekoizteko gune pribilegiatu gisa– funtsezkoa dela sistema hegemonikoa erreproduzitzeko. Logika horren bitartez, eta Modernitatearen proiektuaren menpe, sistema hegemonikoaren aurrean alternatibak proposatzen dituzten *beste ezagutza mota batzuk*²³ ukatu ditu –eta ukatzen ditu– Unibertsitateak:

"Kapitalismo akademikoaren eraginpean dagoen Unibertsitate horrek sortzen duen ezagutza modernoak jakintza batzuk bestetik ez ditu jasotzen, hain zuzen ere, Modernitateak definitutako zientziaren parametroen arabera sortutako horiek, eta Iparralde globaleko nukleo nagusietan egindako lanketetatik sortutako horiek. Hala, Hegoalde globaleko periferietan sortutako ezagutza, jakintza, episteme eta esperientzia guztiak kanpoan geratzen dira" (Celorio, 2024, or. 33).

22 "Zibilizazio krisia" terminoa "garapen eredu –kapitalista, estraktibista, patriarkal, arrazista, eta kolonial-baten agorpena nabarmentzeko" erabiltzen da. Izan ere, sistemak "merkatuen eskakizunak lehenetsi ditu pertsonen, komunitateen eta lurraldeen behar eta interesen aurretik. Zientzia modernoaren erreferentzia nagusietan oinarrituta –arrazoimena, aurrerapena, teknologia–, zibilizazio proiektu horrek garapen eta hazkunde ekonomikoko utopia bat aurkeztu digu, eta utopia hori ongizatearen gizarteak finkatzeko panazea unibertsal gisa aurkeztu digu" (Celorio, 2024, p.27).

23 Nicolás A. Farfán-en arabera, Modernitateak ondorio larriak izan zituen menpeko pertsonen bizitzan, ekosistemetan, komunitate bizitzan eta "kolektiboaren" defentsan. Gainera, aspaldiko ezagutzen "epistemizidioa" eragin zuen. "Epistemizidio horrek aspaldiko jakintzak eta zapoak menderatzen ditu, esklabotzaren edo subalternitatearen bitartez, esate baterako emakumeen kasuan (Federici, 2015), afroen kasuan (Williams, 2011) eta indigenen kasuan (Dussel, 1994) [...] baina baita sektore herrikoiekin gertatzen den bezala (ezagutzaren monopolioaren, desjabetzeen eta estraktibismo kognitiboaren bitartez)" (Farfán, 2019, or. 5). Ildo horretan, Aura Cumes-ek subjektu indigenen "ezeztapen politikoa" delakoan sakontzen du (Cumes, 2019). Gure testuinguruan ere, esperientzia hurbilagoak ditugu, hala nola ijito herriarena eta bere erresistentzia historikoarena (Filigrana, 2020). Herrialde biek jasan izan dute beren historia pentsatzeko ahalmenaren ezeztapen historikoa, baita beren izaera, pentsaera eta jokaera posizionatzeko ahalmenarena ere.

Unibertsitatearen jatorria²⁴ Modernitatearen proiektuaren hedakuntza baino lehen kokatzen bada ere, haren helburua, Erdi Aroko Europan behintzat, garai horretako botere hegemonikoaren *statu quo*a mantentzea izan zen. Bere mandatua teologiari eta zuzenbide kanonikoari buruzko ezagutzak ugaritzera bideratzen zen. Hala ere, denborarekin, Unibertsitateak hedatu ziren, bilakatu ziren eta aldaketa sozial, politiko eta kulturaletara moldatu ziren.

Unibertsitatea demokratizatzeko prozesuaren esparruan, unibertsitate hedakuntzaren proposamena Europako eta Amerikako hainbat lekutan sortu zen XIX. eta XX. mendeetan. Hura Unibertsitatea Gizartearekin konektatzeko eta hezkuntza akademiaren mugetatik (elite batera mugatuta zegoen) kanpora eramateko beharrari erantzuten zion.

Unibertsitate hedakuntzak testuinguru desberdinetan izan duen jatorria eta garapena alde batera utzita²⁵, kasu honetan, unibertsitate hedakuntza kritikoaren proposamena karakterizatzeko, Latinoamerikako esperientzia eta lurraldeetatik etorritako proposamenak hartuko ditugu erreferentzia gisa, hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, unibertsitate hedakuntza kritikoari buruzko dokumentu-oinarri zabala dutelako bertan. Izan ere, CLACSO Gizarte Zientzien Latinoamerikako Batzordeak, 2019-2022 aldian, Lantalde espezifikoa izan zuen, *Extensión crítica: teorías y prácticas en América Latina y Caribe* (Hedakuntza kritikoa: teoriak eta praktikak Latinoamerikan eta Kariben) izenekoa. Horretan, Latinoamerikako eta Karibeko hamabost herrialdeetako 180 ikertzailek hartu zuten parte. Are gehiago, Latinoamerikan lankidetzarako, trukerako eta hausnarketarako nazioz gaindiko egiturak daude, hedakuntzaren eta gizartearekiko loturaren esparruan. Esate baterako, ULEU Unibertsitate Hedakuntzako Latinoamerikako Batasuna²⁶, gaiari buruzko aldizkari espezializatu bat duena, *+E: Revista de extensión universitaria*²⁷ izenekoa. Beste baliabide eta gune batzuen artean, aipatzekoak dira Unibertsitate hedakuntzako biblioteka²⁸ eta Unibertsitate Hedakuntzako Latinoamerikako eta Karibeko Biltzarrak (CLEU)²⁹. Horiek ibilbide luzea dute, hain zuzen ere, hamazazpi biltzar baino gehiago hiru hamarkadatan zehar. Horietako azkena, 2023ko abuztuan ospatu zen Kolonbiako Armenia hirian, eta bertan hedakuntza lurraldea eraldatzeko estrategia gisa aztertu zen.

Beste alde batetik, garrantzitsua iruditzen zaigu lurralde horien esperientzia; izan ere, hango unibertsitate publiko askok ibilbide handia dute unibertsitate hedakuntza kritikoaren arloan, eta inspirazio iturria dira guretzat. Gainera, toki horiekin konektatzen gaituzten adiskidetasun sareak ditugu. Lehen aipatu dugun bezala, diagnostiko honen atzean dagoen proiektuan Latinoamerikako bi unibertsitatek parte hartzen dute (Udelar eta UNICAUCA). Haiekin batera, gure unibertsitateek gaur egun dituzten zenbait arazo identifikatu ditugu, eta unibertsitatearen funtzioak logika teknokratikoen arabera birkonfiguratzeko gertatzen ari den prozesuaren inguruko kezka partekatzen dugu. Izan ere, prozesu hori azken hamarkadetan bultzatu da, bai hemen eta bai han.

24 Europako lehen unibertsitatea Boloniako Unibertsitatea (Italia) izan zen, 1088an sortua. Hala ere, munduko unibertsitaterik zaharrena, UNESCOren arabera, Fez (Maroko) hirian kokatutako Al Qarawiyyin Unibertsitatea da, hura 859an eratu baitzen.

25 Unibertsitate hedakuntzak testuinguru bakoitzean izandako historia aztertzea ikerketa honen irismena gaituzten du; izan ere, logikoa denez historia hori desberdina izango da toki bakoitzean. Badirudi, nolahi ere, ezaugarri komun bat izan dela, funtzio hori Akademiatik gizartera ezagutza transferitzeko lanarekin lotu duena. Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanaren bertikaltasun hori da, besteak beste, unibertsitate hedakuntza kritikoaren kontzeptutik zalantzan jarri nahi dena.

26 ULEUri buruzko informazio gehiago: <https://sites.google.com/view/uleu/qui%C3%A9nes-somos>

27 +E: Revista de extensión universitaria aldizkariari buruzko informazio gehiago: <https://bibliotecavirtual.unl.edu.ar/publicaciones/index.php/Extension/issue/archive>

28 Unibertsitate hedakuntzako biblioteka Buenos Aireseko Erdialdeko Unibertsitate Nazionalak (UNICEN) bultzatzen du. Beren webguneko azalpenaren arabera, bibliotekak "Unibertsitate Hedakuntzari buruzko materiala biltzeko helburua du, horren lanketa kontzeptualetatik eta teorizaziotik hasi eta eginkizun horren eraikuntza historikoraino, bere alderdi guztietan".

29 CLEUei buruzko informazio gehiago: <https://www.uniquindio.edu.co/cleu2023/publicaciones/2176/antecedentes/>

Azkenik, beste toki batzuetan egindako narratibetara irekitzeak eurozentrismoari aurre egiten laguntzen digu eta Unibertsitatea pentsatzeko, sentitzeko eta bizitzeko beste modu batzuk ikasteko aukera ematen digu.

Latinoamerikan, aspaldi hazi ziren unibertsitate hedakuntzari eta haren kontzeptualizazioari buruz eztabaidatzen. Unibertsitate hedakuntzaren –bere alderdi kritiko eta sozialari dagokionez behintzat– genealogiaren une gogoangarrien artean, hainbatek Cordobako Unibertsitate Erreforma (Argentina) aipatzen dute³⁰. Horretan, ikasleen erreboltak “unibertsitate lanaren eta erantzukizun politikoaren, ekonomikoaren eta sozialaren ikuspegi sakonagoa” ematen lagundu zuen (Robles, 2020, or. 168). Beraz, ikasleen mugimenduak Argentinako unibertsitatearen erreforma sustatu zuen, eta horrek goimailako hezkuntzako erakundeek garatu beharreko misioan gizarte gaiak sartzea bultzatu zuen. Joera hura Latinoamerikako beste herrialde batera ere hedatu zuen eta, hala, “unibertsitate hezkuntzak gizartearen eta nazioen arazoak ikertzeko eta konpontzeko inplikatu beharra” zuelako ideia garatu zen, hau da, “gaur egun unibertsitate hedakuntza deitzen dena” (Acebedo, 2011, or. 11).

XX. mende hasieran, horrek Unibertsitatearen ordura arteko kontzepzioarekin haustea ekarri zuen; izan ere, Unibertsitatea elite jakin batzuentzako eta beren interesetarako gune pribilegiatua zen. Erreformari esker, Unibertsitatearen kontzepzioa aldatu zen, ikuspegi berri baten alde: “gizarte osoarekin konektatzeko, erantzuteko eta lan egiteko erantzukizuna duen eremu bat, gizartearen zailtasunak gainditzeko” (Robles, 2020, or. 169). Erakundearen eta haren misioaren birdefinizio horrek bere helburuak eta funtzioak birpentsatzeko aukera eman zuen; hau da, hezkuntza, ikerketa eta hedakuntza. Azken hura, hasiera-hasieratik izan da eztabaidagai, eta jarduera-eremu oso heterogeneoa ere, baina guk Humberto Tommasinoren eta Agustin Canoren proposamen eta kontzeptualizazio teoriko-praktikoarekin bat egiten dugu.

Tommasinok y Canok (2016) zenbait joera nagusi identifikatzen dituzte Latinoamerikako hedakuntza ereduetan, jarraian aipatuko ditugun irizpideen bitartez. Alde batetik, hedakuntzaren definizioa eta helburu etiko-politikoak, eta, bestetik, horretan parte hartzen duten subjektuen iritzia. Hala, bi joera bereizten dituzte, bata “difusionista–transferentzista”, eta bestea hedakuntzako, “hedakuntza kritikoa” deitzen diotena.

Haien ustez, Latinoamerikako unibertsitate gehienetan joera difusionista-transferentzista da nagusi, eta Unibertsitateak bere inguruan egiten dituen jarduera guztiak hartzen ditu. Planteamendu horretan, “hedakuntzaren zehaztasun kontzeptuala (identitatea) minimoa da edo ez dago horrelakorik, eta nagusi den kontzepzioak kultura-zabalkunde, zientzia-dibulgazio eta/edo transferentzia teknologiko gisa ikusten du hedakuntza” (Tommasino eta Cano, 2016, or. 12).

Joera difusionista-transferentzista horren esparruan hiru ikuspegi bereizten dira gaingiroki: ezagutzen transmisioko, kultura-dibulgazioko eta zerbitzu komunitarioko.

Ezagutzen transmisioko ikuspegia unibertsitate bikaintasuneko irizpideen arabera ekoiztiko ezagutzak zabaltzean zentratzen da. Hau da, ezagutza horiek “kalitatezkoak” direla bermatzen duten ezaugarri, adierazle eta estandarren arabera ekoizti dira. Hala, sozialki garrantzitsu gisa (edo ez) baloratzen dituen kodifikazio-sistema batetik igarotzen dira, horiek gizarteko hartzaile jakinetara helarazi ahal izateko. Horren bitartez, Unibertsitatearen ikuspegi ikasia, zientifikoa eta jakintzaren jabea erreproduzitzen da, zabaldu behar den ezagutza hautatzeko legitimatuta dagoena. Ikuspegi horren arabera, beraz, hedakuntza ezagutzaren hedapen bat da, eta ezagutzaren ekoizpenaren gailurrean Unibertsitatea dago (elite ikasiak elkartzeko gune gisa ulertuta). Aitzitik, oinarrian kanpoko gizarte-ingurua kokatzen du; izan ere, hark ez du ezagutzarik ekoizten (ez baitu jakintzarik edo kulturarik), baina bai har dezake. Ikuspegi horretan, bada, hezkuntzaren ikuspegi tradizionalista bat erreproduzitzen da, Paulo Freirek “banku hezkuntza” deitzen zuen hura, alegia.

30 Errebolta hori 1918an hasi zen Argentinako Córdoba hirian.

Gainera, ikuspegi horretan, unibertsitatearen eginkizunak deuseztatu egiten dira. Prestakuntza Unibertsitate barrura mugatzen da. Ikerketa ariketa bat da, non unibertsitateko eliteek errealitatea interpretatze duten, "metodologia zientifikotik" eta "begirada aditu" batetik. Eta hedakuntza, eginkizun marjinal gisa, aurreko funtzioetatik sortutako zenbait elementu erakundetik kanpo transmititzeko kanala da.

Bere aldetik, kultura dibulgazioko ikuspegia ekintza kulturalak sustatzera bideratzen da, ezagutzak transmititzeko estrategia gisa. Proposamen horrek, beraz, Unibertsitatean sortutako ezagutzak publiko orokorrari helarazi nahi dizkio, hainbat kultura diziplinaren bitartez. Horietan, ezagutzak dibulgazioko klabe batean itzultzen dira, xede-publikoak horiek eskuratu eta bereganatu ditzan errazteko helburuz.

Azkenik, zerbitzu komunitarioko ikuspegia³¹, atzean duen logikaren arabera, "gizarte erantzukizunaren" ideiarekin lotuta egon daiteke, edota "ikasketa-zerbitzua" bezalako beste proposamen batzuetara. Hala ere, ikuspegi horretan sartzen diren proposamenak ez dira gizarte eraldatzeko interes batetik abiatzen, gizarte ekarpeneko logika batetik baizik. Zentzu horretan, maiz, proposamen horiek ez dira Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko artikulazio prozesuen barruan kokatzen, baizik eta ekintza puntual eta mugatueta. Hala, unibertsitateko eragileek gizarte eremuetan parte hartzen badute ere, ez da eragin eraldatzaile bat sortzen.

Bigarren joera, ez hain hedatua, eraldatzeko helburua duen unibertsitate hedakuntza kritikoa da. Proposamen horretan, alderdi pedagogikoa da elementu nagusia eta bereizgarria, eta Paulo Freirek garatutako Herri Hezkuntzaren proposamenarekin bat egiten du. Freireren proposamenak, bada, subjektuen emantzipaziorako estrategia gisa ulertzen du hezkuntza, eta, ikuspegi horretan oinarrituta, hedakuntzak gizarte ahalduntzeko eta mobilizatzeko tresna izan nahi du.

Prozesu pedagogiko eraldatzaile bat abian jartzeko, hedakuntza prozesua zein horretan parte hartzen duten pertsonen rola (pertsona hedatzailearen rola) aztertze beharra zegoela azpimarratzen zuen Freirek berak. Hala, bi³² jarrera kontrajarri ikusten zituen:

- Hegemonikoa. Nagusi den sistema erreproduzitzen duen jarrera ("banku hezkuntzarena"). Horretan pertsona hedatzaileak botere-posizio pribilegiatua du (ezagutza du eta ezagutza ez duten horietara zabaltzen du). Jarrera hori bat dator eredu difusionista-transferentzistarekin.
- Kontrahegemonikoa. Nagusi den sistemaren logikak zalantzan jartzen eta eraldatzen dituen jarrera (hezkuntza askatzailearena). Harreman horizontala proposatzen du pertsona hedatzailearen eta hedakuntzako jardueran parte hartzen duten gainontzeko subjektuen artean. Jarrera horretan, pertsona hedatzaileak eginkizun demokratikoa du, bere pribilegio egoera onartzen du eta hori konpontzeko lan egiten du. Hala, pertsona subalternizatuen ezagutzak balioesten laguntzen du eta elkar ahalduntzeko parte hartzen du. Kasu honetan, hedakuntza kritikoa "komunikazio dialogikoko harreman gisa ulertzen da, eta, horretan, hezitzailea eta hezigaia [pertsona hedatzailea eta pertsona subalternizatuak] eraldatu egiten ditu praxiaren prozesuak" (Tommasino eta Cano, 2016, or. 15).

Jarrera desberdinen azterketa honetan, ekintza politiko gisa ulertzen da hezkuntza (Freire, 1967). Premisa horretan oinarrituta, hedakuntzak –hezkuntza prozesu gisa– eginkizun politiko-pedagogikoa du. Hedakuntzaren izaera politiko ulertzea funtsezkoa da; izan ere, "neutraltasun, unibertsaltasun eta objektibitate asmoak kolonialismoaren eta kolonialtasunaren eragin sakona dute" (Ochoa eta Saravia, 2023, or. 389). Hau da, itxurazko neutraltasun horrek subjektuak, ezagutzak eta praktikak lehenesteko,

31 Zerbitzu komunitarioaren esparruko proposamen batzuek eraldatzeko interesa dute, baina ez ditugu kontuan hartu ikuspegi desberdinak argi bereizteko helburuz.

32 Hezitzaileen eta hezigiainen arteko harremanean pentsatzean, Freirek hiru jarrera bereizten ditu, baina, esparru teorikoa errazte aldera, bi jarrera antagoniko landu ditugu.

homogeneizatzeko eta unibertsalizatzeko prozesu bat ezkututzen du, Modernitatearen proiektuaren bereizgarria dena. Beraz, hainbat korrante dekolonialek proiektu hura salatu dute; izan ere, horrek dakar, besteak beste, "bere baitan itxitako unibertsitatea izatea, bere interes esparrutik kanpo utzi duen horrekin hitz egiteko kanalak sustatu ez dituen". Hala ere, "unibertsitatea hedakuntza kritikotik eta proposamen eraldatzaileetatik pentsatzen dugunean, haren jarduteko eta hausnartzeko programa politikoaren eta epistemikoaren abiapuntu garrantzitsu gisa agertzen da elkarrizketa" (Ochoa eta Saravia, 2023, or. 390).

Tommasinoren eta Canoren arabera, hedakuntza kritikoren eredu "Latinoamerikako emantzipazio prozesuei zor die nolabait [...] herri hezkuntzaren mugimenduaren tradizio pedagogikoko elementuak artikulatzen ditu (Freireren alderdian), lehen azaldu dugun bezala, baina "ikerketak-ekintza parte-hartzailearen" proposamenaren elementu giltzarriak ere sartzen ditu (Fals Bordaren tradizioan)" (Tommasino eta Cano, 2016, or. 12).

Ikerketa-ekintza parte-hartzailearen (aurrerantzean IEPH) proposamenak "fenomeno sozialak berriz ulertzea eta horietan eragitea" ahalbidetu zuen (Robles, 2020, or. 170), eta hedakuntza kritikoa aplikatzeko moduko hiru kontu eraldatzaile eman ditu, gutxienez. Alde batetik, harreman berri bat proposatu zuen akademiaren eta gizartearen artean; eta, hala, subjektu ikertzailearen (Akademiaren ordezkaria) eta ikertuaren (tartean sartutako gizarte subjektuak) arteko dikotomia hierarkizatua hautsi zuen³³. Beste alde batetik, eta aurreko ideiarekin lotuta, ikerketan parte hartzen duten subjektu guztien arteko elkarrizketan sortzen den prozesu gisa aurkeztu zuen ezagutzaren ekoizpena (eta subjektu ikertzailea eragile neutrala eta errealtatea objektiboki aztertze eta konponbide teknikoak proposatzeko gai delako ideiarekin hautsi zuen). Azkenik, ezagutzaren ekoizpen prozesuan teoria eta praktikak modu zatiezinean artikulatzen direla adierazi zuen. Kontzeptzio horren arabera, ikerketa errealtatea eraldatzeko prozesuaren parte da.

Hasiera-hasieratik, unibertsitate hedakuntza kritikoren funtsezko interes bat izan da Unibertsitatea gizarte problematikan dihardun eragile aktibo gisa posizionatzea. Hala ere, herri hezkuntzaren eta IEPHaren joeretatik etorritako prozesuek eta proposamenek funts teorikoa eman zioten unibertsitate hedakuntza kritikoren ereduari. Horrela, lurraldeko problematikak unibertsitatearen agendan sartzeko estrategiak ehuntzeko aukera eman zuten, batez ere, zaugarritasun egoeran dauden herritarren beharrei dagokienez, "haiekin lan eginez, beren baldintzak eta zailtasun nagusiak eraldatzeko alternatibak sortu ahal izateko" (Robles, 2020, or. 177).

Unibertsitate hedakuntza kritikoren proposamenak lurraldearen beharretara bideratzen du bere jardura, eta, batez ere, zaugarritasun egoeran daudenen beharretara. Baina unibertsitate hedakuntza kritikoa, lurraldearen problematikez gain, Unibertsitatea bera eraldatzeko duen ahalmena azpimarratzen dute Tommasinok eta Canok (2016). Haien ustez, hedakuntza kritikoa "Unibertsitatea egiteko modu hegemonikoei aurre egiteko gai diren proiektu politiko-akademikoak artikulatzeko aukera eman du, irakaskuntza prozesuak eta ezagutzaren ekoizpena nazioko arazo handiekin eta gizarteko sektore herrikoen beharrek lotu bitartez" (2016, or. 8).

Hala, unibertsitate hedakuntza kritikoa bi erronka planteatzen ditu: alde batetik, Unibertsitatea, bere zentzu politikoa eta misio soziala (bir)pentsatzea, erakunde hori eragile eraldatzaile gisa posizionatzeko, eta, bestetik, bere jardunbidea aldatzea, eraldaketa misioa bete ahal izateko.

Unibertsitatea (bir)pentsatzeko beharrezkoak dira unibertsitate hedakuntzak errazten dituen hausnarketa eta autokritika. Horiek beren praktikak, ikuspegiak eta harremanak zalantzan jartzeko eta ebaluatzeko aukera ematen diete tartean dauden subjektuei, ezagutza sortzeko eta aplikatzeko prozesuan.

33 Freirek hezitzailearen eta hezigaiaren arteko harremanarekin egiten zuen bezala.

Unibertsitatea gizarte eraldaketaren eragile gisa posizionatzeak, halaber, hura "gizarte nortasunean nahasitako funtsezko elementu gisa" ulertzea eskatzen du, hau da, "bere funtsezko eginkizunak garatzeko, behar kolektiboak lehenesten dituen erakunde gisa" (Robles, 2020, or. 177). Bere misioari forma ematea, gizartearen eraldaketa sustatzera bideratutako behar eta interes kolektiboak asetzeko interes batetik, eta planetako izaki bizidun guztientzako eredu bizigarrien, bidezkoen eta iraunkorren alde. Prozesu horrek, gainera, Unibertsitatearen –kasu honetan unibertsitate publikoa– eginkizuna legitimatzen eta finkatzen laguntzen du, logika merkantilisten aurrean "komuna den hori" zaintzeko garrantzitsua den ondasun komun gisa.

Gaur egun, Unibertsitatea konpartimentuetan zatitutako funtzioen bitartez antolatzen da. Tommasinok eta Canok "integratu gabeko artikulazio sekuentziala" deitzen diote horri. Osaera horretan, Unibertsitatearen eginkizun nagusizat hartzen da hezkuntza –curriculum itxi eta akreditatu baten hezkuntza prozesu gisa–. Bertan, ikasleek esperientzia zehatzak egin ditzakete hedakuntzan (maiz hautazko praktiken bitartez) edo ikerketan (gero eta gehiago graduondoko ikasketetara mugatzen diren praktikak). Logika horren arabera, ikerketako eta hedakuntzako eginkizunak "ez dira hezkuntza prozesuaren parte gisa integratzen, ezta irakaskuntzako plangintza pedagogiko baten parte gisa ere [...], aldi berean, gizarte eragileak hezkuntza prozesutik kanpo uzten dira" (Tommasino eta Cano, 2016, or. 17).

Unibertsitatea eraldatzeko gakoetako bat "funtzioen integritasuna" delakoa da:

"Proposamen horrek unibertsitate eredu bat gainditu nahi du; hain zuzen ere, irakaskuntzako, edo ikerketa gutxi batzuentzat mugatzen duena, edo hedakuntza bigarren mailako eginkizunetat hartzen duena [...] Proposamenak irudikatzen duen unibertsitatean hiru eginkizunek elkarri eragiten diote, eta, lurraldeekin batera, ikertu, irakatsi eta komunikatu behar den hori zehazteko baterako moduak eta estrategiak sortzen dituzte. Hedakuntza kritikoaren bitartez, unibertsitatea bir-pentsatzen, ber-erakitzen eta ber-imajinatzen da, harreman berri baten emaitza gisa. Harreman berri horrek, bada, gorputzekiko, lurraldeekiko eta beren ezagutzekiko harreman estraktiboak gainditzen ditu, hau da, ibilbide indibidualak sustatzen dituen banku irakaskuntza eta ikerketa-akademizismoa" (Ochoa eta Saravia, 2023, or. 397).

Unibertsitatearen eta inguruaren arteko harreman berri horretarantz ibiltzeko, unibertsitateaz kanpoko subjektuengandik eta prozesuetatik sortzen diren jakintzak eta ezagutzak aintzat hartu beharra dago. Batez ere, eremu akademikoan ezikusiak eta baztertuak izan ohi diren talde horien jakintzei buruz ari gara. Azken batean, kultura arteko elkarrizketa eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboa sustatu behar dira. Gaur egun ere, María Paula Menesesek (2021) gogorarazten digun bezala, "mundu guztiak ezagutza ekoizten duela ulertzea erronka garrantzitsua da". Hortaz, ezinbestekoak dira "elkarrizketa, bizikidetzeta eta entzute sakona, eta, batez ere aukerak partekatzea, eta arazoak konpontzeko baliagarria den ezagutza artikulatzea"³⁴.

Idea horrekin bat, "unibertsitate hedakuntza kritikoa gizarte eraldaketako alternatiba gisa sortzen da, oso dialogikoa dena eta jakintzak partekatzean oinarritzen dena, baina eragin politiko argia duena" (Robles, 2020, or. 172). Ikuspegi dekolonial batetik, Karina Ochoak eta Pablo Saraviak (2023) adierazten dute, jakintzak partekatze horretan, "Unibertsitatea birformulatzeko borroka epistemeen eta zentzu-horizonteen aniztasuna ekarri behar duela, eremu pribilegiatu horretan elkarrizketan jar daitezen" (2020, or. 398).

34 María Paula Meneses: «Geure burua ezagutzen eta besteen jakintzak aitortzeko bideak bilatzen berrikasi behar dugu». Campusa. Euskal Herriko Unibertsitateko aldizkaria (2024ko ekainaren 12an kontsultatua). Hemen: <https://www.ehu.es/eu/web/campusa/-/mar%C3%ADa-paula-meneses-geure-burua-ezagutzen-berrikasi-behar-dugu>

Ikuspegi horren arabera, pentsamendu kritikoko, sormeneko eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboko prozesuak abian jarri behar ditu hedakuntzak, subjektuak ahalduzera bideratuta. Hala ere, ezagutzaren eraikuntza kolektiboa bakarrik izango da posible Unibertsitatearen komunikazio-formula “kriptikoak/ itxiak” gainditzea lortzen bada, eta benetako elkarrizketa sortzeko aukera ematen duten komunikazio-moduak ezartzeko prozesuan aurrera egiten badugu. Horietan, subjektuek beren jakintzak eman ditzakete, eta aintzat hartzen da haien legitimitatea eta “beren errealitatea interpretatzeko esparruak pentsatzeko eta komunikatzeko” gaitasuna” (Ochoa eta Saravia, 2023, or. 398).

11. taula. Zer da hedakuntza kritikoa eta nola garatzen da. Hedakuntza Sareak egindako jardueretan sortutako erantzunak

Zer da hedakuntza?
<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza prozesu eraldatzaile bat da, non ez dauden hezitzailearen eta hezigaiaren rol estereotipatuak, non guztiek irakas eta ikas dezaketen. Hala ere, irakasleek eta ikasleek parte hartzen duten hedakuntzako prozesuetan, irakaslearen eginkizuna etengabe orientatzekoa izan behar da. • Ezagutza berria ekoizten laguntzen duen prozesua da, jakintza akademikoa jakintza herritarrekin lotzen duena. • Elkarte eta talde moduak sustatzen dituen prozesua da, gizarte mailako problematikak konpontzen laguntzeko. • Ikerketa ildoak eta hezkuntza planak orientatzeko aukera ematen duen eginkizuna da. Unibertsitateak gizartearekin eta bere arazoaren konponketarekin konprometitzea eragiten du. • Bere alderdi pedagogikoan ikasketa integraleko eta humanizatzailako metodologia bat da. Hedakuntza eta ikerketa unibertsitate irakaskuntzako metodologiaren parte izan beharko liriteke. Horrek integrala egingo luke hezkuntza prozesua, gizarte errealitatearekin harreman zuzena ezarri; eta hortaz, humanizatzaila.
Nola gauzatzen da hedakuntza?
<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte eta unibertsitate eragileen partaidetzaren eta inplikazioaren bitartez, plangintza, egikaritze eta ebaluazio etapetan. • Komunikazio dialogikoko prozesuak sortuz. • Diziplinarteko lanketak eginez. • Tartean dauden gizarte eragileen denborak aintzat hartuz.

Iturria: Errepublikako Unibertsitateko Errektoretza, 2010.

Aztertutako unibertsitateetan unibertsitate hedakuntza kritikoa bultzatzeko estrategiak

Kontuan hartuta unibertsitate hedakuntza kritikoren proposamena, zortzi unibertsitate publikotako unibertsitate hedakuntza kritikori buruzko ikerketa eta online saioko parte-hartzaileek egindako ekarpenak, jarraian, unibertsitate hedakuntza ikuspegi kritiko batetik sustatzeko zazpi estrategia aipatuko ditugu.

1. Unibertsitate eginkizun horri zentzua ematea

Jasotako informazioak eginkizun horren esanahiaren inguruan adostasunik ez dagoela erakusten du. Zentzu horretan, ezinbestekoa da unibertsitate komunitatearen barruan hausnarketa bat sustatzea, unibertsitate hedakuntza kritikoari zentzua emateko; hau da, bere helburuak eta bere garapena orientatu behar duten printzipioak ezartzeko.

Eztabaida hori partizipatiboa dela bermatzeko, aldez aurretik komunikazio-prozesu bat egin beharra dagoela uste dugu, unibertsitate hedakuntza definitzearen garrantzia azaltzeko (dauden ikuspegiak eta horien ondorioak ezagutzera emanez). Horretarako, elkarrizketa horretara erakarri behar ditugu unibertsitate komunitateko subjektuak (irakasle eta ikertzaileak, ikasleak, TEKAZELak, erakundeak, Unibertsitatearekin lotutako gizarte kolektiboak eta horretan diharduten beste eragile sozial eta ekonomiko batzuk), baita unibertsitateaz kanpoko beste eragile batzuk ere, gizarte eraldaketako garrantzitsuak direnak.

Aipatu beharra dago, proposatzen dugun hausnarketa horren atzean, Unibertsitate publikoaren misioari, ikuspegiari eta balioei buruzko eztabaida politiko bat dagoela. Eztabaidatu beharko dugu ea Unibertsitateak kapitalaren interesei erantzun behar dien ala, alderantziz, goi-mailako hezkuntzaren joerari aurre egin behar dion. Izan ere, joera horren helburua da "pertsone oso isolatuak, oso kualifikatuak eta espezializatuak sustatzea, ekoizpen-modu kapitalistaren eskakizunei erantzuteko, baina eredu horrek ezartzen duen murrizketaren aurrean errebelatzeko gai ez direnak, horri buruz hausnartzeko eta, are gutxiago, hura zalantzan jartzeko ezgaituak izan direlako" (Celorio, 2024, or. 32).

Kritikoa den unibertsitate hedakuntza bat ezartzea erabakitzen bada, hainbat konturen ondorioetan ere pentsatu beharra dago:

"efizientzian oinarritutako enpresa-kudeaketako ereduak hartzea; kapital pribatua erakartzea segurtasun ekonomikoko estrategia gisa; curriculum merkatuaren beharretara egokitutako konpetentzietan oinarrituta antolatzea; prozesu guztiak digitalizatzea estrategia berritzaile gisa, aurrez aurre bakarrik egin daitezkeen prozesu pedagogikoak alde batera utzita; unibertsitateko langileak prekarizatzea; Unibertsitaterako sarbidea elitizatzea (batez ere graduondokoko ikasketetan) eta ikerketa-ildoak motibazio ekonomikoen arabera ezartzea" (Celorio, 2024, or. 32).

Joera horren arabera, Unibertsitatea bere osotasunean pentsatu behar dugu; eta, hausnarketa horren parte gisa, aztertu behar dugu erakundeak zer beharri erantzuten dion eta zer neurritan erreparatzen dien lurraldeko beharrei.

Zera galdetu behar diogu gure buruari: nondik pentsatzen ditugu akademiaren beharrak eta testuinguruaren beharrak, zer sektoretatik (1. taldea. Kontrastatzeko online saioa).

Komunitateekin harremanak ezartzea falta da. Komunitateetako proiektuak hausnartzeko denbora ez dator bat [unibertsitate] sistemaren denborekin. Proiektuen iraunkortasuna sustatu behar da, gobernu aldaketen aurrean, lurraldean lan iraunkorra egon dadin, eta, hortaz, unibertsitateko denborak gizarte eragileen denboretara moldatu behar ditugu (2. taldea. Kontrastatzeko online saioa).

Unibertsitatean ez dago aniztasunik bertan egiten denari buruzko erabakiei dagokionez, ezta Unibertsitateetik egiten diren ekintzen antolakuntzari dagokionez ere (bakarrik irakasle eta ikertzaileak, zuriak, mendebaldekoak, klase ertain-altukoak...) (3. taldea. Kontrastatzeko online saioa).

Politika neoliberalekin lotutako elementu horiei aurre egiteko beste Unibertsitate eredu bat sustatu beharra dago. Hain zuzen, pentsamendu kritikoa sortzen duena, aniztasunera irekia, lurraldearekin eta bere beharrekin konprometitua, parte hartzekoa eta gizarte mobilizazioaren dinamizatzailea. Unibertsitate erakundearen orientazio horren bitartez bakarrik eman ahal izango zaio zentzu kritikoa unibertsitate hedakuntzako proposamen propio bati.

Gure unibertsitateetatik unibertsitate hedakuntza kritikoa (bir)pentsatzeko orduan, interesgarria izan daiteke haren jatorria gogoratzea (Espainiako Estatuan zein Latinoamerikan), baita beste unibertsitate batzuetako esperientzietatik ikastea ere. Hain zuzen ere, unibertsitateetako eragilean eta unibertsitateaz kanpoko eragilean arteko elkarlanak lurraldean (kanpo-aldaketak) eta erakundeetan bertan (barne-aldaketak) modu positiboan eragin duen esperientzia horiez ari gara.

Hausnarketa prozesuak terminologiaren gaia lantzea eskatuko du, hura gure testuinguruetara moldatuz eta jakinda kontzeptu bat aukeratzean proposamen politiko jakin baten alde egiten ari garela. Azken finean, kontzeptuak ez dira estankoak eta/edo unibertsalak, eta ez dira beren zentzu etimologikora edo semantikora mugatzen. Aitzitik, bizirik daude eta (ber)eraikitzen dira, moldatzen dira eta testuinguru historiko, politiko eta kultural jakin bakoitzera egokitzen dira (Buenfil, 1994, hemen aipatuta: Tommasino eta Calvo, 2016).

Tommasino eta Canoren esanetan, “unibertsitate hedakuntza (dela beste esanahi bat eman nahi zaiolako, dela beste termino batekin ordezkatzeko proposatzen delako) eztabaidan dagoen adierazlea da” (2016, or. 9). Terminoz birjabetzea eta esanahi berri bat ematea aukera bat da zentzu horretan; izan ere, “unibertsitate hedakuntza deitutako eremua, feminismoak bezalaxe, borroka material eta sinbolikoko prozesuen menpe dago” (Ciriza, 2023, or. 308).

2. Unibertsitate hedakuntza kritikoa balioa aintzat hartzea

Unibertsitate hedakuntza kritikoa proposamenaren balioa aintzat hartzeko pentsatu behar dugu zer den estrategikoa Unibertsitatearentzat eta zer erabaki hartu behar diren hori lortzeko. Hala, Unibertsitate eraldatzaile batek markatutako helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira.

Zer unibertsitate eraiki nahi dugun eta eginkizun bakoitzari zer zentzu eman nahi diogun pentsatzeko ariketa egin dugunean, seguruenik, unibertsitate hedakuntzak gizarte problematikei erantzuteko eta zaugarritasun egoeran dauden kolektiboetara heltzeko duen potentzialari buruz hausnartuko genuen.

Hain zuzen ere, unibertsitate hedakuntza kritikoa balioa aintzat hartzeko, besteak beste, aintzatespen akademikoko beste sistema bat sustatu beharra dago; hain zuzen ere, unibertsitateko subjektu nagusiek (irakasle eta ikertzaileek, ikasleek eta TEKAZELEk) egiten duten lana aintzat hartzen duena, horiek hedakuntzako jarduerak egiten dituztenean (lurraldeko premia eta problematika horiek lantzeko).

Irakasleek denbora izan behar dute eta motibatuta egon gizartearekiko elkarrizketa-lan horren interesa ikusteko. Ikerketa, irakaskuntza eta hedakuntza elkarri lotuta ulertu behar dira (4. taldea. Kontrastatzeko online saioa).

Unibertsitate hedakuntza kritikoa balioa aintzat hartzeko eta unibertsitateko sistema meritokratikora eramateko lanean ezinbestekoa da jarduera akademikoa arautzen eta akreditatzen duten irizpideak birformulatzea. Izan ere, gaur egun, horrek ez du Unibertsitatearen eta beste kolektibo batzuen – esate baterako, gizarte kolektiboan– arteko artikulazioa errazten. Hain zuzen, diagnostiko honetan kontsultatutako hainbat pertsonak adierazi zuten unibertsitateetik gizarte subjektu eraldatzaile jakin

batzuekin lan egiteko zailtasunak daudela. Hori da, izan ere, gizarte mugimenduen kasua. Aitzitik, enpresa kapitalistarekin artikulazioak sortzea erraza izaten da (ikus Subjektuak atala).

Beraz, ezinbestekoa da gizarte eragile eraldatzaileekin aliantzak ehuntzearen balio erantsia aintzat hartzen duten formula akademikoetarantz ibiltzea; haiekin ezagutza-ekintza sortzeko prozesuak egin ahal izateko, ikerketa-ekintza parte-hartzaileak proposatzen dituen horiek bezalakoak.

Beraz, estrategikoa da ikerketaren ebaluazio-irizpideak aldatzea, jarduera horiek aintzat hartzeko beste modu batzuetarantz ibiltzeko³⁵: moduak eta formatuak berrikustea, baita praktikak eta inpaktuak ere. Azken batean, beste forma irekiago, anitzago eta diziplinarteko batzuen alde egitea, horiek hobeto osatzen baitute unibertsitate hedakuntza kritikoaaren proposamena. Ikerketa mota horrek – hau da, ezagutzen elkarrizketako ikuspegi batetik planteatzen dena eta kontzientziarioa sustatzeko estrategia gisa pentsatuta dagoena– argi laguntzen du Unibertsitate etikoa, konprometitu, irekia eta anitza eraikitzen, baldin eta unibertsitatearen gainontzeko eginkizunekin (irakaskuntza eta ikerketa) artikulatzen bada.

3. Plan estrategiko espezifiko izatea

Unibertsitate hedakuntza kritikoa bultzatzea erabakitzen badugu, komeni da haren instituzionalizazioa ahalbidetuko duen plan estrategikoa izatea. Plan horrek unibertsitate hedakuntzaren zentzua zehaztuko duen esparru teoriko bat eduki beharko du. Halaber, helburuak, espero diren aldaketak, jardueraildoak, dauden baliabideak eta erantzukizunak ere jaso beharko ditu.

Plan estrategikoa ondo diseinatzeko funtsezko elementu bat izan daiteke hasierako testuingurua identifikatzen duen diagnostiko partizipatibo bat izatea. Hau da, kontuan hartzen dituen Unibertsitatearen testuinguru zehatza eta abian dauden unibertsitate hedakuntzako esperientziak ere (hala nola IEPH prozesuak, gizarte eragina duten katedrak, Zientzia Irekiko esperientziak, etab.). Halaber, lurraldearen ezaugarriak eta bertan ematen diren eskakizun sozialak ere kontuan hartu beharko ditu. Izan ere, Unibertsitate hedakuntza kritikoa definitu ahal izateko behar ditugun sargaiak emango lituzke horrelako diagnostiko batek.

Behin plan estrategikoa zehaztuta, sozializazio prozesu bat burutu behar da. Horren bitartez, plana bere egingo dute bai unibertsitate komunitateko kideek eta bai planak interpelatzeko ahal dituen beste subjektu batzuek ere. Gainera, planak berak intereseko kolektiboaren parte hartzea eta artikulazioa sustatu behar du, horiek unibertsitate eremukoak izan edo ez.

Unibertsitate hedakuntza kritikoa funtsezko planteamenduetako bat Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko elkarrizketa prozesu bat sustatzea da, gizarte eraldaketarako ezagutza-ekintza sortuko duena. Hori kontuan hartuta, plan estrategikoak, bere inplementazioan zehar elkarrizketa eremuak sortzea ahalbidetzen duten formulak hartu beharko ditu.

Nire ustez hori da funtsezko erroka. Izan ere, proposamen edo prozesu horien arrakasta, maiz, "nola"-rekin dute zerikusia; nola hurbiltzen garen gizartera (3. elkarrizketa).

Unibertsitateko eta beste esparru batzuetako subjektuen arteko elkarrizketa-eremu horiek zabaltzea, bada, unibertsitate hedakuntza kritikoko planaren garapenean zehar abiatuko diren jarduerak zeintzuk

35 CoARA (Coalition for Advancing Research Assessments) ekimena, adibidez, koalizio global bat da. Hala, haren helburua da ikerketaren, ikertzaileen eta ikerketa erakundearen ebaluazio-sistemak aintzat hartzea ikerketaren kalitatea eta eragina maximizatzen dituzten emaitzak, jardunbideak eta jarduerak. Informazio gehiago, hemen: <https://coara.eu/>

diren argi zehaztea baino garrantzitsuagoa da. Izan ere, horiek askotarikoak badira ere, helburu askatzaile bera izango dute:

“Haren forma guztiek eskaintzen dituzte, neurri handiagoan edo txikiagoan, hedakuntzaren ideia definitzailea lantzeko aukerak. Hau da, unibertsitateko eragileen eta beste eragile batzuen lankidetzat bilatzea, berdintasunez, hitz eginez eta beren jakintzak partekatuz, sozialki baliagarriak diren helburuen zerbitzura” (Errepublikako Unibertsitateko Errektoretza, 2010, or. 15).

Garrantzitsua da plan estrategikoak jarraipena egiteko formulak izatea, hausnarketa etengabeko prozesu bat abian jartzen laguntzeko. Horrela, inplementazioan zehar sortzen diren hobetzeko kontuak sartzeko maniobra marjina izango du planak. Gainera, funtsezkoa da lortutako eragina neurtzeko eta baloratzeko ebaluazio-metodoak izatea, tartean dauden subjektuen parte-hartzearen bitartez. Izan ere, ebaluazioa funtsezko une bat da planaren bizi-zikloa ixteko eta berri bat hartzeko oinarriak prestatzeko.

16. grafikoa. Plan estrategikoaren bizi-zikloa



Plan estrategiko bat edukitzeak berekin dakar unibertsitate hedakuntza kritikoa apustu politiko instituzional sendo eta formal bihurtzea. Apustu horrek, bada, erakundearenak balira bezala hartuko ditu unibertsitate hedakuntza kritikoa esparruan abiatutako ekimenak, eta horien iraunkortasuna handituko du (ez baititu horiek pertsona jakin batzuen lan boluntarioaren menpe uzten), eta menpekotasun politikoa ere murriztuko du (Unibertsitateko gobernu organoetan eta beste instantzia handiagoetan gerta daitezkeen aldaketen aurrean).

4. Funtzioen integritasunerako bidean aurrera egitea: irakaskuntzaren, ikerketaren eta hedakuntzaren arteko artikulazioa

Unibertsitate hedakuntza kritikoko plan estrategikoak ezin ditu modu isolatuan ulertu unibertsitatearen gainontzeko eginkizunak (irakaskuntza eta ikerketa). Aitzitik, horiek egituratzeko mekanismo bat izan behar da.

Integraltasunaren proposamenaren helburua da unibertsitatearen funtzioak (irakaskuntza, ikerketa eta hedakuntza) modu artikulatuan ulertzea eta garatzea. Hedakuntzak –bere zentzu kritikoan eta dialogikoan– irakaskuntza eta ikerketa birdimentsionatzen laguntzen du, eta lurraldeko problematikei erantzutera bideratzen ditu. Planteamendu horretatik, hezkuntza-prozesua ikasgeletatik haratago zabaltzen da, konplexuago egiten da eta eraldatzaileagoa da horretan parte hartzen duten subjektuentzat (unibertsitate eta gizarte arlokoak). Ikerketa-jarduerari dagokionez, ikuspegi honek bere zentzua aldatzeko jarrera argia du, testuinguruko eta subjektuen problematikei eta beharrei erantzuteko. Logika horretatik, oro har, unibertsitate hedakuntzak Unibertsitatearen eginkizuna berrorientatzen laguntzen du.

Eginkizunen integraltasun horretarako bidean aurrera egiteko, curriculumean hedakuntza sartzeko prozesu bat abian jarri beharra dago:

“Praktika horiek curriculumean sartuko dituen egitura bat eraikitzekeo ideia nagusia da zerbitzuek gaur egun duten egoeratik abiatzea, eta eginkizunen eta diziplinarteko prestakuntzen arteko artikulazio handiagoa duten egoeretarantz ibiltzea” (Errepublikako Unibertsitateko Errektoretza, 2010, or. 18).

Erakunde bakoitzak formularik egokienak bilatu behar ditu –bere gaitasunen eta beharren arabera– funtzio hori unibertsitateko curriculumean integratzeko eta funtzioen arteko artikulazioa sustatzeko. Lehen azaldu dugun bezala, aztertutako unibertsitateen hedakuntza egiturak oso desberdinak dira (ikus Organismoak atala). Zentzu horretan, unibertsitate bakoitzak estrategiarik egokiena aukeratu beharko du eta hura egiturara eramateko modua zehaztu beharko du. Bada, erabaki beharko du unibertsitate hedakuntza kritikoko organo espezifikorik izango duen eta hura organigraman non kokatuko den... Hala ere, genero ikuspegia eta ikuspegi feminista txertatzeko prozesuen esperientziak erakusten digu interesgarria izan daitekeela funtzio hori orientatuko duen organo espezializatu bat eta hura zeharkakotzeko eta bere egiteko estrategia bat uztartzea.

Unibertsitate hedakuntza kritikoak, barne (logika akademikoak) eta kanpo (inguruarekin artikulatzeko moduak) erreformako prozesu bat proposatzen duen neurrian, barne eta kanpo politiken koherentzia gidatutako birkonfigurazio prozesu bat eskatzen du. Koherentzia hura unibertsitateko eremu guztietan aplikatu beharra dago, baita enpresekin eta erakundeekin aliantzak egitean edo hornitzaileak kontratatzean ere, besteak beste.

5. Subjektu eraldatzaileekiko artikulazioa sustatzea

Hedakuntzaren subjektuen azterketan ikusten den bezala (ikus Subjektuak atala), hezkuntza merkantilizatzeko joera bat dago. Hark Unibertsitatearen eta enpresa kapitalistaren arteko harremanak estutu nahi ditu, beste subjektu batzuekin ez bezala. Antza denez, Unibertsitateak, gizartea aipatzen duenean, enpresa sektorean pentsatzen du:

“Gizartea kontzeptuaren erabileran eta abusan ikusten da, oro har, unibertsitate publikoetan [...] enpresaren logikak sartzen ari direla pixkanaka. Eta ez bazaio gogoz aurre egiten, logika horrek ikasgeletan lantzen diren edukiak edo lehenetsi behar diren ikerketa-ildoak erabakiko ditu” (UKS, 2019, or. 28).

Hura da unibertsitatearen bilakaeraren inguruan kezka eragiten duten kontuetako bat, eta hala adierazten dute kontrastatzeko saioan parte hartu zuten zenbait lagunek.

Unibertsitateak ulertu behar du gizartea ez dela enpresa, ezta enpresa mundua ere. Unibertsitatea elite jakin batzuen ikerketarako eta onurarako gordailu gisa kokatzen da (4. taldea. Kontrastatzeko online saioa).

Ez da hain garrantzitsua norekin, hau da, zer eragilerekin ezartzen diren harremanak, baizik era nola eta zertarako. Adibidez, ez dira nahastu behar harremana eta pribatizazioa (adibidez, enpresek zuzendutako katedrak). Bada, enpresek ezin dute erakunde publikoa bereganatu, eta tamaina desberdineko enpresen artean ere bereizi behar dugu. Gaur egun, enpresak ez dira inplikatzeko ez badute itzulkin kuantifikagarririk lortzen. (2. taldea. Kontrastatzeko online saioa).

Unibertsitateetik kanpo dagoen beste adiskide baten esanetan, distantzia handiagoa dago gizarte zibilarekiko. Zenbakiak, datuak eta emaitzak dira kezka nagusia. Hala, ikasleen ikasketa soziala galdu edo murriztu da, beren kezka nagusia notak baitira. Ikasleek pentsatzeko eta mundu hobea baten alde borrokatzeko motibazio gutxi dute [...] Ez da hainbeste inporta munduan gertatzen dena, gehiago urruntzen gara. Aurrera egiten dute enpresek, inposizio instituzionalek (1. taldea. Kontrastatzeko online saioa).

Puntu horretan, funtsezkoa da Unibertsitatearen eta beste subjektu batzuen arteko harremana zabaltzea, enpresa kapitalistaz harago. Hala, unibertsitate hedakuntza kritikoren proposamenetik, honako bi kontu hauetan aurreratu beharko genuke. Alde batetik, Unibertsitatearen ikuspegi utilitarista gaudituz beharko genuke (unibertsitatea enpresentzako zerbitzuen hornitzaile gisa, merkaturako baliagarriak diren berrikuntza teknologikoen sustatzaile gisa, enpresentzako langile kualifikatuen hornitzaile gisa...), eta hura gizarte eraldaketako prozesuak bultzatzen dituen eragile gisa posizionatu beharko genuke. Bestetik, gizarte ordezkatzeko duten subjektuen eta kolektiboen multzoa identifikatu beharko genuke (enpresez harago), estrategikoak diren horiek aukeratu beharko genituzke, beren emantzipazio ahalmenaren arabera, eta Unibertsitateak haiekin elkarrizketa horizontaleko harreman bat ezartzeko formulak zehaztu beharko genituzke. Horrek gizarteari berari buruz hausnartzea eskatzen du, baita unibertsitateek hartu behar duten orientazioari buruz ere:

“Unibertsitateak hemen duen eginkizunari eta gizartearekin duen harremanari buruz hitz egiteko, beharrezkoa da: alde batetik, gure gizarteak nolakoak diren pentsatzea, zer premia dituzten, zeren menpe dauden, norantz joan behar duten, zeintzuk dira egin beharreko eraldaketa estrukturalak eta politikoak; eta, bestetik, gizarte horietan dauden unibertsitateek zer eman dezaketen eraldaketa eta aurrerapen horretarako” (Carlevaro, 1986, hemen aipatua: Ibarzabal eta Tommasino, 2023, or. 7).

Gizartearekin ezartzen den harremana, bada, bertikala da (unibertsitatea ezagutzaren igorlea da eta gizarte hartzailea), horizontala baino gehiago. Zentzu horretan, unibertsitate hedakuntza kritikoa bat bultzatzeko eta subjektu eraldatzaileekiko artikulazioa sustatzeko, beharrezkoa da ikuspegi hori gauditzea eta jakintzen elkarrizketa bat irekitzea, harreman horizontal batetik, gizarte eraldaketarako garrantzitsua den ezagutza-ekintza elkarrekin eraikitzeko. Isabel Rauber-en esanetan:

“ezagutzen elkarrizketa ez da “herritarren” eta “jakintsuen” artean, “astakiloen” eta “adimentsuen” artean; baizik eta esperientzia jakinetan eta teoriaren potentzialtasunean sortzen diren jakintza desberdinen artean. Dimensio bi horien artikulazioan eta fusioan oso ezagutza aberatsa sortzen da” (Rauber, 2023, or. 15).

Jakintzen elkarrizketa hori sustatzeko zehaztu behar dugu zeintzuk diren eraldaketa ahalmen hori duten subjektuak. Idazleak berak azpimarratu egiten du Unibertsitatearen eta gizarte eragileen artikulazioaren interesa, subjektu horiek funtsezkoak baitira aldaketa lortzeko:

“alternatibak gizarte mugimenduetan daude, ez unibertsitateetan. Beraz, unibertsitatearen zeregin nagusia bere logikatik irtetea eta mugimenduen esperientzia kolektiboekin artikulatzea da; eta bertan erantzunak bilatzea, horiek zatikatuta edo amaitu gabe badaude ere. Horiek artikulatzea da zeregin horren gakoa, kontzeptu eta proposamen berriak sortzeko” (Rauber, 2023, or. 15).

Lan honetan kontsultatutako pertsonentzat garrantzitsua da unibertsitate komunitateak hedakuntza prozesuetan parte hartzea, baina haien ustez, parte-hartze hori modu desparekoan gertatzen da. Irakasle eta ikertzaileek eginkizun aktiboagoa omen dute jardueren garapenean, eta ikasleek rol pasiboa (batez ere hartzaile/kontsumitzaile gisa). Puntu horretan, estrategikotzat hartzen dugu unibertsitate komunitatea osoaren parte hartzea sustatzea, baina, horretarako, Unibertsitatearen kontzepzio utilitarista gainditu beharra dago. Ikasleen kasuan, esate baterako, Unibertsitatea lan-merkatura sartzeko bidetzat hartzen duen pertzepzioa gainditzea estrategikoa izan daiteke, hain zuzen ere, ikasleek Unibertsitatearen mugak gainditzen dituzten gizarte eta hezkuntza prozesuen inguruan duten interesa sustatzeko. Ibarzabalek eta Tommasinok (2023) gogorarazten diguten bezala “Ez dago ikaslearen eta gizarte errealitatearen arteko harreman zuzenak sortzen duen esperientzia pertsonala eta besterenezina ordezkari dezakeen konferentziarik, klase magistralik, filmik edo baliabide audiobisualik, hori izugarri ondo eginda badago ere” (2023, or. 7).

Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko trukerako eremuak –aztertutako zortzi unibertsitate bitan bakarrik– lehenengo urratsa dira zubiak ezartzen hasteko. Hala ere, agerian geratzen da Unibertsitatea demokratizatzeko estrategia anbiziotsuagoak behar direla. Estrategia horiek heltzeko zailenak diren edo akademian ohikoak ez diren subjektu horiengana hurbildu behar dute Unibertsitatea. Zentzu horretan, Unibertsitateak, komunitateekin hedakuntza-prozesu partizipatiboak eta iraunkorrak bultzatu nahi baditu, komunitate horien dinamiketara eta denboretara moldatu beharko ditu.

Komunitateekin harremanak ezartzea falta da. Komunitateetan proiektuak garatzeko behar den denbora ez dator bat [unibertsitate] sistemaren denborekin. Proiektuen iraunkortasuna sustatu behar da, gobernu aldaketan aurrean, lurraldean egiten den lana iraunkorra izan dadin, eta, hortaz, unibertsitateko denborak gizarte eragilean denboretara moldatu behar ditugu (1. taldea. Kontrastatzeko online saioa).

GIHeK presentzia nabarmena dute aztertutako unibertsitateen politiketan. Helburu global horiek, bada, gizarte eraldaketa tokiko-global ikuspegi batetik³⁶ pentsatzera gonbidatzen gaituzte. Horretan, unibertsitateen internazionalizazio prozesuak funtsezkoak izan daitezke lurraldeak artikulatzeko eta beren borrorak indartzeko. Hala ere, nazioarteko artikulazioko maila horretara heltzeko, aurretik, Unibertsitatea lurralderatzeko ariketa egin beharra dago. Horrek aukera emango du lurraldeko eragileekin aliantzak finkatzeko, haiekin elkarrizketa bidezko komunikazio-prozesu bat ezartzeko eta, hala, bere misioari eraldaketa zentzu bat eman ahal izateko. Hau da, gizarte eraldaketa zer den lurraldetik pentsatzea (guretzat, hemen eta orain) eta, gero, beste leku batzuetan egiten ari diren gizarte eraldaketako prozesuekin elkarrizketan jartzea. Horrela bakarrik izango du Unibertsitateak nortasun propioa, berezia eta ordezkaria, lurraldean eragiten duten problematika globalek (eta alderantziz) duten inpaktua aztertzean balio erantsia eta ezagutza kokatua eskaintzen duena.

6. Komunikazio modu egokiak bultzatzea

Unibertsitatearen eta lurraldean dauden subjektuen arteko elkarrizketa sustatzeko, alde batetik, ezagutza sortzeko duten gaitasuna aintzat hartu behar dugu, eta, bestetik, erabiltzen ditugun komunikazio moduak (bir)pentsatu behar ditugu; eta elkarrizketa, horizontal, ireki eta baliagarri baterako egokitu behar ditugu.

Gizartearen burujabetza epistemologikoa aintzat ez den bitartean, alegia, ezagutza partekatua dela, ez da aldaketarik egongo (3. taldea. Kontrastatzeko online saioa).

36 Tokiko-global ikuspegiak mundu mailan eta lurraldeetan ematen diren problematiken arteko lotura lantzen du. Ikuspegi horrek problematika globalen kausa estrukturaletan eta sistemikoetan jartzen du arreta, ulertu ahal izateko nola eragiten duten modu desparekoan lurralde bakoitzean.

Unibertsitate hedakuntza kritikoa komunikatzeko beste modu batzuk hartu behar ditu. Bestelako modu horiek Unibertsitatearen formatu tradizionalak (argitalpen akademikoak, *paperak*...) gainditu behar dituzte, eta gizarte arloko subjektuengandik hurbil dauden beste aukera batzuk pentsatu behar dituzte, Unibertsitatea eta Gizartea konektatzen dituzten diziplinarteko eta diziplinaz harandiko prozesuen bitartez. Horrela bakarrik eraiki ahal izango dira lurraldearekin konektatzeko sareak eta konfiantza harremanak, bada, unibertsitate eta gizarte esparruetako subjektuak hurbiltzeko eta horiek dituzten jakintzak eta esperientziak aintzat hartuak izateko. Elkarrizketatu batek, hain zuzen ere, eragilean, esparruen eta ezagutzen arteko harreman falta hori aipatzen du.

Irakasleak, funtsean, errealitate sozialetik deskonektatuago daude [...] Nik ezagutu ditudan irakasle batzuek [...] immigrazio gaiak lantzen dituzte, baina ez dute inolako kontakturik migranteekin [...] horrek harritzen ninduen. Izan ere, gizarte psikologoak badira, nola egiten ari dira ikerketa ikertzen ari diren taldearekin kontakturik ez badute? Ezta? Beraz, zerbait endogamikoa da Akademiaren barruan [...] agian gaiak, Akademiak, errealitate sozialetik aldentzen zaitu [...] Gizarte arloan, gizarte lanetan ari direnak ez dute inolako harremanik Akademiarekin, eta ez dituzte Akademiaren teoriak erabiltzen. Akademiatik urrun daude. Eta gure ikasketa-planek, bada, eta dute gizartearekin konektatzen (2. elkarrizketa).

Komunikazio moduak pentsatzeko eta gizarte dinamikekin uztartzeko, gure komunikazio prozesua baldintzatzen duten hainbat alderdi pentsatu behar ditugu: landutako gaiak, denborak, formatuak... Kontu horiek guztiek gizarte eraldaketan laguntzeko moduko komunikazio-prozesu dialogiko baten arakastan edo porrotean eragiten dute.

Zentzu horretan, eraldatzeko interesa duen komunikazio baterako aztertu behar dira Unibertsitateak lurraldearekin hitz egiteko duen modua arautzen duten politikak; hau da, nortzuk diren solaskideak (gizartea eta bere interesak ordezkatzeko dituzten subjektuak) eta nola ematen den komunikazio-prozesua (logika estruktibisten bitartez edo ezagutza elkarrekin eraikitze logikaren bitartez; ekintza puntualen bitartez edo prozesu logikaren bidez, etab.).

7. Baliabide nahikoak izatea

Kontsultatutako pertsonen ustez, unibertsitate hedakuntzak garrantzi txikiena duenez –unibertsitate eginkizunen artean–, aurrekontu nahikorik ez izateak eragin handia du harengan. Beraz, estrategikotzat hartzen da unibertsitate hedakuntza kritikoa ezartzeko baliabide nahikoak izatea.

Ikerketatik ondorioztatzen da gero eta baliabide gutxiago daudela, bai aurrekontuei dagokienez, bai eginkizun horretan lan egiten duten pertsona kopuruari dagokionez ere. Unibertsitate hedakuntza kritikoa bultzatzeko, joera hori gelditu eta itzuli beharra dago. Eta horretarako, behar dituzten baliabideak eman behar zaizkio unibertsitate hedakuntza kritikoa organoetara eta plan estrategikoei. Zentzu horretan, funtsezkoa da unibertsitate bakoitzaren errealitateetik abiatzea unibertsitate hedakuntza kritikoa proposamena garatzera bidera daitezkeen baliabideak zehazteko.

Ondorioak

Diagnostiko honetan, unibertsitate hedakuntzak Espainiako Estatuko zortzi unibertsitatetan (UGR, UMA, UNIZAR, ULE UVa, UPV/EHU, UM eta UPNA) gaur egun duen egoeraren ezaugarrietako batzuk aztertzeke aukera izan dugu. Eta, aldi berean, joerak identifikatu, ondorio orokorrak ezarri eta unibertsitate hedakuntza zentzu kritiko batetik sustatzeko alternatibak iradoki ditugu.

Jarraian, labur aurkezten ditugu ikerketan atera ditugun ondorio nagusiak:

Unibertsitate gobernantza birpentsatzea. Unibertsitateen esparru arautzailearen eta estrategikoaren azterketak agerian uzten du enpresa-ereduek gero eta eragin handiagoa dutela unibertsitatearen kudeaketan. Joera hori, efizientziari dagokionez abantailak eskaintzen baditu ere, unibertsitate hedakuntza kritikoaren proposamena indartzeko oztopo garrantzitsuak jartzen ditu. Zentzu horretan, uste dugu unibertsitateek beste gobernantza eredu baterantz ibili beharko luketela, hain zuzen ere, gizartearekiko eta lurraldean ematen diren eraldaketa prozesuekiko konpromiso etikoa lehenesten duen eredu baterantz. Hori guztia Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko elkarlan horizontala eta subjektuen parte-hartze aktiboa ahalbidetzen duten formulen bitartez (irakasle eta ikertzaileez, ikasleez, TEKAZELez, unibertsitatearekin lotutako gizarte erakundeez eta unibertsitateaz kanpoko beste subjektu batzuez ari gara).

Kontzeptuen eta proposamenen argitasunean eta koherentzian aurrera egitea. "Unibertsitatearen hirugarren eginkizuna" definitzeko erabiltzen diren terminoen aniztasunak, horien zentzuen arteko desberdintasunak eta funtzio horrek gaur egun biltzen dituen askotariko praktikek erakutsi egiten dute horri buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko beharra dagoela, haren zentzua zehaztu ahal izateko. Zeregin horretan, funtsezkoa da unibertsitate hedakuntzaren arloan dauden ikuspegien ondorio politikoak eta sozialak nabarmentzea, eta horiek unibertsitatearen autonomian eta gizarte misioan duten eragina aztertzea. Ildo horretan, premiazkoa da goi-mailako hezkuntzaren merkantilizazioa aztertzea, baita horrek unibertsitate sistema arautzen duten –edo arautu beharko luketen– logiketan duen eragina ere. Hau da, joera horrek unibertsitatearen gizarte misioa sustatzeko ezartzen dituen mugak; Unibertsitatea gizarte eraldaketaren sustatzaile gisa posizionatzeko sortzen dituen zailtasunak; eta, halaber, unibertsitate hedakuntza kritikoko estrategia bat sustatu ahal izateko eragiten dituen ondorioak.

Ekintza-estrategiak zehaztea eta horiek gauzatzeko baliabideak izatea. Behin unibertsitate hedakuntza kritikoaren proposamena eztabaidatuta, beharrezkoa da adostasunak unibertsitate politikan jasotzea; proposamen horren zentzua, helburuak, jarduera-ildoak, subjektuak, dauden baliabideak eta erantzukizunak jasotzen dituen estrategia bat edukitzea, beste kontu estrategiko batzuen artean. Unibertsitate hedakuntza ez da gainontzeko eginkizunetatik bereizita pentsatu behar, baizik eta horiek egituratzen dituen mekanismo gisa. Izan ere, zentzu politikoa ematen die irakaskuntza eta ikerketa gidatzen dituzten orientabideei, eta unibertsitate eginkizunen integritasunaren alde lan egiten du. Unibertsitate bakoitzaren unibertsitate hedakuntza kritikoko politika gauzatzeko formulak desberdinak izan daitezke. Hala ere, diagnostiko honek argi erakusten du hedakuntza politika ezartzeaz arduratzen diren organismo gehienek ez dutela estrategia anbiziotsu bat ezartzeko baliabide pertsonal eta ekonomiko nahikorik (hau da, gizarte eraldaketako prozesuetan edo erakundearen logika akademikoetan eragin dezakeena). Zalantzarik gabe, unibertsitate publikoen finantziario urritasun kronikoak unibertsitate hedakuntza kritikoaren irismena mugatzen du. Testuinguru horretan, beraz, finantziario-politikak berregituratu beharra dago, hedakuntzako ekimenetara bideratzen diren baliabideak egokiak direla bermatzeko. Finantza-iraunkortasunarekin batera, sarbide berdintasuna eta guztien onarekiko konpromisoa bermatzen dituen unibertsitate-eredu publikoa izan behar da.

Unibertsitatean diharduten subjektuen eginkizun eraldatzailea aintzat hartzea. Ikasleak, irakasleak eta unibertsitate teknikariak funtsezko subjektuak dira unibertsitate hedakuntza kritikoko prozesuetan. Hala ere, diagnostikoak erakusten du horien parte hartze desparekoa dela, eta, oro har, ikasleen parte hartzea pasiboa dela eta TEKAZELEk ia ez dutela parte hartzen. Beraz, horien eragiletasuna eta motibazioa handitzeko estrategiak garatu beharra dago, hedakuntzako ekimenetan eginkizun aktiboa izan dezaten. Eta, horretarako, esperientzia horiek beren prestakuntzaren eta curriculum ekintzaren parte gisa integratu behar dira. Halaber, irakasle eta ikertzaileek garatutako jardueren aintzatespen akademikorako politikak sustatu behar dira, irakasleen parte hartzea motibatuzko, ekimenak instituzionalizatzen laguntzeko eta horien iraunkortasuna bermatzeko.

Unibertsitatearen eta Gizartearen artikulazioa sustatzea, aldaketaren eragile gisa. Diagnostikoak erakusten du, Unibertsitatea eta gizartea konektatzeko mekanismoak dauden arren, horiek aldebakarrekoak izaten direla. Hau da, ezagutza erakundetik komunitatera proiektatzen dutela, eta ez dituztela haien arteko komunikazioa ahalbidetzeko kanalak sustatzen. Ikuspegi hierarkiko hori gainditzeko, bada, elkarrizketa prozesuak ezarri behar dira; alde batetik, unibertsitateaz kanpoko subjektuak ezagutzaren ekoizle baliagarritzat hartzen dituztenak, eta, bestetik, ezagutza elkarrekin eraikitze prozesu horizontalak sortzen laguntzen dutenak, gizarte, ingurumen eta ekonomia arazo nagusiei erantzuteko. Unibertsitatea eta Gizartea artikulatzeko zeregin horretan aztertu beharra dago zer subjektuk ordezkatzeko duten gizartea (haren interesak eta beharrak). Ikerketa honen emaitzetan, enpresa kapitalisten gehiegizko ordezkariak dagoela identifikatzen da, gizartearen bozeramaile gisa. Hala ere, gure lurraldeetan, gizarte mugimenduek eta beste kolektibo komunitario batzuek lideratzen dituzte gizarte eraldaketako prozesuak. Unibertsitatearen eta subjektu eraldatzaile horien arteko komunikazio-kanalak sustatzeak elkar indartzeko aukera emango lieke, baita gizarte eraldaketako prozesuetan eragiteko ahalmen handiagoa ere. Izan ere, Unibertsitateak eta gizarte eragileek ezagutza eta ekintza ekoizten badute ere, Unibertsitateak abantailazko posizioa du (eta sozialki legitimatua) ezagutza garrantzitsua kokatzeari dagokionez. Gizarte eragile eraldatzaileek, berriz, ekintza eta mobilizazio ahalmen handia dute.

Tokiko testuinguruetan gehiago errotzea eta eragitea sustatzea. 2030 Agendarekin eta Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat egiten dutela dioten arren, plan estrategikoez ez dute behar bezala adierazten Unibertsitateak inguruan duen eragina. Gero eta desparekotasun handiagoko testuinguru batean, ezinbestekoa da unibertsitateek "lurraldeketze" prozesu bat edukitzea, beren testuinguruetatik (ezagutza kokatu batetik) gizarte eraldaketa zer den eta nola gara daitekeen pentsatzeko. Prozesu horrek nortasun propioa eta berezia duen Unibertsitate errota bat eraikitzen lagunduko du, problematika globalek bere lurraldean (eta alderantziz) duten eragina aztertze eta horiengan eragiteko gai dena.

Azken finean, paradigma aldaketa baterantz aurrera egitea. Hezkuntza kritiko eta eraldatzaileko proposamen batetik, eta hezkuntza publikoaren gizarte misioa kontuan hartuta, Unibertsitateek eredu aldatu behar dute; alegia, "ezagutzaren transferentziako" eredu batetik unibertsitate hedakuntza kritikoren proposamenari lotutako beste eredu batera. Aldaketa horretarako, bada, Unibertsitatea ezagutza sortzeko eta proiektatzeko eremutat hartzen duen ideia gainditu behar dugu. Aitzitik, unibertsitatea gizarte eta ingurumen justiziaren aldeko ezagutza eta ekintza ahalbidetuko dituzten jakintzak lotzeko eta aliantza estrategikoak artikulatzeko eremu gisa ikusi behar dugu. Aurrerapen hori bakarrik izango da posible unibertsitate hedakuntza kritikoko esperientzia ugariak lurraldetan egindako ekarpenak ezagutzen eta bistaritzen baditugu (hau da, eginkizun hura zentzu kritiko eta emantzipatzaile batera bideratzearen abantailak aintzat hartzen baditugu); unibertsitate hedakuntza kritikoa gaur egun duen zentzuari buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatzen badugu; eta tokiko eta nazioarteko aliantzak ehuntzen baditugu, Unibertsitate publiko, kritiko, etiko eta konprometitu baten garrantzia defendatzeko ahaleginak batu ahal izateko.

Erreferentzia bibliografikoak

- Acevedo, Álvaro (2011). "A cien años de la Reforma de Córdoba, 1918-2018. La época, los acontecimientos, el legado". *Revista Historia y espacio*, 7(36).
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3797042>
- Celorio, Gema (2024). "Ante el contexto de crisis civilizatoria ¿hay espacio para una universidad pública, crítica y comprometida?" *Colección Periferias, Serie Experiencias*, 1: 27-44.
<https://biblioteca.hegoa.ehu.es/registros/publisher/981>
- Ciriza, Alejandra (2023). "A manera de invitación e introducción: diálogos posibles entre feminismos y extensión crítica publicado". *Textos clave de la extensión crítica latinoamericana y caribeña*: 307-320.
<https://www.clacso.org/textos-clave-de-la-extension-critica-latinoamericana-y-caribena/>
- Del Rio, Amaia (2019). "Bizitzarekin konprometituta, egungo norabide ultrakontserbadorea gelditzeko gai izango den unibertsitate baten alde". *Revista Hariak. Recreando la educación emancipadora*, 8: 2-3.
<https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/415>
- Herrero, Yayo (2019). "Unibertsitateak begirada galdua dauka hezkuntzan eta bere biziraupenean". *Revista Hariak. Recreando la educación emancipadora*, 8: 13-15.
<https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/415>
- Ibarzabal, Eloísa, TOMMASINO, Humberto (2023). "Hedakuntza Kritikoa eta Latinoamerikako Unibertsitatea: Unibertsitate publikoaren krisiari aurre egiteko gako politiko-akademikoak". *Revista Hariak. Recreando la educación emancipadora*, 13: 4-11.
<https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/598>
- Freire, Paulo (1973). *¿Extensión o comunicación? La concientización en el medio rural*. Mexiko: Siglo Veintiuno Editores.
- Freire, Paulo (1967). *La educación como práctica de la libertad*. Mexiko: Siglo Veintiuno Editores.
- Estatuko Burutza (2023). *2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemari buruzkoa*. 2023ko martxoaren 23a. BOE, 70.
<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2023-7500>
- Mayoral, José Antonio (2022). *Informe de gestión 2022. Programa de actuación 2023*. Zaragozako Unibertsitateko Klaustra, Zaragozako Unibertsitatea.
https://www.unizar.es/sites/www/files/institucion/informeGestion/ig22-pa23_def.pdf
- Ochoa, Karina, Saravia, Pablo (2023). "Claves descoloniales para sentipensar la extensión universitaria". *Textos clave de la extensión crítica latinoamericana y caribeña*: 389-399.
<https://www.clacso.org/textos-clave-de-la-extension-critica-latinoamericana-y-caribena/>
- Rauber, Isabel (2023). "Unibertsitateak funtsezko zeregin bat du: herri-mugimendu sozialen esperientzia kolektiboekin artikulatzea". *Revista Hariak. Recreando la educación emancipadora*, 13: 12-17.
<https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/598>

Errepublikako Unibertsitateko Errektoretza (2010). "La extensión en la renovación de la enseñanza: espacios de formación integral". *Hacia la reforma universitaria*, 10.
https://eva.fic.udelar.edu.uy/pluginfile.php/18276/mod_resource/content/1/Hacia%20la%20reforma%20universitaria%20la%20extensio%CC%81n%20en%20la%20renovacio%CC%81n%20de%20la%20ensen%CC%83anza.pdf

Robles, Andrés Ariel (2020). "La extensión universitaria crítica ante la avanzada neoliberal". *Revista Universidad en Diálogo*, 10(2): 167-179.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=9433991>

Tommasino, Humberto, Cano, Agustín (2016). "Modelos de extensión universitaria en las universidades latinoamericanas en el siglo XXI: tendencias y controversias". *Universidades*, 67: 7-24.
<https://pim.udelar.edu.uy/portal/wp-content/uploads/sites/14/2017/04/Modelos-de-extensi%C3%B3n-universitaria-en-las-universidades-latinoamericanas-en-el-siglo-XXI-tendencias-y-controversias.-Tommasino-y-Cano.pdf.pdf>

UNESCO (2021). *Recomendación de la UNESCO sobre la Ciencia Abierta*.
https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000379949_spa/PDF/379949spa.pdf.multi

Unibertsitate Kritiko Sarea (2019). "UKS: Unibertsitate kritiko eta eraldatzaile bat lortzeko espazioak sortzen". *Revista Hariak. Recreando la educación emancipadora*, 8: 18-21.
<https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/es/publications/415>

Kontsultatutako Estatutuak

111/2020 Erabakia, abenduaren 30ekoa, Gaztela eta Leongo Juntarena, Valladolideko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena. 2021eko urtarrilaren 22a. BOE-A-2021-909.
<https://www.boe.es/buscar/pdf/2021/BOE-A-2021-909-consolidado.pdf>

243/2003 Erabakia, urriaren 23koa, Gaztela eta Leongo Juntarena, Leongo Unibertsitatearen Estatutua onartzen duena. 2003ko urriaren 29a. BOCYL, 210.
<https://bocyl.jcyl.es/boletines/2003/10/29/pdf/BOCYL-D-29102003-22.pdf>

17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena. 2011ko otsailaren 24a. EHAA, 38.
https://www.ehu.eus/documents/1277275/1277449/nuevos_estatutos.pdf/2c70d7ee-2eac-4acf-aafc-f4a68d2d6aa7?t=1370521274000

231/2011 Dekretua, uztailaren 12koa, Granadako Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena. 2012ko urtarrilaren 25a. BOE, 21.
<https://www.boe.es/eli/es-an/d/2011/07/12/231>

27/2011 Dekretua, otsailaren 8koa, Aragoiko Gobernuarena, urtarrilaren 13ko 1/2024 Dekretuaren bidez onartutako Zaragozako Unibertsitatearen Estatutuak aldatzen dituena. 2011ko apirilaren 16a. BOE, 91.
<https://www.unizar.es/institucion/secretaria-general/estatutos-de-la-universidad>

464/2019 Dekretua, maiatzaren 14koa, Malagako Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena. 2019ko ekainak 11. BOE, 139.
<https://www.boe.es/eli/es-an/d/2019/05/14/464/dof/spa/pdf>

Murtziako Unibertsitatearen Estatutuak, unibertsitateko klaustroak 2004ko martxoaren 22an, 23an eta 24an onartutako testua.

https://www.um.es/documents/7232477/7267073/estatutos_um.pdf/2d03672f-203e-45f4-9c3c-fa63a1da83bf

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuak, 2003ko maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuaren bidez onartuak (NAO, 63, 2003ko maiatzaren 19koa), eta Nafarroako Gobernuaren 2011ko martxoaren 21eko erabaki baten bidez aldatuak. 2011ko apirilaren 11. NAO, 70.

https://www.unavarra.es/digitalAssets/103/103198_100000estatutos-ntegrados.pdf

Kontsultatutako plan estrategikoak

Granadako Unibertsitatea (d.g.). *Plan Estratégico UGR 2031*.

<https://canal.ugr.es/UGR2031/>

Leongo Unibertsitatea (d.g.). *Planificación Estratégica 22-24, Universidad de León*.

<https://transparencia.unileon.es/index.php/descargas/category/4-plan-estrategico?download=127:lineas-estrategicas-2023-2024>

Malagako Unibertsitatea (d.g.). *IV Plan Estratégico de la Universidad de Málaga (2021-2024)*.

<https://www.uma.es/plan-estrategico-uma/>

Murtziako Unibertsitatea (d.g.). *Bases del Plan Estratégico de la Universidad de Murcia 2024 – 2030*.

https://www.um.es/documents/1287777/1301296/EUMU2030_Bases_Plan_Estrategico_v2.pdf/d3beea9d-4989-8f21-a7ad-abe74906dc06?t=1705995031154

Euskal Herriko Unibertsitatea (d.g.). *Euskal Herriko Unibertsitateko Plan Estrategikoa 2022-2025*.

https://www.ehu.eus/documents/1769324/4925575/UPVEHU_PLAN+ESTRATEGIKOA_2022_2025.pdf/16556f80-4045-8abc-443d-4c41bdeb1df4?t=1655464452913

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (d.g.). *V. Plan Estrategikoa 2020-2023. Oinarri estrategikoak. Ekintza Plana*.

https://www2.unavarra.es/gesadj/seccionActualidad/plan-estrategico/Plan_Estregico_2020_EUSKERA.pdf

Valladolideko Unibertsitatea (d.g.). *Líneas estratégicas de actuación 2023-2024*.

https://www.uva.es/export/sites/uva/1.uva/_documentos/Lineas_estrategicas_actuacion_2023_2024.pdf

Eranskinak

1. eranskina. Ikerketa galderetan oinarritutako galdetegia

- GO. (Ikerketa) galdera orokorra
- GE. (Ikerketa) galdera espezifikoa
- EA. Esplorazio azterketa
- ES. Elkarrizketa sakona
- OG. Online galdetegia

GO. Unibertsitate publikoak gizartea eraldatzen laguntzen duten unibertsitate hedakuntzako prozesuak sustatzen al ditu?

GE1. Zein da unibertsitate hedakuntzaren egoera Espainiako Estatuko unibertsitate publikoetan?

Galderak	Tresna
1. Zer terminologia lehenesten da hedakuntzari dagokionez?	EA
2. Nola definitzen da hedakuntza?	EA
3. Zeintzuk dira, gaur egun, unibertsitate hedakuntzaren helburuak?	EA
4. Nola bideratzen du unibertsitateak unibertsitate hedakuntza?	EA / ES
5. Zer nolako ekimenak garatzen ditu hedakuntzaren esparruan? (tipologia eta gaiak)	EA / ES
6. Hedakuntzaren bitartez, zer nolako aliantzak sustatzen dira (aliantzak enpresekin, gizarte eragileekin)	ES
7. Bilakatu al dira, azken bost urteotan, hedakuntzaren helburuak?	ES
8. Baiezkoan, nola adierazi da aldaketa hori egitura, estrategia eta jardueretan?	ES
9. Koherenteak al dira hedakuntzaren helburuak abian jarri diren ekimenekin?	EA / ES
10. Egokiak al dira hedakuntzara bideratutako baliabideak ezarritako helburuetarako? (Egitura, langileak, aurrekontua)	EA / ES
11. Identifikatzen al dira lurraldearekin konprometitutako hedakuntzaren aldeko apustua balaztatzen duten subjektuak edo elementuak?	ES / OG

GE2. Nortzuk dira unibertsitate hedakuntzaren subjektuak? Nola hartzen dute parte hedakuntzan? Zer nolako pertzepzioa, iritzia eta kontzientzia-egoera du unibertsitate komunitateak hedakuntza ereduari dagokionez?

Galderak	Tresna
1. Nork eta nola hartzen du parte hedakuntzako jardueretan? Zer eginkizun du? Zer erakundek hartzen dute parte?	EA / ES / OG
2. Unibertsitate komunitatearen pertzepzioaren arabera, zeintzuk dira hedakuntzaren helburuak?	OG
3. Unibertsitate komunitatearen pertzepzioaren arabera, zer nolako ekimenak dira nagusi hedakuntzaren esparruan?	OG
4. Unibertsitate komunitatearen pertzepzioaren arabera, zer nolako eragina du hedakuntzak? (Subjektuengan, gizartean eta unibertsitatean)	OG / PE
5. Unibertsitate komunitatearen pertzepzioaren arabera, zer posizio/eginkizun du unibertsitateak gizartean?	OG
6. Zer neurritan aldatu behar da Unibertsitateak gizartean duen posizioa/eginkizuna?	OG
7. Hedakuntzak unibertsitateko gainontzeko eginkizunen (irakaskuntza eta ikerketa) garrantzi bera al du? Izan beharko luke?	ES / OG
8. Funtzioek elkarri berrelikatzeko eta haien artean artikulatzeko eta koordinatzeko formularik al dago? Egon beharko liriateke?	ES / OG

GE3. Hedakuntza kritikoa sustatzeko potentziala duten zer aldaketa elementu identifikatzen ditugu?

Galderak	Tresna
1. Hedakuntza estrategia errealtatearen azterketa kritiko batetik abiatzen da?	EA
2. Hedakuntzaren helburuak gizartearen beharrak (erronkak eta arazoak) asetzera bideratzen dira?	EA / OG
3. Hedakuntza proposamenak subjektuen partaidetza aktiboa eta ahalduntzailea proposatzen du?	ES / OG
4. Hedakuntza jarduerak diziplinarteko eta diziplinaz haraindiko ikuspegia al dute?	EA
5. Hedakuntza estrategia bideratzen al da elkarrizketa prozesu horizontalak sortzera unibertsitateko eragileen eta gizarte subjektuen artean (unibertsitatean ohikoak ez diren horiek barne)?	ES / OG
6. Hedakuntza estrategiak ezagutzak elkarrekin eraikitze prozesuak abiatzen laguntzen al du subjektu anitzen artean (akademikoak eta gizarte eremukoak)?	ES / OG
7. Unibertsitate hedakuntzak unibertsitateko subjektuen (ikasleak, irakasleak) konpromisoa eta partaidetza soziala sustatzen al ditu?	ES / OG
8. Unibertsitate hedakuntzak sustatzen al du gizarte eragileek unibertsitatean parte hartzea? Unibertsitatea gizarte prozesu eraldatzaileekin konektatzen laguntzen du?	ES / OG
9. Hedakuntza jarduerak unibertsitatearen misioari, ikuspegiari eta balioei buruz hausnartzea sustatzen dute? Haren eginkizunak bideratzeko aukera ematen dute? Gizarte eraldaketaren eragile garrantzitsu gisa posizionatzen laguntzen dute?	ES / OG
10. Hedakuntza jardueren jarraipena egiten al da?	EA / ES

2. eranskina. Elkarrizketa sakona

GO. Unibertsitate publikoak gizartea eraldatzen laguntzen duten unibertsitate hedakuntzako prozesuak sustatzen al ditu?

GE1. Zein da unibertsitate hedakuntzaren egoera Espainiako Estatuko unibertsitate publikoetan?

1. Unibertsitate hedakuntzako egiturak eta jarduerak konfirmatzea (esplorazio azterketan identifikatutakoarekin kontrastatzea). Ba al dago hedakuntzako plan estrategikorik edo kontuan har dezakegun beste dokumentu garrantzitsurik?
2. Hedakuntzaren orientazioa bilakatu al da azken bost urteetan? Zein da joera? Zer ondorio izan ditu bilakaera horrek egituretan, estrategietan eta jardueretan?
3. Hedakuntzari egokitutako helburuak koherenteak al dira abian jarritako jarduerekin? Baliabideak (egitura, langileak, aurrekontua) egokiak al dira?
4. Ba al dago lurraldearekin konprometitutako hedakuntzaren aldeko apustua frena dezakeen subjekturik edo elementurik? Egotekotan, nola jokutzen dute (modu aktiboan ala pasiboan)?
5. Nola artikulatzen/berrelikatzen da hedakuntza gainontzeko eginkizunekin (irakaskuntza eta ikerketa)? Berrelikatzeko formularik al dago? Hedakuntzak unibertsitate eginkizunak birbideratzeko aukera ematen al du?


GE2. Nortzuk dira unibertsitate hedakuntzaren subjektuak? Nola hartzen dute parte hedakuntzan?

1. Nortzuk hartzen dute parte hedakuntzan? Zein da haien rola eta nola hartzen dute parte?
2. Lurraldeko zer erakundeekin lan egiten da?

GE3. Hedakuntza kritikoa sustatzeko potentziala duten zer aldaketa elementu identifikatzen ditugu?

1. Hedakuntzako estrategia, nola lotzen da lurraldearekin eta gizarte prozesuekin? Zer nolako komunikazioa proposatzen du gizartearekin?
2. Zer nolako eragina du hedakuntzak? Jarduerak egokiak al dira gau egungo zibilizazio-erronkei aurre egiteko?
3. Unibertsitate hedakuntza, gizarte konpromisora bideratzen da? Zer elementu eta estrategiekin?
4. Hedakuntzako jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiten da? Zer zentzurekin?

3. eranskina. Online galdetegia



DIAGNÓSTICO EXPLORATORIO

sobre Extensión Universitaria
Cuestionario online

Minutu batzuk emango dizkiguzu?

Galdetegi hau zure eskuetara heldu bada, zure iritzia oso garrantzitsua da unibertsitate hedakuntzari buruzko esplorazio diagnostiko honetarako. Diagnostiko hau Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institututik egiten ari gara, unibertsitate hedakuntza kritikoko proiektuaren esparruan.

Galdetegia Espainiako Estatuko zortzi unibertsitate hauetako irakasleei, ikasleei, teknikariei eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileei (TEKAZEL, lehen AZL) eta gizarte erakundeei zuzenduta dago: Granadako Unibertsitatea, Malagako Unibertsitatea, Zaragozako Unibertsitatea, Leongo Unibertsitatea, Valladolideko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Murtziako Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Talde horietako bateko kide bazara, zure unibertsitateko hedakuntzari buruz duzun iritzia ezagutu nahi dugu, Unibertsitate hedakuntza kritikoari buruzko estatu mailako I. Jardunaldiak forma emango dien diagnostikoa osatzeko. Jardunaldiak 2024ko maiatzaren 23an eta 24an egingo dira Granadako Unibertsitatean.

Galdetegiari erantzuteko minutu gutxi batzuk besterik ez dituzu behar. Mesedez, irakurri galderak arretaz eta jarri gurekin harremanetan zalantzarik baduzu (educacion@hegoa.info). Erantzunak anonimoak dira, beraz, askatasunez erantzun ditzakezu.

Mesedez, kontuan izan galdetegi honetan unibertsitate hedakuntzaren kontzeptua erabiltzen dugula, oro har, unibertsitateak bere testuinguruarekin eta lurraldearekin lotuta egiten dituen ekimen guztiak aipatzeko.

Eskerrik asko zure laguntzagatik!

Hegoa Institutuko Hezkuntza Taldea

Nahitaezko galderak*Inkestatutako pertsonari buruz**

1. Nola identifikatzen duzu zure burua?*

- Emakumea Gizona Besterik:

2. Zer taldetan kokatzen zara?*

- Ikaslea naiz Irakaslea naiz
- Unibertsitatearekin lotutako gizarte-erakunde bateko kide naiz
- TEKAZEL (lehen AZL) bat naiz

3. Zer nolako harremana duzu unibertsitate hedakuntzarekin?*

- Unibertsitate hedakuntzako ekimenak sustatzen, antolatzen eta/edo garatzen ditut
- Unibertsitate hedakuntzako ekimenetan parte hartzen dut (adibidez, ekimenetara joanez)
- Ez dut inolako loturarik unibertsitate hedakuntzako ekimenekin

4. Aurreko galderan lehenengo erantzuna aukeratu baduzu (Unibertsitate hedakuntzako ekimenak sustatzen, antolatzen eta/edo garatzen ditut), mesedez, erantzun galdera honi: Unibertsitate hedakuntzako ekimen horiek, unibertsitatearen estrategia politikoaren barruan kokatzen dira?

- Bai Ez Ez dakit

5. Zein da zure erreferentziazko unibertsitatea?*

- Granadako Unibertsitatea (UGR) Malagako Unibertsitatea (UMA)
- Leongo Unibertsitatea (ULE) Murtziako Unibertsitatea (UM)
- Valladolideko Unibertsitatea (UVa) Zaragozako Unibertsitatea (UNIZAR)
- Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA)

6. Zenbat urte dituzu?*

- 18-25 26-35 36-45 46-55
- 56-65 66 baino gehiago

Unibertsitate hedakuntzari buruz

7. Zure unibertsitatean, zer nolako ekimenak dira nagusi unibertsitate hedakuntzaren esparruan?*

Mesedez, aukeratu hiru erantzun gehienez.

- Ezagutzaren transferentziako jarduerak
- Zientzia dibulgazioko jarduerak
- Gizartean sortutako ezagutza Unibertsitateara hurbiltzen laguntzen duten jarduerak
- Unibertsitateko eta gizarteko eragileen arteko elkarlana errazten duten jarduerak
- Enpresa edo ekonomia arloko beharrak asetzera bideratutako jarduerak
- Unibertsitateko eta gizarteko eragileak elkarriketa horizontalean jartzen dituzten jarduerak
- Unibertsitatea eta enpresa sektorea harremanean jartzeko jarduerak
- Unibertsitatearen ezagutzak eta baliabideak tokiko eta mundu mailako problematikak konpontzearen zerbitzura jartzen dituzten jarduerak.
- Besterik:

8. Nork eta nola uste duzu parte hartzen duela unibertsitate hedakuntzako jardueretan?*

	Ez du parte hartzen	Jardueraren hartzailerik gisa parte hartzen du	Modu aktiboan parte hartzen du (prozesuaren fase guztietan edo gehienetan)	Ez dakit
Ikasleak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irakasle eta ikertzaileak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
TEKAZELak (lehen AZL)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Biztanleria orokorra	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gizarte kolektiboak eta mugimenduak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
GGKEak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irabazi asmodun enpresak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

9. Aurreko zerrendan agertzen ez diren eragileak daudela uste baduzu, hemen aipa ditzakezu.

.....

.....

.....

.....

Unibertsitate hedakuntzari buruz II

10. Zure iritziz, eta zure unibertsitateak erabiltzen duen strategiari dagokionez, zein da unibertsitate hedakuntzaren helburua?

	Ez ados	Partzialki ados	Ados	Ez daki
Unibertsitateko pertsonak prestatzen laguntzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Unibertsitateaz kanpoko pertsonak prestatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Unibertsitatetik gizartearen beharrak (erronkak eta arazoak) asetzen laguntzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Unibertsitatetik enpresa arloko beharrak asetzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ezagutza akademikoa gizartean zabaltzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Unibertsitatearen eta gizartearen arteko elkarlana indartzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gizarte erakundeek, kolektiboek eta mugimenduek unibertsitatean parte har dezaten sustatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Enpresek unibertsitatean parte har dezaten sustatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ikasleek gizarte kolektiboetan, mugimenduetan edo prozesuetan parte har dezaten sustatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irakasleek gizarte kolektiboetan, mugimenduetan edo prozesuetan parte har dezaten sustatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ikasleen eta irabazi asmodun enpresen arteko harremana sustatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irakasleen eta irabazi asmodun enpresen arteko harremana sustatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ikasleen eta ekonomia sozial eta solidarioko enpresen arteko harremana sustatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irakasleen eta ekonomia sozial eta solidarioko enpresen arteko harremana sustatzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gizarteko eta akademiako eragileek ezagutza elkarrekin eraikitzeko prozesuak abian jartzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

11. Aurreko galderan aipatu ez diren beste helburu batzuk daudela uste baduzu, mesedez, aipa itzazu.

12. Zure unibertsitatean, zer nolako eragina du unibertsitate hedakuntzak?*

(Kontuan hartu galdera honetan "sistema hegemoniko" terminoa erabiltzen dugula sistema kapitalista, heteropatriarkala, koloniala eta estraktibista izendatzeko).

	Sistema hegemonikoa erreproduzitzeko eragina du	Ez du eragin nabar menik	Zenbait alderdi zehatz eta puntual aldatzen laguntzen du	Eraldatzen du (sistema hegemonikoaren aurrean alternatibak proposatzen ditu)
Unibertsitatean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gizartean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Horretan parte hartzen duten subjektuengan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

13. Ingurunearekin konprometituago dagoen unibertsitate bat lortzeko bidean freno gisa jokatzen duten elementuak edo subjektuak identifikatzen dituzu?

- Ikasleak Irakasleak TEKAZELak (lehen AZL)
 Unibertsitatea bera Kanpoko eragile ekonomikoak
 Gizarte eragileak, kolektiboak eta mugimenduak
 Batere ez Besterik:

14. Labur azalduko duzu zergatik identifikatu dituzun elementu edo subjektu horiek?

15. Zure unibertsitatean, zenbateraino aintzatesten da akademikoki unibertsitate hedakuntzako jardueretan parte hartzea?*

	Ez da batere aintzatesten	Partzialki aintzatesten da	Behar bezala aintzatesten da	Ez dakit
Irakasle eta ikertzaileak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ikasleak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
TEKAZELak (lehen AZL)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Zure unibertsitateari buruz

16. Erantzun zure unibertsitateari buruzko galdera hauei...*

	Bai	Ez	Ez dakit
Zure ustez rol neutrala du gizartean?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Zure ustez, sistema hegemonikoa erreproduzitzen laguntzen du?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Zure ustez, aktiboki parte hartzen du gizarte eraldaketako prozesuetan?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

17. Irakaskuntza, ikerketa eta hedakuntza dira unibertsitatearen hiru eginkizunak. Zure ustez, zer nolako garrantzia dute eginkizun horiek zure erreferentziako unibertsitatean?*

(1 "garrantzirik ez" eta 3 "garrantzi handia").

	1	2	3
Irakaskuntza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ikerketa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Hedakuntza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

18. Zure ustez unibertsitatearen eginkizun horiek (irakaskuntza, ikerketa eta hedakuntza) koordinatuta daude eta elkar elikatzen dute?*

(1 "erabat desados" eta 5 "erabat ados").

1	2	3	4	5
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

	Bai	Ez
Galdeketa honen emaitzak erabiliz egingo dugun diagnostikoari buruzko informazioa jaso nahi duzu?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Proiektuari buruzko informazio gehiago jaso nahi duzu?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Unibertsitate hedakuntza kritikoari buruzko I. Jardunaldietan parte hartu nahi duzu, maiatzaren 23an eta 24an Granadan?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Markatutako alderdi horiei buruzko informazio gehiago jasotzeko, idatz ezazu zure helbide elektronikoa hemen:



Finantzatzailea:



Argitaratzailea:



Denbora luzez, unibertsitate hedakuntza –irakaskuntzarekin eta ikerketarekin batera– Unibertsitatearen eginkizun nagusizat hartu izan da. “Unibertsitatearen hirugarren misio” gisa, hedakuntzak Unibertsitatea eta Gizartea elkartzen duten proposamen guztiak biltzen ditu, eta, hala, Unibertsitatea hura inguruko komunitatera irekitzen du eta haren zerbitzura jartzen du.

Unibertsitate hedakuntzaren deskribapen zabal horretan askotariko ekimenak sartzen dira, eta horiek, maiz, askotariko zentzuak eta helburuak ematen dizkiote eginkizun horri. Gehienak Unibertsitatea-Gizartea lotura indartzen duten ekintzak dira, baina Unibertsitate publikoaren izaera soziala arautzen duten misio, ikuspegi eta balioetatik aldentzen diren beste batzuk ere badaude.

Eginkizun horren inguruan dagoen argitasun faltak edo anbiguotasunak argi erakusten dute hura pentsatu eta (bir) definitu beharra dagoela. Zein izango beharko litzateke unibertsitate hedakuntzaren helburua? Nola burutu beharko litzateke? Zeri eman beharko lioke lehentasuna? Zer subjektu sartu beharko lituzke tartean? Nola proiektatu behar dugu gaur egun, gure lurraldeetatik eta ikuspegi kritiko batetik?

Galdera horietatik abiatuz, *Unibertsitate hedakuntzari buruzko esplorazio-diagnostikoa Espainiako Estatuko zortzi unibertsitate publikotan* izeneko lan honek egungo panoramara ezaugarritzen saiatzen da, 8 unibertsitate horiek gaur egun hedakuntzaren esparruan zer egiten ari diren eta zer kontzepzioren pean jarduten duten aztertuz.